

1.IKASGAIA: ESTATUKO ZUZENBIDE ELIZTARRA: KONTZEPTUA

I.- IKASGAIAREN ESKEMA

1.- Estatuko Zuzenbide Eliztarra: kontzientzia-askatasunaren zuzenbide

- **Zuzenbide-iturria kontuan izanda:** estatuko zuzenbidea da; ez zuzenbide konfesionala
- **Diziplinaren objektua: kontzientzia-askatasuna aztertzea; objektu formala - azterketaren ikuspuntua- eta objektu materiala –aztergaia:-**

- **kontzientzia-askatasunaren edukiaren sistematizazioa** D.LLAMAZARES irakaslearen doktrina jarraituz:

- **1. maila:** kontzientzia-askatasunak gizabanakoari aitortzen dio uste sendo propioak izateko ahalmena; hala, norberaren kontzientzia askatasunez eratzeko eskubidea.

Maila honetan, kontzientzia-askatasunak harreman estua du hezkuntza- eskubidearekin eta informazioa jasotzeko eskubidearekin.

- **2. maila:** kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen dio gizabanakoari bere kontzientzia adierazteko eta besteei jakitera emateko.

Maila honetan, kontzientzia-askatasunak harreman estua du irakasteko askatasunarekin eta adierazteko eta informatzeko askatasunekin.

- **3. maila:** kontzientzia-askatasunak aukera ematen dio gizabanakoari bere kontzientziaren arabera jarduteko, eta kontzientzia horren kontra jardutera behartua ez izateko.

Maila honetan kokatzen dira kontzientzia-eragozpeneko hainbat adibide.

Honako galdera hau sortzen da: estatuko ordenamenduak -botere publiko eta beraren jarduerak- zein neurritaraino errespetatu behar ditu gizabanakoen kontzientziak?

- kontzientzia-askatasunaren aitortzea KEn: doktrinaren baitan, KEko 16.artikuluari dago; ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna; pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna.

2.- Estatuko Zuzenbide Eliztarraren oinarri juridikoa konstituzioan

-Kontzientzia-askatasunaren **oinarri juridikoa:** KEko 16.artikuluari

-KEko 16.artikuluaren **edukia zehazteko**, garrantzitsua da KEko beste artikuluetan batzuk kontuan izatea.

-Artikulu horien artean, batzuek **izaera orokorra** dute:

- KEko 1.1: ordenamenduko balio nagusiak eta indarrean dagoen estatu-eredua zehazten du
- KEko 2 : estatu-ereduari buruzkoa, estatu autonomikoaren klausula jasotzen du
- KEko 9.2: estatu-ereduari buruzkoa, estatu sozialaren klausula jasotzen da
- KEko 10.1: pertsonalismoaren printzipioa jasotzen da

- KEko 16.artikuluari, kontzientzia-askatasuna aitortzen da

-Kontzientzia-askatasuna **zehaztu daiteke** funtsezko beste eskubide batzuen eremuan:

- hezkuntzaren eremuan: 27.artikuluari
- informazioaren eremuan: 22.artikuluari
- kontzientzia-eragozpenaren eremuan: 30.2.artikuluari
- ezkontzaren eremuan: 32.artikuluari
- familiaren eremuan: 39.artikuluari

3.- Estatuko Zuzenbide Eliztarra: kontzeptuaren garapen historikoa

Erdi aroa; erreforma protestantea, XVI. mendea; ilustrazioaren garaia, XVIII. mendea

4.- Estatuko Zuzenbide Eliztarra: doktrinaren korranteak

II.- IKASGAIAREN GARAPENA

1.- Estatuko Zuzenbide Eliztarra: kontzientzia-askatasunaren zuzenbide

- Zuzenbide-iturria kontuan izanda, estatuko zuzenbidea da; ez zuzenbide konfesionala.

Hasteko eta jatorriari dagokionez, esan dezakegu , Estatuko Zuzenbide Eliztarra izenak berak dion bezala estatuko zuzenbidea dela. Alegia, bere jatorria estatuan du; botere publiko *zibilek* emandako arau multzoa dugu. Hala, **zuzenbide konfesionala** deritzonetik desberdindu beharra dago. Zuzenbide konfesionala zuzenbide erlijiosoak da; konfesio erlijiosoek berezkoa duten zuzenbidea. Horren adibide dira, besteak beste: zuzenbide kanonikoa, zuzenbide islamiarra, zuzenbide judutarra eta abar.

Arrazoi historikoak direla -eta, "eliztar" adjektiboa agertzen da diziplinaren izenean, baina horrek ez du esan nahi elizak emandako zuzenbidea denik; haren jatorria estatuan eta horren sistema juridikoan dago. Beraz, gaur egun diziplina honen oinarri juridiko gorena Konstituzioan aurkitzen da.

- Diziplinaren objektua: objektu formala –azterketa ikuspuntua-; objektu materiala –aztergaia-

Hasteko adieraziko dugu diziplina honen **objektua**, D.Llamazares irakaslearen doktrina jarraituz, **kontzientzia-askatasuna** dela. Horregatik da ikasgai honen izenburua *Estatuko Zuzenbide Eliztarra: kontzientzia-askatasunaren zuzenbide*. Autore horrek dio kontzientzia-askatasunaren edukia hiru mailatan sistematiza daitekeela:

1.maila: kontzientzia-askatasunak gizabanakoari aitortzen dio **uste sendo** edo **iritzi** propioak edukitzeko ahalmena.

Uste sendo horien artean kokatzen ditu pertsonaren ideiak eta sinesteak, ziurtasun maila sendoa lortzen dutenean, bereziki norberaren identitatearen muina eratzen dutenean. Iritziak ere, ziurtasun maila apalagoa izanda ere, kontzientziaren adierazgarri izan daitezke.

Ildo horretan, kontzientzia-askatasunak aukera emango du kosmosaren ikuspegi bat edo beste bat izateko. Alegia, mundua, unibertsoa edo gizakiaren existentzia ulertzeko modu askotarikoak ahalbidetuko ditu kontzientzia-askatasunak. Modu horretako konbikzio sistematizatuek kosmos-ikuspegi desberdinak eratzen dituzte; erlijiosoak edo ez erlijiosoak izan daitezke horiek.

Uste sendo bat edo bestea edukitzeko eskubidearekin batera, **norberaren kontzientzia askatasunez eratzeko eskubidea biltzen da** lehen maila honetan.

Maila honetan, kontzientzia-askatasuna erabat erlazionatuta dago beste eskubide batzuekin: hezkuntza-eskubidearekin eta informazioa jasotzeko eskubidearekin, besteak beste.

2.maila: era berean, kontzientzia-askatasunak ahalmena ematen dio gizabanakoari bere **kontzientzia adierazteko eta besteei jakitera emateko.**

Maila honetan, kontzientzia-askatasuna zenbait funtsezko eskubidetan gauzatzen da:

- Norberaren kontzientzia (ideiak, sinesteak, iritziak...) hezkuntzaren eremuan adierazi edo jakitera ematen bada, irakasteko askatasuna gauzatuko da: irakasteko askatasuna. Irakasteko askatasunak aukera emango du, besteak beste, norberaren kontzientziaren baitan askatasunez irakasteko.
- Norberaren kontzientzia adierazi edo jakitera ematen bada informazioaren eremuan, komunikabide edo bestelako adierazpideen bitartez, adierazteko edo informatzeko askatasuna gauzatuko dugu.

3.maila: kontzientzia-askatasunak ere aukera ematen dio gizabanakoari bere kontzientziaren arabera jarduteko, eta, era berean, kontzientzia horren kontra jardutera behartua ez izateko.

Maila honetan, kokatzen dira kontzientzia-eragozpenaren hainbat adibide. Eredu honetan ere, honako eztabaida kokatzen da: Estatuko ordenamenduak zein neurritaraino errespetatu behar ditu gizabanakoen kontzientziak?

Galdera horri erantzuteko, kontuan hartu behar da botere publikoak indarrean dagoen Espainiako Konstituzio baitan (aurrerantzean, EK) behartuta daudela neurriak hartzera gizabanakoaren eskubide eta askatasunak eraginkorrak izan daitezen -EK 9.2 artikulua-. Baina zein motatako neurriak hartu behar dituzte botere publikoek gizabanakoen kontzientzia-askatasunak eraginkorrak izan daitezen aipaturiko maila guztietan?. Eredu hori zehazteko, kontuan izan behar dira funtsezko eskubide horri KEn ezartzen zaizkion mugak, 16.artikulua (aurrerantzean art.), hain zuzen ere: legeak babesten duen ordena publikoaren errespetua. Muga horrek zehaztuko du kontzientzia-askatasunaren legezko egikaritze-eremua.

Kontuan hartuta kontzientzia-askatasunaren ikuspegi hori Llamazaresek dio Estatuko Zuzenbide Eliztarrari dagokiola aztertzea kontzientzia-askatasunari zer nolako tratamendu juridikoa ematen zaion sistema juridikoetan. Hori da, hain zuzen, diziplina honek duen **aztertzeo ikuspuntua** edo planteamendua; horri deitu ohi zaio **objektu formala**.

Indarrean dagoen EKn kontzientzia-askatasuna ez da zuzenean aitortzen, hitzez hitz. Dena den, haren edukia jaso egiten da EKn. Oinarria EK 16.artikulan dago; bertan aitortzen zaio pertsona orori askatasun ideologiko eta erlijiosoa. Dena den, oinarri horrek harreman estua du hezkuntza-eskubidearekin -EK 27.art-, informazio-askatasunarekin -EK 20.art.- eta adierazpen-askatasunarekin -EK 20.art-, besteak beste. Oinarrizko eskubide horien azterketa dagokio diziplina honi; hori da, hain zuzen, haren **aztergaia edo objektu materiala**. Eskubide horiek guztiak aztertuko dira beti ere, pertsonaren kontzientzia eratzea, adieraztea eta horren araberrako jarduera ahalbidetzen dutenean.

Esan bezala, kontzientzia-askatasuna -hitz horiekin eta nazioarteko araudian ez bezala-, ez da EKn aitortzen. Araudi internazionalen -jorratzen ari garen materia honi dagokionez- aitortzen den eskubidea da **pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna** (Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala 18.art., Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua 18.art., Giza Eskubideen Europako Konbenioa 9. art., Europako Konstituzioaren proiektuko art.II-10).

EKn, 16.artikulan kokatu ohi dute doktrinak eta jurisprudentziak askatasun horren oinarri juridikoa. Han adierazten da gizabanakoei aitortzen zaiela ideologia-askatasuna, erlijio-askatasuna eta kultu-askatasuna eta legeak babesturiko ordena publikoa dela muga.

Adostasunik ez badago ere, doktrinaren atal nagusi baten ustez -horien artean Llamazares bera-, EKko 16.artikulan oinarrizko eskubide bakarra aitortzen da. Dena den, ez da erraza izango *eskubide bakar generiko* horren izena zehaztea. Auzitegi Konstituzionalak (AK aurrerantzean) dioenez, nahiz eta hiru termino agertu errealitate beraren adierazpen desberdinak besterik ez dira. Esan ohi da ideologia-askatasuna izango dela terminorik orokorrena; erlijio-askatasuna horren espezifikazio bat izango da, eta kultu-askatasuna, erlijio-askatasunaren edukien artean kokatu ohi da.

Dena den, kontuan izan behar da ez dela erraza pentsamendu, ideia, ideologia, sineste, uste sendoen eremu hori eskubide generiko edo orokor bakar batean biltzea. Horregatik, batzuen ustez ezin dira denak eskubide generiko bakar batean bildu. Saiakera hori saihesteko, aukera bat izan daiteke jadanik zuzenbide positiboan dauden esamoldeei jarraitzea. Hala nola,

ideologia- eta erlijio-askatasunarena edo pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunarena.

Arazo terminologikoez gain, garrantzitsua da kontuan izatea, planteamendu gisa, ideia eta sineste guztiek **oinarrizko tratamendu juridiko komun** bat izan beharko luketela; Indarrean dagoen ordenamenduan, askatasun ideologikoari ematen zaiona, hain zuen. Hori izango da Zuzenbide komuna edo orokorra –Derecho común-. Zuzenbide berezia –Derecho especial- gordeko da ideia edo sineste-sistema berezi batzuk egikaritzeak tratamendu juridiko berezi bat eskatzen duenerako. Egoera horretan kokatzen dira, besteak beste, askatasun erlijiosoa, askatasun sindikala, edo asoziazio politikoaren modu egokian garatzeko emandako zuzenbide bereziak.

2.-Estatuko Zuzenbide Eliztarraren oinarri juridikoa konstituzioan

Estatuko Zuzenbide Eliztarra, estatuaren zuzenbide den neurrian, EKren eremuan kokatu behar da. Bere azterketa-objektua kontzientzia-askatasuna da. Neuri horretan, bere oinarri juridiko konstituzional zuzena EKko 16.artikuluaren dago.

Oinarrizko eskubide hori aztertzeko, EKko zenbait artikulua izango ditugu kontuan. Artikulu horietatik, hain zuzen, ondorioztatuko ditugu elementu batzuk garrantzitsuak direnak kontzientzia-askatasunaren egikaritze-eremua zehazteko.

EKko artikulua horien artean daude, besteak beste: 1.1, 2, 9.2, 10.1, izaera orokorra dutenak; 16, kontzientzia-askatasunaren aitortpenari dagokiona, eta 20, 27, 30.2, 32, 39 gizabanakoaren eskubide konkretuak aitortzen dituztenak. Denak kontzientzia-askatasunarekin erlazionatuta daude. Aztertu dezagun artikulua horien edukia.

- 1.1 artikuluaaren edukia bitan banatu daiteke:

- a) indarrean dagoen **estatu-eredua** zehazten dutenak; 1.1 artikulua dio estatua soziala, demokratikoa eta zuzenbidezkoa dela.
- b) ordenamenduko **balio nagusiak** adierazten dutenak; 1.1 artikulua dio indarrean dagoen ordenamenduaren balio nagusiak direla: askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasuna.

EKK indarrean dagoen estatua kalifikatzeko ezaugarri batzuk izendatzen ditu. Estatuaren eredua definitzen duten ezaugarri horiei *klausula definitzaile* deitu ohi zaie. Klausula horiek dira, hala nola, estatu sozialarena, estatu demokratikoarena, zuzenbide-

estatuarena eta autonomia-estatuarena. Ikusiko dugun bezala, lotura estua dago klausula definitzaile horien eta ordenamenduko balio nagusien artean.

1.- Estatu sozialaren klausula

KEko 9.2 artikuluan zehazten da klausula horren eduki juridikoa. Han esaten da botere publikoek behar diren neurriak hartuko dituztela herritarren eskubide eta askatasunak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezzen.

Alegia, estatua ezin da mugatu soilik eskubide eta askatasunak formalki aitortzera; positiboki jardun behar du horiek eraginkorrak izan daitezzen guztientzako.

Berdintasunaren balioarekin erlazionatuta dago klausula hori . Alegia, estatu bat soziala baldin bada, bertako botere publikoek neurriak hartu behar dituzte formalki aitorturiko eskubide eta askatasunak materialki eraginkorrak egiten izan daitezzen. Estatu sozialetan ez da nahikoa berdintasuna formala izatea; berdintasun materiala deritzona lortu beharko da .

Hain zuzen, herritarren kontzientzia-askatasuna eraginkorra izan dadin estatuak hartzen dituen neurriak.

2.- Estatu demokratikoaren klausula

Laburki esateko, oinarri-oinarrian, sistema politiko bat demokratikoa izango da **subiranotasuna herriari** dagokionean. Indarrean dagoen EKko 1.2 artikuluan esaten da nazioaren subiranotasuna herriarengan dagoela, eta hortik eratortzen da estatuaren boterea.

Horren ondorioz, herritarrek estatuko botere publikoetan hartuko dute parte beren ordezkarien bitartez edo zuzenki. Lehenengo estatu demokratikoak eratu zirenean, XIX. mende inguruan, herritarren parte-hartzea eremu politikora mugatu zen, nagusiki, hauteskunderen bitartez. Baina sistema demokratikoek aurrera egin dute, eta lehenengo estatu demokratiko liberaletatik gaur egungo estatu demokratiko sozialetara iritsitakoan, aurrerapauso bat eman da demokrazia ulertzeko moduan. Gaur egun pentsatzen da demokrazian herritarren parte-hartzea eremu guztietan bultzatu behar dela; politika eremuaz gain, ekonomia eremuan, kultura eremuan, eta gizarte eremuan, besteak beste.. Hala jasotzen da EKko 9.2 artikuluan.

EKko 1.1 artikuluan jasotzen den beste balio nagusi bat, faktore demokratikoarekin oso lotuta dagoena, pluralismoa edo aniztasuna da. Sistemak kontuan hartu beharko du gizartea plurala, dela, askotarikoa, ikuspuntu politikotik eta erlijiosotik, besteak beste.

3.- Zuzenbide-estatuaren klausula

Zuzenbide-estatu baten bereizgarrien artean daude: a) **legezkotasunaren printzipioa**, boterea legearen menpe egotea eragingo duena; b) botere-banaketa; c) herritarrei eskubide eta askatasunak aitortzea.

Klausula hori EKko 1.1 artikuluko balio nagusi batekin lotu beharko bagenu, askatasunaren balioarekin lotuko genuke. Zuzenbide-estatuak *status* juridiko edo egoera juridiko berri bat aitortu zien herritarrei. Pertsonari, herritarrari, askatasun eremu bat aitortu zitzaion; han, bere borondatearen arabera jarduteko aukera izango zuen.

4.- Autonomia Estatuaren klausula

EKko 2. artikulua edukia kontuan hartuta, badirudi 1978ko Konstituzioak alde batera utzi nahi izan zuela ordu arteko estatu bateratu eta zentralizatua. Gaur egun, EKko, eskumen-banaketa aurreikusten da lurralde-entitateen artean. Bereziki interesatzen zaigu estatu zentrala eta autonomia-erkidegoen artean egiten den eskumen-banaketa EKko 148 eta 149 artikuluetan.

Aipatu dugun bezala, indarrean dagoen estatu ereduaren bereizgarriekin batera, beste elementu garrantzitsu batzuk ere jasotzen dira EKko 1.1 artikuluan: ordenamendu juridikoaren **balio nagusiak**. EKko 1.1 artikuluan, balio nagusitzat jasotzen dira: askatasuna, justizia, berdintasuna eta pluralismoa. Balio horiek ordenamendu juridiko guztian izango dute eragina eta ordenamendua bera inspiratuko dute.

Balio horiekin batera, aipatzekoa da **EKko 10.1** artikuluan jasotzen den beste balio bat: pertsonaren duintasuna. Hori ere ordenamenduaren balio nagusitzat hartu ohi da, nahiz eta EKko 1.1 artikuluan espresuki ez agertu. Hain zuzen, Auzitegi Konstituzionalak dio pertsonarekin batera doan balio espiritual eta morala dela.

Llamazares irakasleak dio pertsonaren duintasuna lotuta dagoela kontzientzia-askatasunarekin. Izan ere, pertsona baten duintasuna errespetatzen da, ahalbidetzen denean haren jardura bat etortzea dituen uste sendoekin.

EKko 10.1 artikulua kontuan hartuta, esan daiteke indarrean dagoen ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarrien artean dagoela: pertsonaren duintasuna, pertsonaren oinarrizko eskubideak, berez dagozkion eskubide bortxaezinak, pertsonaren nortasunaren garapen librea, eta legea eta gainontzekoek dituzten eskubideen errespetatua.

Doktrinak sistema juridikoaren printzipio informatzaile bat ondorioztatzen du **10.1 artikulutik: pertsonalismoaren printzipioa**. Horren baitan, sistema juridikoa interpretatu beharko da kontuan hartuta pertsona eta haren duintasuna direla sistema horren oinarrietariko bat. Are gehiago, sistema berak neurriak hartu beharko ditu aipatu dugun pertsonalismoaren printzipioa eraginkorra izan dadin.

Diziplinak EKn dituen oinarrien artean, **16. art.** da azpimarratzekoa. Horretan, ikasgai honen objektuaren oinarritzko aitorten juridikoa jasotzen da bereziki. Artikulu horrek hiru zenbaki ditu:

- **Lehenengo zenbakian**, ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna aitortzen dira, nahiz gizabanakoentzat nahiz komunitate edo elkarteentzat. Muga bat ezartzen zaie askatasun horiei: legeak babesturiko ordena publikoa.
- **Bigarren zenbakian** adierazten da ezin dela inor behartu bere ideologia, erlijioa edo sineskera aditzera ematera.
- **Hirugarrenak** dio inolako konfesiok ez duela izango estatu-izaerarik. Espresio horrekin, zera esan nahi da: estatu espainiarra jadanik ez dela konfesionala izango, tradizionalki gertatu ohi zen bezala, baizik eta **laikoa** izango dela, **neutrala**. Bide batez, jasotzen da estatuak kontuan izango dituela gizartearen erlijio-sinesmenak eta dagozkion lankidetzaharremanak izango dituela Eliza Katolikoarekin eta gainontzeko konfesio erlijiosoeekin.

Kontzientzia-askatasunak —EK 16.artikuluak— lotura estua du aipatu ditugun EKko 1.1, 2, 9.2, 10.1 artikuluekin. Hau da, estatu-ereduak eta hori inspiratzen duten balio nagusiek garrantzi berezia dute kontzientzia-askatasunari emango zaion tratamendu juridikoan. Esaterako, oso desberdina izango da kontzientzia-askatasunaren esanahia eta edukia estatu demokratiko pluralista baten eremuan, non askatasun hau aitortzen baita, edo estatu monista batean, non ez baita kontzientzia-askatasunik aitortuko.

EKko 16. artikuluan aitortzen diren eskubideek ez dute guztiz biltzen kontzientzia-askatasunaren edukia. Izan ere, kontzientzia-askatasuna gauzatu eta zehaztu egiten da gizabanakoaren beste eskubide eta askatasun batzuen bidez; EKko 16. artikuluan inplizituki aitortzen den kontzientzia-askatasunak **proiekzioak** ditu EKko beste hainbat artikulutan, besteak beste:

-27.artikulua: hezkuntza-eskubidea eta irakasteko askatasuna aitortzen dira han; hezkuntzaren eremuan funtsezkoak diren oinarriko bi eskubideak dira horiek.

Llamazares irakaslearen kontzientzia-askatasunaren edukiaren sistematizazio hirukoitzari jarraituz sailka ditzakegu funtsezko eskubide horiek . Horren harira, zera esan dezakegu:

- a) hezkuntza-eskubidea kontzientzia-askatasunaren lehenengo mailan koka daiteke; kontzientziaren eraketari dagokion maila. Alegia, hezkuntza-eskubidearen bitartez, gizabanakoak jaso ditzake, besteak beste, bere uste sendoak, sinesteak eratzeko elementuak.
- b) irakasteko askatasuna kontzientzia-askatasunaren bigarren mailan kokatu daiteke; izan ere, askatasun horren bitartez, beraren titularrek aukera izango dute dituzten uste sendoak, sinesteak eta abar adierazi eta ikasleei helarazteko irakaskuntzaren bidez.

-20. artikulua: han aitortzen dira adierazteko eta informatzeko askatasunak. Horiek modu honetan ere lot daitezke kontzientzia-askatasunaren proiektzio-mailekin :

- a) adierazpen askatasunak eta informatzeko askatasunak ahalbidetu egiten dute beren titularren eskubidea ideiak, sinesteak, informazioa eta abar adieraztea eta besteei jakitera ematea. Alegia, Llamazaresen sistematizazioari jarraituz gero, kontzientzia-askatasunaren bigarren mailan geundeke.
- b) 20. artikuluan ere, egiazko informazioa jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei , 20.1d). Eskubide hori kontzientzia-askatasunaren eraketarekin dago , beraz, Llamazaresen teoriaren arabera, kontzientzia-askatasunaren edukiaren lehenengo mailarekin.

-30.2. artikulua: soldadutzari eginiko **kontzientzia-eragozpena** deritzona jasotzen da artikuluan horretan. Honekin bideratu nahi da gizabanakoak bere kontzientziaren arabera jarduteko duen eskubidea . Llamazaresen sistematizazioari jarraituz, eskubide hori koka daiteke kontzientzia-askatasunaren edukiaren hirugarren mailan.

Horren inguruan, aztertzekoa da kontzientzia-askatasunak zein eremutan ahalbidetzen dion subjektuari legitimoki bere kontzientziaren arabera jardutea, eremu hori ez baita mugagabea.

-32 eta 39. artikulua: 32. artikuluan, ezkontzeko eskubidea aitortzen da eta 39.a familiari buruzkoa da. Izan ere, lotura estua dago pertsonen kontzientziaren, familiaren eta ezkontzaren artean. Familia bat eratu daiteke ezkontzaren bitartez edo egitatezko bikote-harreman baten

bitartez; aukera hori, askotan, kontzientzia-arrazoietan oinarritzen da. Bide batez, ezkontza zibila edo erlijiosoa izatea ere izan daiteke kontzientziaren araberako erabakia .

Familia eratzearekin batera, kontzientzia-askatasunarekin erlazionatuta dauden gertakari ugari suerta daitezke familiaren eta ezkontzaren inguruan.

Orain arte esandakoarekin, lehenengo pausoak eman ditugu diziplina honen **kontzeptua, iturria eta objektua** aztertzeko. Beti ere, gaur egungo egoerara mugatu gara. Alegia, kontuan izan behar dugu *Estatuko Zuzenbide Eliztarra* adierak kontzeptu, iturri eta objektu desberdinak izan dituela historian zehar. Estatuko Zuzenbide Eliztarra, kontzientzia-askatasuna aztertzen duen zuzenbidea izatera iritsi arte, garapen historiko luze bat gertatu da; aztertu dezagun garapen hori.

3.- Estatuko Zuzenbide Eliztarra: kontzeptuaren garapen historikoa.

Garapen historiko hori aztertzeko, momentu historiko zehatz batzuk izango ditugu kontuan : Erdi Aroa, erreforma protestanteren garaia, ilustrazioa eta gaur egungo egoera. Izan ere, une historiko horietan gertatu ziren diziplinaren garapenerako esanguratsuak diren inflexio-puntuak, alegia, aurreko egoerarekiko haustura eta aldaketa nabarmenak.

Garapen hori egiterakoan, Europa mendebaldeko eremura mugatuko gara.

a) Erdi Aroa

Garai horretako berezitasunen artean, honako hauek aipatuko ditugu:

- Faktore erlijiosoak garrantzi berezia zuen gizarte hartan; garaiko filosofía, zientzia eta baita botere politikoa ere baldintzatuko du horrek. Alegia, pentsatuko da botere politikoaren jatorria jainkotiarra zela.

- Garai horretan ez zen banaketarik egongo botere politiko eta botere erlijiosoaren artean; bi botere horien zuzenbideak ere, erabat erlazionaturik zeuden. Banaketa eza zen nagusi.

Adib.: VIII. mendearen inguruan, Karlomagno saiatu zen garai bateko Inperio erromatarra berreraikitzen. Batasun politikoa lortu nahi zuen; helburu horrekin, , fede kristaua hartu zen batasun-elementu moduan.

- Garai horretako zuzenbidea da batasun politiko-erlijiosoa horren adierazgarri. Ez dago desberdintasun argirik estatuak edo botere politikoak emandako zuzenbidearen eta botere erlijiosoak —Eliza Katolikoak, hain zuzen— emandakoaren artean. Ez dago, beraz, ordenamendu-bereizketarik.

- Oraindik ere ez dira aitortuko gizabanakoen funtsezko eskubideak. Ez da izango ez ideologia-askatasunik ez eta erlijio-askatasunik ere. Are gehiago, ez zen bereizten, gaur egun gertatzen den bezala, ideia edo uste sendo politiko eta erlijiosoen artean. Horretan ere, bereizketa eza zen nagusi.

Egoera horretan, **zein da zuzenbide eliztarraren esanahia?** Horrekin zera aipatzen da: bai Eliza Katolikoak emandako zuzenbidea, bai Eliza Katolikoarekin erlazionaturik dauden gaiak arautzen dituen zuzenbidea. Erdi aroan, ugari ziren gai horiek; horien artean, zerga gaiak zeuden, hala nola negozio juridiko desberdinak (ezkontza, oinordetza, patrimonio-negozio eta abar). Honako izen hau ematen zaie gai horiei: *eliza-gaiak*, edo *gai eklesiastikoak*. Beraz, *gai eklesiastiko* deritzonak arautzen zuen zuzenbidea izango da Zuzenbide Eliztarra; nahiz Elizak berak eman, nahiz botere politiko edo estatuak eman.

Zuzenbide eliztarreko arau horiek lotesleak ziren herritarrentzat. Indar lotesle hori oinarritzen zen, aldi berean, estatuaren (erreinuen) autoritatean eta menpekoen fedean. Gaurko hitzak erabiliz, indar lotesleak, aldi berean, izaera politikoa eta erlijiosoa zuen, baina garai hartan bi eremu horiek ez ziren bereizten.

b) Erreforma protestantearen garaia, XVI. mendea

Garai horretako gertakizunen artean, honako hauek dira guretzat baliagarriak:

- Gertakizun historiko hori inflexio-puntu bat izango dugu Erdi Aroan zegoen dinamika horretan. Izan ere, erreforma protestanteak aldaketa sakon bat ekarri zuen; testuinguru horretan eman baitziren lehenengo pausoak botere politikoaren eta erlijiosoaren arteko banaketan.
- Zerk bultzatu zuen erreforma protestantea? Kontuan izan behar dugu garaiko eliza kristauaren egoera: botere erlijiosoa, aldi berean, botere politiko eta ekonomiko garrantzitsua ere bazen; gerretan parte hartzen zuen, ondasun ugarien jabea zen, araudi propioa zuen eta abar.

Egoera hartan, elizaren barnean kritikak sortu ziren (Lutero, Alemania, XVI. mendea), uste baitzen eliza-eredu hura erabat aldentzen zela Ebanjelioetako elizatik. Horien ustez, elizak arduratu behar zuen fedearekin erlazionaturik zeuden arazoez soilik, gaur egungo zentzuan ulertuta. Beraz, aipatu ditugun *elizagaia* edo *gai eklesiastiko* horiek ez ziren izango proposatzen zuten *eliza protestante* horien ardura; materia horiek, ondorioz, printzeen edo erregeen esku geratuko ziren.

- Bestelako arrazoi politikoaren artean, garaiko erlijio-gerrak izan ziren liskar horren ondorioa; hala nola, Eliza kristauaren banaketa. Alde batetik, Erromako Eliza Katolikoa gelditu zen eta, bestetik, sortutako Eliza protestante guztiak: Luteranoa, Kalbinista, eta abar. Erreforma protestantea gertatu eta gero, batasun erlijiosoak desagertu zen Europan. Erlijio-aniztasuna kontzeptua sortu zen; baina, pluraltasuna ez zegoen gizabanakoaren baitan, printzearengan baizik. Lurralde bakoitzeko printzeak aukera zuen lurralde horretako erlijioa zein zen finkatzeko; “cuius regio eius religio”, “fede bat, errege bat, lege bat” lemapean jasotzen zen ideia hori.

- Erreformari jarraitu zioten erreinuetan, elizak lurraldeko printzeengan aurkitu zuen babesari; horrela sortu zen eliza-eredu berri bat Estatuak Elizarena edo Estatu-elizarena. Estatu edo erreinu bakoitzak eliza propioa zuen; erresumaren burua, printzea, elizaren buru zen aldi berean. Estatu eta eliza arteko harreman-eredu horrek, nolabait, oraindik irauten du estatu-eredua desberdina izanda ere.

- Erreformak garaipena lortu zuen lurraldeetan sortu zen *Zuzenbide Eliztarraren beste kontzeptu bat*. Estatuak -botere politikoak- emandako araudiak balioko du elizarekin erlazionaturik dauden gaiak arautzeko; betiere, alde batera utziaz gai guztiz erlijiosoak, espiritualak.

Orduan sortu zen, zehazki, *Estatuak Zuzenbide Eliztarraren* kontzeptua; alegia, *Estatuak* -erreinuak edo printzeak garai honetan- emandako *zuzenbidea*, ordu arte eliza-gaiak zirenak (ezkontza, familia, gai ekonomikoak, politikoak eta abar) arautzeko, horregatik *eliztar* hitza.

- Dena den, kontuan hartu behar da garai horretako "estatuak" —erreinuak, alegia—, konfesionalak zirela; hau da, fede konkretu bat ofiziala zen. Gainera, oraindik, eremu politiko eta erlijiosoaren banaketa ez zen erabatekoa, hori ez baitzen gertatu ia XX. mende arte. Ildo berean, boterearen jatorri jainkotiarra garaiko pentsamenduaren oinarri da.

Garai horretan, zehaztasunez ezin dugu hitz egin ez ideologia-askatasunaz ez eta erlijio-askatasunaz ere; oraindik ez da agertu eskubide eta askatasunen kontzeptua gaur egun ulertzen dugun moduan.

c) Ilustrazioaren garaia

Hurrengo inflexio-puntua dugu hori, XVIII. mende aldera gertaturikoa. Gizakiaren arrazoiari ematen zaion garrantzia da ilustrazio delako mugimenduaren berezitasuna.

Arrazionalismo eta sekulartasunaren garaia hasi zen. Horren ondorioz, zalantzan jarri zen boterearen jatorri jainkotiarraren tesia.

Garai horretakoak dira pertsonari aitortuko dizkien lehenengo eskubide deklarazioak. Modu berean, alor politikoa eta erlijiosoaren arteko banaketa sakonduz joango da. Prozesu horrek gaur arte jarraitu du.

Sekularizazioa maila guztietan gertatu zen, eta horrela sortu ziren kosmos-ikuspegi ez erlijiosoak, alegia, mundua ulertzeko modu ez erlijiosoak. Ildo beretik sortu ziren, halaber, ideia eta sineste ez erlijiosoak. Pluraltasun edo aniztasuneko egoera bat sortu zen.

Egoera horretan, *Zuzenbide Eliztarraren* zentzua ere aldatu egin zen, gizabanakoen erlijio-askatasuna izango da aztergaia.

d) Gaur egun arte, prozesu horrek aurrera egin du. Indarrean dauden estatu eredu gehienak dira zuzenbidezko estatuak, demokratikoak, neutralak eta laikoak. Testuinguru horretan, pentsatzen da pertsonen uste sendoek - erlijiosoak nahiz ez erlijiosoak - oinarri juridiko berbera dutela: pentsatzeko askatasuna. Askatasun horrek suposatzen du norbera libre dela bere sinesteak, ideiak, uste sendoak eta abar izateko; hor dago kontzientzia-askatasunaren oinarria.

Doktrinaren atal batek dio, horien artean D.Llamazaresek, gaur egungo estatu-ereduetan *Zuzenbide Eliztarra* ez dela arduratu behar soilik erlijio-askatasunaz. Izan ere, kontuan izan behar da erlijio-askatasuna zabalagoa den beste askatasun baten espezifikazio bat dela, ideologia-askatasuna.. Azken finean, ideia, pentsamendu, sineste eta abarren eremua da, kontzientzia-askatasunaren eremua, beti ere pertsonaren nortasuna eratzen duten uste sendo errotuak direnean. Hasierako planteamendu gisa, ideia, pentsamendu, sineste... guztiek tratu juridiko berbera izan beharko dute. Arau orokor gisa, ez dago zertan ideia erlijiosoei — fenomeno erlijiosoari, alegia— zuzenbide berezi bat eman, nahiz eta batzuetan tratu juridiko berezia arrazoitua izan.

Dena den, doktrina guztia ez dago ados aipaturiko planteamendu horiekin. Diziiplina horren inguruan, hainbat korrante daude doktrinan.

4.- Estatuko Zuzenbide Eliztarra eta doktrinaren korronteak

Estatuko Zuzenbide Eliztarra kontzientzia-askatasuna aztertzen duen diziiplina dela kontsideratzea, doktrinaren korrante baten jarrera da; bere burua Dionisio Llamazares irakaslea da. Korronte hau kalifikatu ohi da *eskola laikoarena* bezala.

Doktrinan, beste korrante batzuk ere badaude , ikasgaitzat askatasun erlijioso soilik dutenak. Besteak beste, *Nafarroako eskola* deritzona (beraren jatorria bertako unibertsitate pribatuan baitago), López Alarcón eta Villadrich buru dituenak.

III.- BIBLIOGRAFIA, LEGERIA ETA JURISPRUDENTZIA

a) Bibliografia

- **Oinarrizkoa:** D. LLAMAZARES FERNÁNDEZ, *Derecho de la libertad de conciencia I*, Civitas, Madril, 2002, or. 17-37; D. LLAMAZARES FERNÁNDEZ, *Derecho eclesiástico del Estado, Derecho de la libertad de conciencia*, Servicio de publicaciones de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense de Madrid, Madril 1991, 13-32.

- **Osagarriak:** J.SOUTO PAZ, *Derecho Eclesiástico del Estado. Derecho de la libertad de ideas y creencias*. Madril, 1997. R. NAVARRO VALLS (Koord.), *Derecho Eclesiástico del Estado español*, EUNSA, Iruñea, 2002.

Estatu-ereduari buruz: A. GARRORENA MORALES, *El Estado español como estado social y democrático de Derecho*, Tecnos, Madril 1984; L.PAREJO ALFONSO, *Constitución y valores del ordenamiento*. Centro de Estudios Ramón Areces SA, Madril, 1990A.PEREZ LUÑO, *Derechos humanos, Estado de Derecho y Constitución*, Tecnos, Madril, 1984.

b) Legeria

- EK artikulak: 1.1, 2, 9.2, 10.1, 10.2, 16, 20, 27, 30.2, 32, 39, 148, 149
- Giza Eskubideen Aitorpena Unibertsala 18.art.
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna 18.art.
- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena 9. art.
- Europako Konstituzioaren proiektuaren art. II-10.

c) Jurisprudentzia

AKE 19/1985 otsailaren 13koa.

2. IKASGAIA: KONTZIENTZIA-ASKATASUNA ETA ESTATU-EREDUAK

I.- IKASGAIAREN ESKEMA

1.- Kontzientzia-askatasuna eta oinarrizko kontzeptu juridikoak

1.1.- Estatu-ereduak eta kontzientzia-askatasuna

- Sarrera

- Estatu-ereduak:

a) Neutraltasun ideologikoaren ikuspuntutik:

- ESTATU MONISTA

- ESTATU PLURALISTA

b) Neutraltasun erlijiosoaren ikuspuntutik:

- ESTATU KONFESIONALA

- ESTATU LAIZISTA

- ESTATU LAIKOA

1.2.- Ordenamenduen arteko erlazio-teknikak

- Sarrera

- Erlazio-teknika mota desberdinak:

1.- Ordenamendu batek beste ordenamendu bateko ARAUei eraginkortasuna aitortzen dienean: **ARAU IGORPEN:**

- Arau-igorpen **FORMALA:** esanahia, indar loteslea, jurisdikzioa, arauen interpretazioa

-Arau-igorpen **MATERIALA:** esanahia, indar loteslea, jurisdikzioa, arauen interpretazioa

2.- Ordenamendu batek beste ordenamendu baten arabera eraturiko

NEGOZIO edo EGOERA JURIDIKOei eraginkortasuna aitortzen dienean.

- **ONDORIO JURIDIKOEN AITORPENA:** esanahia eta motak.

- **PRESUPUESTOA:** motak.

II.- IKASGAIAREN GARAPENA

1.- Kontzientzia-askatasuna eta oinarrizko kontzeptu juridikoak

1.1.- Estatu-ereduak eta kontzientzia-askatasuna

- Sarrera

Ikasgai honetan aztergai izango dira **kontzientzia-askatasuna eta estatu-ereduak**. Aztertuko dugun bezala, estatu-eredu ugari dago eta horietako bakoitzak **jarrera desberdina** izango du kontzientzia-askatasunaren aurrean. Eredu batzuetan, intolerantzia izan da jarrera nagusia; beste batzuetan, berriz, tolerantzia. Zenbait eredutan gertatu da, halaber, kontzientzia-askatasuna aitortzea eta hura urratzen ez dela ziurtatzea. Egun, hain zuzen, eredu aurreratuen artean dago, kontzientzia-askatasunaren garapenari begira askatasun hori aitortu eta babesteaz gain hura baliatu ahal izatea sustatzen baitu.

Kontuan izan behar da, historikoki izan diren ereduak aztertuta, **neutraltasun ereduak** direla kontzientzia-askatasuna - Llamazares irakaslearen jarrerari eutsita- osotasunean garatzeko

aukera gehien eman duten ereduak. Neutraltasun-ereduak lortzea garapen historiko baten ondorioa izan da.

Estatu-ereduak sistematizatzea izango da ikasgai honen aztergaia. Kontzientzia-askatasuna nola tratatu den izango da irizpidea eta Neutraltasunaren printzipioaren ikuspuntutik aztertuko dugu.

Zehatz-mehatz, neutraltasun ideologikoaren eta neutraltasun erlijiosoaren eremuan aztertuko ditugu ereduak. Nola tratatu da kontzientzia-askatasuna ?

a) Neutraltasun ideologiakoaren ikuspuntutik, estatuak bitan banatu ditzakegu: **estatu monistak eta estatu pluralistak**.

Ideologikoki, estatu bat monista izango da ideologia ofizial bat duenean. Intolerantzia eta dogmatismoa izango dira printzipio nagusiak. Alegia, "egia ofizial" bat egongo da eta ezingo da horren kontra joan.

Horren ondorioz, beste ideologia guztiak baztertuko dira, are gehiago, horiei jarraitzea delitu izango da. Beraz ez da talde ideologikoen aniztasunik egongo ez eta horiek sortzeko askatasunik ere. Ideologi ofizial horrekin bat datozen taldeak onartuko dira bakarrik. Askotan, , nahitaezkoa izango da horien partaide izatea.

Horren adibide ditugu estatu diktatorialak eta dogmatikoak, hala nola, partidu politiko edo sindikatu bakarreko estatuak.

Laburbilduz, ez dago kontzientzia-askatasunik.

Ideologikoki estatu bat plurala denean, egoera desberdina da. Tolerantzia eta erlatibotasuna izango dira printzipio nagusiak; ez da egongo ideologia ofizial baztertzailerik. Inork ez du izango "egia absolutua"; pluralismoa izango da balio nagusia.

Elkarteak sortzeko askatasuna egongo da, ondorioz, talde politiko, sindikatu eta bestelako elkarte ideologikoen artean, aniztasuna egongo da.

Estatu pluralistak, normalean, forma politiko demokratikoekin bateratzen dira.

Ideologia eta kontzientzia-askatasun horrek **mugak** izango ditu. Alegia, pluraltasun horren barnean, beti egongo da eremu bat nolabaiteko adostasuna eskatuko duena. Estatu horretako legeri nagusian jasoko da adostasun-eremu minimo hori. Adibidez, EKko 16.artikuluan adierazten da askatasun ideologiko eta erlijiosoaren muga ordena publikoa dela.

b) Neutraltasun erlijiosoaren ikuspuntutik, estatuak konfesionalak, laikoak edo laizistak izan daitezke.

Estatu bat **konfesionala** izango da, zenbait sineste erlijiosori lehentasuna ematen zaienean. Konfesionaltasun hori maila desberdinetakoa izan daiteke. Konfesionaltasuna maila sakonekoa denean, **konfesionaltasun** doktrinala izango dugu. Kasu horretan, sineste erlijioso jakin batzuk egia bakartzat hartuko ditu estatuak; ondorioz, bere gain hartuko du horiek sustatu eta defendatzea. Estatua identifikatuko da sineste erlijioso jakin batekin edo bat baino gehiagorekin: Bat baino gehiago izanez gero, plurikonfesionaltasuna deituko zaio.

-Konfesionaltasun doktrinala intolerantea eta baztertzaila izango da. Bestelako sinesteak edo sinesterik ez izatea negatiboki baloratuko da; zigor penalak ere ezar daitezke.

-konfesionaltasun doktrinalaren eremuan ez dago kontzientzia-askatasunik. Izan ere, askatasun erlijioso egikaritu ahal izango dute soilik erlijio ofizialaren jarraitzaile direnek.

Badago konfesionaltasunaren adibide apalago bat: **konfesionaltasun historiko-soziologikoa**. Normalean, konfesionaltasun mota hori aurrerapauso bat izan ohi da neutraltasunerako bidean.

Konfesionaltasun historiko-soziologikoan, estatuak, botere publikoek, alegia, ez dute beren burua gai ikusten sineste batzuk edo beste batzuk *egiazko bakartzat* jotzeko. Dena den, sineste batzuek aldeko tratu juridikoa jasoko dute, lehentasuna emango zaie. Hain zuzen, horregatik da estatua konfesionala. Egoera pribilegiatu horren arrazoia izan daiteke **historikoa** -estatu horren eraketan konfesio jakin batek izan duen garrantziagatik- edo **soziologikoa** -estatu horretako herritarren gehiengoak duen konfesioa izateagatik.

Konfesionaltasun mota hori ez da baztertzaila; behintzat, bestelako sinesteak toleratu egiten dira. Are gehiago, zenbaitetan, sinesteak izateko askatasuna ere aitortzen da bestelako; alegia, erlijio-askatasuna aitortuko da. Eredu horrekin emango dira lehenengo pausoak kontzientzia-askatasuna lortzeko bidean.

Estatu laizista beste eredu mota bat dugu. Eredu konfesionalaren beste muturrean kokatu ohi da hori. Izan ere, estatu laizistek kanporatu, baztertu, egiten dituzte beren eremutik sineste erlijiosoak. Sineste erlijiosoak izatea modu negatiboan balioesten da. Estatuak edo botere publikoek uste dute sineste erlijiosoak oztopo bat direla estatuak dituen helburuak lortzeko.

Estatu komunistak dira horren adibide garbia; estatu haietan, sineste erlijiosoak izatea modu negatiboan balioesten da. Han, noski, ez zen kontzientzia-askatasunik.

Azkenik, **estatu laikoa** dugu. Horietan, fenomeno erlijiosoarekiko neutraltasuna da estatuaren jarrera. Alegia, estatua inpartziala izango da herritarren aukera erlijiosoen aurrean. Estatuak pentsatzen du herritarrek sineste erlijiosoak izateak edo ez izateak, ez duela zer ikusirik

bere egitekoarekin gizartearen antolaketan. Bere balorazioa ez da ez positiboa ez negatiboa. Estatu laiko edo neutraletan erlijio-askatasuna aitortzen da, baita kontzientzia-askatasuna ere.

Dena den, inpartzialtasunak ez du atxikitasun eza esan nahi. Eredu neutral horiek, normalean, zuzenbide-estatu demokratikoetan gauzatzen dira. Gaur egun, arauen arabera, esan daiteke zuzenbidezko estatu demokratiko gehienak estatu sozialak direla. Estatu espainiarraren kasuan, hala jasotzen da EKko 1.1 artikuluan. Estatuak -sozialak diren neurrian- ezin dira mugatu soilik askatasun erlijiosoa aitortzera, baizik eta neurriak hartu beharko dituzte oinarritzko askatasun hori benetakoa eta eraginkorra izan dadin herritar guztientzat. Agindu edo betebeharrak horren oinarri juridikoa EKko 9.2 artikuluan dugu zentzu orokorrean. Erlijio-askatasunaren eremuari dagokionez, EKko 16.3 artikulua dakar *neurriak hartzeko* betebeharrak orokor horren zehaztapen bat. Alegia, aipaturiko artikulua elkarrekin interpretatuz ondoriozta daiteke botere publikoek neurriak hartuko dituztela askatasun erlijiosoa eraginkorra eta egiazkoa izan dadin. Horretarako, kontuan hartu beharko dira gizartearen sineste erlijiosoa, eta lankidetzaren harremanak mantenduko dira eliza katolikoarekin eta gainontzeko erlijio-konfesioak.

Dena den, lankidetzaren horrek kontuan izan behar du estatu neutral beraren esentzia laikotasuna dela; laikotasun horrek berarekin dakar banaketa estatua eta konfesioen artean.

Kontzeptu horiek ondorengo ikasgaietan sakonduko dira.

1.2.- Ordenamendu juridikoen arteko erlazio-teknikak

- Sarrera

Estatuak beren ordenamendu juridiko propioa dute; estatuaren eremuan kokatzen diren talde ideologikoen ere beren araudia dute; bide batez, eremu horretan jarduten duten konfesio erlijiosoen ere beren ordenamenduak dituzte. Nabari da kontzientzia-askatasunarekiko harreman zuzena duen eremu juridikoan ordenamendu juridiko ugari dagoela.

Kontuan izan behar da ordenamendu juridiko horiek guztiak ez direla beti aurkitzen maila berean. **Santi Romanok** ordenamenduak bitan bereizten ditu: a) **jatorrizkoak edo lehen mailakoak** direnak, eta b) **eratorriak edo bigarren mailakoak** direnak.

Autore horrek dioenez, ordenamendu bat **jatorrizkoa** edo **lehen mailakoa** izango da subiranoa edo independentea denean; alegia, duen eragin loteslea beraren baitan dagoenean, eta ez mailaz gorenagoko beste ordenamendu batekin duen adostasunean. Jatorrizko ordenamendu batek ez du mailaz gorenagoko beste baten babesik behar bere hartzaileentzat loteslea izateko.

Estatu subirano bakoitzaren ordenamenduak dira horren adibide . Ordenamendu horiek lotesleak dira herritarrentzat; estatuaren indarrean oinarritzen da eragin lotesle hori. Estatuko ordenamenduek ez dute behar maila gorenagoko beste ordenamendu baten babesa lotesle izateko. Modu berean -mendebaldean eta egungo sistema juridiko neutraletan-. ordenamendu konfesionalak jatorrizko ordenamenduak dira beren eremuan. Ordenamendu konfesionalak estatuaren ordenamendutik bereziak daude; beren aplikazio-eremu propioa dute: fededunei dagokiena eta beren eragin loteslea fedearen araberakoa da.

Ordenamendu bat **eratorria** edo **bigarren mailakoa** izango da, hitzak berak dioen moduan, jatorrizkoa edo lehen mailakoa den ordenamendu baten babesean eta menpean sortzen direnean. Bertako arauak lotesleak izango dira jatorrizko ordenamenduarekin lotuta dauden neurrian.

Adibidez, egun, ordenamenduak bere barnean asoziazio edo elkarte ugari ditu estatu espainiarraren ordenamenduak, EKko 22.artikuluak aurreikusitakoa aplikatuz gero: talde ideologikoak, alderdi politikoak, sindikatuak, bestelako elkarteak eta abar. Elkarte horiek beren arauak dituzte, beren estatutuak, hau da, arau multzo artikulatu bat bere eremua “ordenatzen” duenak. Arau horiek lotesleak dira kideentzat, eta EKko 22. artikuluan egongo da haien azken oinarri juridikoa; juridikoki, 22.artikularen babesean eratu diren errealitateak dira. Kasu horretan, aipaturiko elkarten ordenamendu juridikoak eratorriak edo bigarren mailakoak izango dira; estatuaren ordenamendua, berriz, jatorrizkoa edo lehen mailakoa.

Gizabanakoen kontzientzia-askatasuna gara daiteke talde-jardunaren bitartez. Ordenamendu anitzen bitartez arautzen da talde horien jarduera, eta ordenamendu horiek guztiak harremanetan daude. Guri dagokigu aztertzea harreman horiek zein teknika juridikoen bitartez bideratzen diren.

Ordenamendu arteko harremanak emateko bi ordenamendu juridiko behar ditugu gutxienez. Estatuaren ordenamenduaren ikuspuntutik aztertuko ditugu harreman horiek. Alegia, estatuaren ordenamenduak zein teknika aplikatzen dituen bestelako ordenamenduekin erlazionatzeko.

Estatuaren ordenamendua batzuetan erlazionatuko da jatorrizko edo lehen mailako beste ordenamendu batekin. Horren adibide ditugu, besteak beste, bi estatu subiranoen arteko harreman juridikoa edo estatuko ordenamenduaren eta ordenamendu konfesional baten artekoa.

Beste batzuetan, estatuko ordenamendua harremanetan jarriko da bigarren mailako edo eratorritako ordenamendu batekin; besteak beste, estatuaren ordenamenduaren eremuan eratzen diren ordenamendu estatutarioak.

ondoren aipatuko ditugun tekniken bitartez gauzatuko dira harreman horiek .

- Erlazio-teknika motak

Nagusiki honako bi kasu hauek bereiz ditzakegu:

a) Ordenamendu batek bere eremuan eraginkortasuna aitortzen dienean beste ordenamendu bateko **arauei**.

Kasu honetan, **igorpenaz** mintzatuko gara, **arauen igorpenaz**, hain zuzen.

b) Ordenamendu batek bere eremuan eraginkortasuna aitortzen dienean beste ordenamendu batean eraturiko **negozio edo egoera juridikoei**. Honetan, **ondorio-aitorpenaz** edo **presupuestoz** mintzatuko gara.

1.- Arau-igorpena

Arauen igorpena bi modutakoa izan daiteke: formala eta materiala.

Hasteko zehaztuko dugu erabiliko dugun terminologia. Kontuan izango dugu fenomeno horretan bi subjektua izango direla: a) igorpena **egiten** duen ordenamendua: **ordenamendu igorlea** (gure kasuan, estatuako ordenamendua izango da); b) igorpena **jasotzen** duen ordenamendua.

1.1.- Arau-igorpen FORMALA:

Egitatezko suposamendua zera da: ordenamendu igorleak -guretzat estatuko ordenamenduak- bere araudian adieraziko du gai zehatz bat –adibidez, pertsona batzuen ezkontza- beste ordenamendu bateko arauk arautuko dutela.

Adibidez: Frankismo garaian, beste estatu-eredu bat zegoen indarrean; bataiatuak derrigortuta zeuden kanonikoki ezkontzera. Kasu horretan, estatuak igorri egiten zuen materia horren erregulazioa beste ordenamendu batera: ordenamendu kanonikora.

Ordenamendu igorlea izango da —estatuaren ordenamendua, alegia— bere eremu propioan —estatuaren eremuan, alegia— arau horiei **indar loteslea** emango diena. Igorpen zehatz hori gabe, arau horiek ez zuten baliorik izango beren jatorrizko eremutik kanpo.

Beraz, arazorik egongo balitz, ordenamendu igorlearenaren jurisdikzioa izango da eskuduna: estatuarena, alegia.

Kontuan izanik arau horiek beste ordenamendu batekoak direla, jatorrizko ordenamenduaren arabera **interpretatuko** dira ordenamendu horiek; bertako printzipioei jarraituz, baina muga batekin: ordenamendu igorlearen ordena publikoa.

D.Llamazaresek dio teknika hori aplikagarria dela nazioarteko zuzenbidearen eremuan.

Kode Zibileko 9.2.artikulua dugu horren adibide: “los efectos del matrimonio se regirán por la ley personal común de los cónyuges al tiempo de contraerlo”. Kasu horretan, ezkontideen lege pertsonala atzerrikoa baldin bada, estatuko ordenamenduak adierazten du haien ezkontzaren efektuak berak arautu beharrean beste ordenamendu batek arautuko dituela.

Gerta daiteke estatu batek xedatzea materia zehatz bat —demagun ezkontza— eliza katolikoaren ordenamenduak —Zuzenbide Kanonikoak, alegia— arautuko duela kasu jakin batzuetan -bataiatuak dauden arteko ezkontza, adibidez-. Kasu horretan:

-Arau kanoniko horiek lotesleak izango dira estatuko ordenamenduaren eremuan, estatuak hala aurreikusi duelako. Beraz, estatuko ordenamenduak emango die eraginkortasuna.

-Arauak jatorriz kanonikoak dira; beraz, ordenamendu Kanonikoaren arabera **interpretatuko** dira. Beti ere, estatuko ordena publikoa errespetatuz, hori baita muga.

-Materia horren inguruan arazorik egongo balitz, estatuaren **auzitegiek** hartuko lukete horren erantzukizuna. Beste ordenamendu bateko arauak aplikatuko dituzte auzitegi horiek.

Horrelako adibideak maiz gertatu dira estatu konfesionaletan, Estatu espainiarrean Frankismoaren garaian, esaterako.

1.2.- Arau-igorpen MATERIALA:

Horretan, ordenamendu igorlea ez da mugatzen beste ordenamendu bateko arauei eraginkortasuna ematera. Arau-igorpen horretan, ordenamendu igorleak **bere egiten ditu** gai bat arautzen duten beste ordenamendu bateko arauak, hau da, bere sisteman barneratzen ditu.

Beraz, kasu honetan ere, arau horiek **lotesleak** izango dira beren eremutik kanpo, ordenamendu igorleak hala aurreikusten duelako.

Igorpen materiala gertatu ondoren, ordenamendu igorlearen parte izango dira arau horiek. Ordenamendu igorlearen printzipioen arabera interpretatuko dira . Are gehiago, hutsuneren bat egongo balitz, ordenamendu igorlea izango da zuzenbide-osagarria.

Ordenamendu igorlearen **jurisdikzioak** izango du erantzukizuna gai horretan igorpen materiala gertatu eta gero, hain zuzen, bertako arauak baitira.

Jatorria beste ordenamendu batean duten arau horiek **zuzenbide estatutario** bat eratu dezakete. Beraz, zuzenbide arruntarekiko lehentasuna izango du zuzenbide berezi horrek.

Adibidez, Llamazares irakasleak dio gaur egun teknika hori aplikatzen dela ezkontza forma erlijiosoetan. Egund, forma zibilean edo erlijiosoan ezkon daiteke edozein herritar. Forma erlijioso horiek beste ordenamendu batzuek arautzen dituzte, eta autore horrek dio arau horiek estatuak bereganatu egiten dituzenez hango zuzenbide bilakatu egiten dela.

Adibide honetan, bi ordenamendu izango ditugu; bata jatorrizkoa izango da -estatuarena- eta bestea, berriz, eratorria -konfesioarena-. Kasu honetan, konfesioaren zuzenbidea eratorria da estatuaren ordenamenduarekiko, zeren, arau konfesionalen eraginkortasuna estatuaren eremuan, estatuak berak ematen baitio arau horiek bere ordenamenduan barneratzerakoan.

2.- Ordenamendu batek beste ordenamendu baten eremuan eraturiko negozio edo egoera juridikoei efektuak aitortzen dizkienean.

Horretan, bi aukera daude:

1.- Ondorio juridikoak aitortzea:

Kasu horretan, ordenamendu batek –estatuarenak- eraginkortasun juridikoa aitortzen dio bere eremuan beste ordenamendu baten eremuan eratu den **negozio juridiko** bati. Esaterako, estatuaren ordenamenduak efektuak aitortzen dizkio, ordenamendu konfesional baten eremuan eratu den negozio juridiko bati.

Efektuak bi modutan aitor daitezke:

-Efektu osoak aitortzea: hori gertatuko da aitorpena egiten duen ordenamenduak jatorrizko ordenamenduan zituen efektu juridiko berberak aitortzen dizkionean negozio horri.

-Efektu osoak aitortzen ez direnean: alegia, aitorpena egiten duen ordenamenduak efektu juridikoak aitortzen ditu, baina ez jatorrizko ordenamenduak ematen zizkionak.

Adibidez, Italian edo Espainian konfesionaltasun handiko garaietan, efektuak aitortzen zizkien estatuak ezkontza kanonikoei. Efektu osoak aitortzen ziren; alegia, estatuak automatikoki aitortzen zituen efektu juridiko kanoniko berberak, besteak beste, ezkontza desagiteko ezintasuna.

Beste aukera bat da, ezkontza kanonikoei estatuaren eremuan efektuak aitortzea automatikoki, baina ez efektu berberak. Kasu honetan, aitorpenaren efektuak ez dira osoak izango; posible izango da, esaterako, kanonikoki ezkondukoentzat dibortziatzea.

2.- Presupuestoa: Horretan ere, ordenamendu batek efektuak aitortuko dizkie bere eremuan beste ordenamendu baten eremuan eratu diren egoera edo negozio juridikoei. Bi kasu bereiz ditzakegu:

1.- Gerta daiteke ordenamendu batek beste baten eremuan eratu den egoera juridiko bati eraginkortasuna aitortzea, baina bakarrik **egitate** edo **gertakari soilaren** mailako eraginkortasuna.

Efektuak aitortuko dituen ordenamenduak ez du kontrolatuko bere egokitasuna. Izan ere, baliozkotzat jo den egoera hori ez da estatuko ordenamenduaren kategoria bat. Dena den, hainbat arrazoiengatik, nolabaiteko efektuak aitortuko dizkio.

Adibidez, estatuko ordenamenduak eliza katolikoaren erlijiosoen gizarte-segurantza arautzen duenean, kategoria juridiko-kanonikoak aipatzen ditu: apaiza, erlijiosoa eta abar. Beraz, eliza katolikoak dioenean pertsona bat apaiza edo erlijiosoa dela, estatuak ontzat hartzen du. Elizak eginiko adierazpen horri egitate edo gertakari soileko balioa ematen dio, eta, ondoren, berak aurreikusitako efektuak emango dizkio.

Modu berean, estatuak Vatikanoarekin sinatutako akordio batean zehazten da gotzainak eta antzeko egoeran daudenak soldadutzatik salbuetsita daudela. Elizak dionean pertsona bat gotzaina dela, estatuak egoera hori egitate edo gertakari huts moduan onartuko du, eta dagozkion efektuak aitortuko dizkio.

2.- Beste batzuetan, berriz, ordenamendu batek beste baten eremuan eraturiko **negozio juridiko** batzuei efektu juridikoak aitortuko dizkie. Baina hori ez da automatikoki aitortuko. Baldintza batzuk bete beharko dituzte, hain zuzen, negozio horientzako aitortpena egiten duen ordenamenduak aurreikusten dituen berberak.

Bide batez, aitortzen diren efektuak izango dira negozio horientzako aitortpena egiten duen ordenamenduak aurreikusitakoak.

Adibidez, indarrean dagoen ezkontza-sisteman, estatuko ordenamenduak efektuak aitortzen dizkie ezkontza erlijiosoei, baina ez automatikoki. Ezkontza erlijioso horiek Kode Zibilak ezkontzeko aurreikusten dituen baldintzak bete beharko dituzte Ezkontza erlijiosoei ezkontza zibiletarako aurreikusitako efektu berberak aitortuko zaizkie. Hala aurreikusten da KZeko 60- 63 artikuluetan.

Amaitzeko esan dezakegu, historian zehar izan diren estatu-ereduak eta aplikatu diren erlazio-teknikak aztertuta, harreman estua dagoela bi kategoria horien artean. Alegia, estatu-eredu konfesionaletan, **arauen igorpen formala** eta **efektuen aitortpena** erabili izan dira estatuaren ordenamendua eta ordenamendu konfesionala harremanetan jartzeko., Estatu-eredu laikoetan, hain zuzen, **arauen igorpen materiala** eta **presupuestoa** izan ohi dira.

III.- BIBLIOGRAFIA

D.LLAMAZARES FENÁNDEZ, *Derecho Eclesiástico del Estado*, (...)

D.LLAMAZARES FENÁNDEZ, *Derecho de la libertad de conciencia*, Civitas, Madril 2002,
39.-55. or.

3. IKASGAIA

KONTZIENZIA ASKATASUNA ETA ESTATU EREDUAK MENDEBALDEKO HISTORIAN

I.- IKASGAIAREN ESKEMA

- Azterketa-eremua zehaztea: Estatu-ereduak eta faktore erlijiosoak; estatuaren eta konfesioen arteko harremanak

-Identitate-eredua:

- Berezitasunak.
- Mendebaldeko historia. Azpieroak:
 - Zesaropapismoa, IV.-XI. mendeak
 - Teokrazia, XII.-XV. mendeak

-Esklusibotasun-eredua:

- Berezitasunak
- Adibide historikoak: laizismo komunista eta elizaren jarrera kristautasunak Erroman jazarpena jasan zuenean.

-Baliagarritasun-eredua:

- Berezitasunak
- Adibide historikoak XVI.-XVII. mendeetako monarkia absolutuak: estatu-elizak eta monarkia konfesional katolikoak.

-Neutraltasun-eredua:

- Berezitasunak
- Adibide historikoak. Ilustrazioa XVIII., XIX. eta XX. mendeak

II.- IKASGAIAREN GARAPENA

- Azterketa-eremua zehaztea

Ikasgai honetan, mendebaldeko historiaren zehar gertatu diren estatu-ereduak aztertuko ditugu, kontutan izanik kontzientzia-askatasuna juridikoki nola tratatu den .

Kontuan izan behar dugu kontzientzia-askatasunaren eremuan gaur egun egiten den uste sendo erlijioso eta ez erlijiosoen arteko bereizketa ez dela posible izan momentu historiko guztietan. Bereizketa horren jatorria ilustrazioan koka dezakegu, XVIII. mendean. Mugimendu horren ekarpen batzuek – bereziki, arrazoiaren nagusigoak eta ideien sekularizazioak ahalmenu zuten ideia erlijioso eta ez erlijiosoen arteko bereizketa, bai ideien eremuan, bai boterea ulertzeko moduan eta zuzenbidean. Beraz, eremu juridikoari dagokionez, askatasun ideologikoa eta erlijioso argi eta garbi bereiztea ez da posible izango XIX.-XX. mendera arte.

Mendebaldeko historian atzera eginez, argi ikusten da kristautasunaren sorreratik aurrera faktore erlijiosoak garrantzia berezia izan duela estatu-ereduetan. Ikasgai honetan aztertuko ditugu estatu-eredu horiek kontutan hartuta zer nolako harremanak izan diren estatuaren eta konfesioen artean. Estatu terminoa erabiliko dugu botere politikoaren adierazgarri gisa, eta konfesio erlijioso terminoa, berriz, botere erlijiosoaren adierazgarritzat. Mendebaldeko historian, eliza katolikoa eta bestelako eliza kristauak izan dira, hain zuzen, botere erlijiosoaren adierazgarri.

Estatu eta eliza arteko harremanen garapena kontutan izanik, lau estatu-eredu bereiz ditzakegu: identitate-eredua, eskusibotasun-eredua, baliagarritasun-eredua eta neutraltasun-eredua.

Identitate-eredua

Hori da historian zehar izan diren ereduetatik zaharrenetarikoa.

Planteamendu filosofikoak kontutan hartuta, **unibertsoaren ikuspegi monistan** oinarritzen da eredu hori. Alegia, **kosmos-ikuspegi monista** izango da nagusi.

Kosmos-ikuspegia nozio filosofiko bat da; unibertsoa, errealitatea, izadiaren egitura eta funtzionamendua esplikatzen saiatzeko saiakera, alegia. Kosmos-ikuspegiaren nozioa izan daiteke: monista edo dualista.

- Kosmos-ikuspegia **monista** izango da unibertsoa, errealitatea, elementu bakar batez osatua dagoela pentsatzen denean.
 - Elementu hori materia soilik denean, **monismo materialista** deituko diogu. Elementu hori espiritua soilik denean, **monismo espiritualista** izango dugu.
 - **Beste aukera bat** ere badago: elementu bakar horretan ez bereiztea alor materiala eta espirituala, alegia, alor politikoa eta erlijioso. Bi elementuak bat izatea, berezitasunik gabe.
- Kosmos-ikuspegia **dualista** izango da, jotzen denean unibertsoa, errealitatea, bi elementuz osatua dagoela: materia eta espiritua.

Identitate-ereduan, hitzak berak dion bezala eta kosmos-ikuspegi monistan oinarriturik, **identitate bat** egongo da materia eta espirituaren artean; beraz, **ez da bereizketarik** egingo alor politiko eta erlijiosoaren artean.

Talde politikoaren partaide izateak nahitaez ekarriko du talde erlijiosoaren partaide izatea.

Gizarte horretako agintariak agintari politiko eta erlijioso izango dira aldi berean. Zentzu hertsian, ez da egongo ez botere-banaketarik ez eta, horien zuzenbideen banaketarik; ez dago legedi-banaketarik.

Aztertuko ditugun adibide historikoetan, botere politikoa bateratuko da, **sineste erlijioso zehatz batekin** identifikatuko da. Estatua sineste erlijioso horrekin identifikatuko denez, baztertzaila izango da eta nahitezkoa herritar edo mendekoentzat.

Erljio batekin identifikatu den estatu horrentzat, helburu erlijiosoak helburu politiko ere izango dira. Ildo berean, erlijio ofizialarentzat nahitezkoak diren arauak ere nahitezkoak izango dira ikuspuntu politiko edo estataletik. Estatua arduratuko da arau horiek betearazteaz.

Beraz, **disidentzia erlijiosoa** delitutzat joko da. Erljio ofizialaren kontra joateak ekarriko du, halaber, botere politikoaren eta indarrean dagoen ordena politikoaren kontra joatea. Zigorren larritasuna garai historiko bakoitzaren arabera izango da.

Eredu horretan, ezin da garatu kontzientzia-askatasuna guk definitu dugun moduan.

Gaur egun, gure eremuan, mendebaldeko kultura kristauarenean, alegia, ez dugu aurkitzen eredu horren adibiderik. Identitate-eredua aurkitu dezakegu, ordea, zenbait **estatu islamiarretan**, non botere erlijioso eta politikoaren artean ez baita egongo bereizketa argirik; horietan, egintza politikoen azken oinarria erlijiosoa izango da.

Mendebaldeko historian adibide historiko zehatzak aztertzerakoan, **ñabardura garrantzitsu** bat izan behar dugu kontuan. **Mendebaldeko historian**, kristautasunak izan duen garrantzia kontutan izanda ere, ez dugu aurkituko erabateko identitate-eredurik. Kristautasunaren sorreratik, oinarrizko ideia da **dualtasuna**; alegia, alor politiko eta erlijiosoaren arteko desberdintasuna. Horren adibide paradigmaticoa dira Jesukristoren hitzak: “dar a Dios lo que es de Dios y al Cesar lo que es del Cesar”, “mi reino no es de este mundo” eta abar. Dena den, bi alor horiek -erlijiosoa eta politikoa- autonomotzat joko dituzten ereduak ez dira bat-batean eratuko. Bi eremu horien arteko **banaketa argia** ez da iritsiko neutraltasun-eredua sortu arte, XIX.–XX. mendeen inguruan.

Nahiz eta **dualtasunaren hazia** hasieratik egon, identitate-ereduak sistematizatzen du hobekien erreforma protestantea gertatu arteko errealitatea, hau da, Erromatar Inperioaren garaian hasita Erdi Aroaren bukaera arteko egoera..

Beti, bi botere-polo egongo dira, politikoa eta erlijiosoa (eliza). Nahiz eta bien artean nolabaiteko identitate bat izan, polo batek bestearekiko lehentasuna izango du. Horren barruan, bi azpi-eredu izan dira: **Teokrazia**, eliza nagusi zenean, eta **Zesaropapismoa**, polo politikoa nagusi zenean.

Erromatar Inperioan IV. mendetik hasita hura erori bitartean gertatutakoa **dugu Zesaropapismoaren adibide historikoa**, eta Erdi Aroaren zehar ere luzatu zen XI. mendera arte.

Garai hori aztertzeke, honako une historiko hauek izango ditugu kontuan:

- 313. Urtea, Konstantinok emandako Milango Ediktua

Erromatar Inperiotik kristautasuna desagerrarazi nahi zen. Asmo horrekin, jazarpen larria jasan zuten kristauek mende batez baino gehiagoz. Ikusita jazarpenak ez zuela lortzen nahi zen helburua, eta Inperioa baketzeko nahiarekin, amaiera eman zitzaion jazarpenari Ediktu horrekin. Kultu-askatasuna onartu zen. Inperioa ez zen identifikatzen ezein erlijioarekin.

Dena den, aipaturiko Inperioaren *neutraltasun*-jarrera, ez da halakoa izango. Enperadoreak ez ziren gai izan beren *Pontifex Maximus* delako titulua alde batera uzteko. Gai erlijiosoetan esku hartuz jarraitu zuten. Bereziki, eliza Katolikoaren barne-arazoetan hartzen zuten esku: elizako kargu izendatzerakoan, kontzilioetarako deialdiak egiterakoan, eta abar. Kontutan izan behar da eliza erakunde moduan sortu berria zela; botere eskasa zuen, eta barne-autonomia urria; horregatik onartu egiten zuen esku-hartze hori. Ildo horretatik, Inperioaren interbentzionismoa sakonduz joan zen, baita elizari ematen zaion aldeko tratua ere. Soziologikoki, elizaren jarraitzaile kopurua gehituz joan zen.

- Urte batzuk geroago, 392. urtean, Teodosio enperadoreak, Inperioko erlijio ofizialtzat hartu zuen kristautasuna. Ofizialtasun-egoera horrek iraun zuen mendebaldean, nahiz eta estatu-eredu desberdinetan, XIX.-XX. mende arte. Alegia, kristautasuna -bai Erromako eliza katolikoan bildua, bai erreforma protestanteen ondorioz sortutako eliza ebanjelikoak- Europa mendebaldeko erlijio ofiziala izango da XIX.-XX. mende arte.

Historiagile batzuen iritziz, badago arrazoi bat erabaki horren atzean. Inperio Erromatarra krisialdi ideologiko eta politiko betean zegoen. Inperioa ohartu zen **kristautasuna** geroz eta indar handiagoa hartzen ari zela, eta han ikusi zuen botereak behar zuen **oinarri ideologikoa**.

Pentsaera erromatarrari jarraituz, **enperadorea eliza kristauaren buru bilakatu zen** kristautasuna erlijio ofiziala bihurtutakoan. Hango *Pontifex Maximus* -pontifize gorena- delakoa zen; Zesarra, aldi berean, Aita Santua zen, eta hortik dator *zesaropapismo* terminoa.

Botere politikoa erlijio katolikoarekin identifikatuko da, baina polo politikoak nagusigoa zuen. Izan ere, elizak – botere-erakunde gisa- ez du oraindik indar handirik izango. Horregatik, enperadorearen esku-hartzeak etengabeak ziren elizaren gaietan. Egoera hartan, elizaren barne-autonomia eskasa zen; sarritan, eliza tresna bat zen, inperioaren interesen arabera erabiltzen zena. Dena den, badirudi argi dagoela erromatar inperioaren bitartez zabaldu zela kristautasuna Europan zehar.

Bi botere-poloen arteko identifikazioa sortu zen; botere horien legediak ere identifikatu ziren. Honako kasu hauek ditugu horren adierazgarri:

- Kristauak zituzten auzitegi propioetan -*episcopalis audientia* edo *gotzainaren auzitegia* delakoetan-, zuzenbide kanonikoa bakarrik aplikatzen zen hasiera batean. Gero, eraginkortasun zibila aitortu zitzairen auzitegi horietako erabakiei, eta, zuzenbide kanonikoarekin batera, zuzenbide erromatarra ere aplikatzen zuten, beti ere espiritu kanonikoari jarraituz.
- Kristautasunaren eragina nabaria izango da zuzenbide erromatarrean. Adibidez, esklabotasunarekin sortzen zen kontraesana dela-eta. *Manumisio* forma berriak sortuko ziren; ezkontzan ere, aldaketak gertatu ziren, eta hasierako adostasunaren arabera eratu ziren, ez *usus eta affectio maritalis* delakoaren arabera; dibortziazeko bideak murriztu ziren, eta enperadoreak ematen zuen graziazat jotzen hasi zen.

Egoera hartan, kristauen egoera juridikoa pribilegiatua zen Inperioan. Kristauak ez zirenek gaitasun juridikoa gutxitua zuten; adibidez, ezin zuten kargu publikorik izan. Ildo horretan, heresia —Kristautasunaren eremua sortzen ziren jarrera ofizialaren kontrako iritziak— eskumikuarekin —elizatik kanporatzearekin— zigortzen zen. Baina eskumiku horrek bazekarren, orobat, komunitate politikotik kanpo gelditzea: herritartasuna galtzea, ondasunak galtzea, isunak, zigor fisikoak eta muturreko zenbait kasutan ere heriotza-zigorra. Kristauak ez zirenentzat, bazeuden, halaber, bestelako ondorio negatiboak zuzenbide zibil eta publikoaren eremuan.

Ondorioz, Zuzenbide kanonikoa ere *desitxuratu* egin zen. Jadanik urundu da bere jatorrizko doktrinatik, non kontsideratzen baitzen kristau fededun aitortzeak ekintza librea izan behar zuela.

Mendebaldeko Inperioa Erromatarra erori eta gero ere, baditugu eredu horren adibideak. Esaterako, **Karlomagno** -800. urtea- eta ondorengo **enperadoreek** ere eredu berari jarraitu zioten. Inperio politikoa berrezarri nahi zuten, kristautasunaren ideia erabiliz batasun elementu moduan. Indar gutxiko Aita Santuen aurrean, enperadorearen irudia nagusi zen; elizaren barruko arazoetan esku-hartzeko aukera handia zuen.

Teokrazia identitate-ereduaren beste azpieredua da. Erdi Aroan zehar sortu eta garatu zen eredu hori.

Krisialdi baten ondoren Erromatar Inperio behera etorri zenean, mendebaldean botere-hutsune bat gertatu zen. Egoera horretan, botere-erakunde indartsu bat zen eliza; barbaroek ere hala hartu zuten. Aita Santuek botere handia zuten, eta feudalismoaren fenomenoak lotu behar zaio horri, Aita Santuak ere jaun feudalak baitziren.

Dena den aldaketa hori ez zen bat-batekoa izan. Atzera bueltak ere izan ziren, Zesaropapismoko egoera berriz ekarri zutenak; besteak beste, Karlomagnoen garaiakoa VIII. mende inguruan.

Erdi Aroan, eliza garrantzia hartuz joan zen. XI.-XV. mendeetan zehar izan zen haren unerik gorenena. Aita Santu boteretsuen garaia izan zen, hala nola, Gregorio VII. arena eta, bereziki, Inozentzio III.arena XII. Mendean.

Garai hartan, nagusi bilakatu ziren botere espirituala botere politikoaren gainetik ezartzen zuten tesiak. Artean, ondorioz, Aita Santuek lehentasuna zuten errege eta enperadoreekiko.

Teokrazia garaian, Aita Santuek botere erlijioso eta politikoaren jabe izango dira. Dena den, Aita Santuek ez dute botere politikoa zuzenean egikarituko, errege eta enperadoreen bitartez baizik. Horiek, beti ere, elizaren oniritzia beharko zuten, hori gabe ez baitzuten legitimitaterik izango.

Eremu horietan, legedi politiko eta erlijiosoaren/kanonikoaren artean lotura estua zegoen. Zuzenbide kanonikoak –jadanik finkatua eta sendotua- ez zituen bakarrik arautzen elizaren barne-arazo edo -gaiak. Gai *espiritual* eta *mundutarren* artean dagoen harreman estua dela-, eta zuzenbide kanonikoak arautzen zituen: ezkontza, familia, oinordetza, dohaintzak, eskubide errealak, kontratuak eta abar.

Zuzenbide kanonikoarekin batera, zuzenbide erromatar-inperiala, alegia, zuzenbide zibila, zegoen indarrean, Justinianoaren Corpus Iuris Civilis-ean jaso.

Unibertsitatean, biak irakasten dira, praktika juridikoan ere biak aplikatzen baitziren. Batak eragina izango du bestean; hutsune baten aurrean, bata bestearen osagarri izango da. Testuinguru honetan sortu zen Erdi Aroko zuzenbide komuna.

Kontzientzia-askatasunari dagokionez, historialari guztiak ados daude esaten denean XI.-XIV. mende arteko garaia erabat intolerantea izan zela. **Gurutzadak** dira horren adibide. Fedegabekoen kontrako gerrateak ziren horiek; alegia, kristau ez zirenen kontrakoak, musulmanen kontra, nagusiki. Zilegitzat jotzen zen defentsarako gerratea, eta besteen konbertsioa edo fede-aldaketa lortu nahi zuena. Gurutzadetako deialdia Aita Santuek egiten zituzten, Aita Santuek zuzenduak eta antolatuak izan ziren gurutzada haiek.

Bide batez, mugen barnean, zera zen garai hartako planteamendua: kristautasunari jarraitzeak Erdi Aroko batasun politiko-erlijiosoa onartzea zekarren. Planteamendu horrekin bat ez zetozenek edo dogma erlijiosoak zalantzan jartzen zituztenek, aldi berean, zalantzan jartzen zuten garaiko sistema politiko bera. Horren ondorioz, gutxiengo erlijioso guztiak heresiatzat hartzen ziren, eta gogorki zigortzen zituzten.

Esklusibotasun-eredua

Eredu hori ere **kosmos-ikuspegi monistan** oinarritzen da. Alegia, unibertsoa elementu bakar batez osaturik dagoela pentsatuko da. Elementu bakar hori materia denean, **monismo materialista** deituko zaio; elementu bakar hori espiritua denean, berriz, **monismo espiritualista**.

Eredu horretan, materiaren eta espirituaren alorrak –materia, eremu politikotzat ulertuta, eta espiritua, eremu erlijiosotzat ulertuta— ez dira nahastuko bat eginez, identitate-ereduan gertatzen zen bezala. Elkarren balioespen negatiboa izango du, are gehiago, batak bestearen existentzia ezeztuko du.

Kosmos-ikuspegi monista materialista duen estatu batean, fenomeno erlijiosoa kanporatuko da beraren eremutik; horren existentzia ezeztu egingo da. Horren adibide dugu filosofia **marxista** eta horretan oinarrituz eraturiko estatu komunistak, laizistak. Haietan, sinesmen erlijiosoak negatibotzat joko dira, desagertu beharrekotzat. Erlijioa *herriaren opioa* dela esango da, alegia, gizakiaren askatasuna mugatzen duen zerbait. Estatuarentzat, beraren helburuak – besteak beste, *langileriaren iraultza*- lortzeko oztopo izango da fenomeno erlijiosoa. Desagertu beharreko fenomenotzat jotzen da.

Bestalde, **kosmos-ikuspegi monista espiritualistan** oinarrituta, elementu erlijiosoak izango dira existitu behar duten sinesmen mota bakarra. Kasu horretan, fenomeno politikoa joko da negatibotzat; existentzia ezeztuko zaio. Pentsatuko da estatua, fenomeno politikoaren adierazgarri den heinean, bateraezina dela erlijioarekin.

III. mende inguruan, Erromatar Inperioaren egoera dugu eredu horren **adibide historikoa**. Hasiera batean, kristautasuna, ofizialak ez ziren gainontzeko kultuen antzera, toleratu egiten zen, baldin eta erlijio ofiziala errespetatzen zuen bazuen. Erromatar Inperioa politeista zen; enperadorea bera ere jainkotzat hartzen zen. Kristauak, berriz, monoteistak ziren eta enperadorea gurtzeari uko egiten zioten. Jazarpenaren adibide ditugu Decioaren (249.urtean) eta Dioclecianoren (303.urtean) garaietan gertatutakoak. Kristauen jarrera hori inperioaren kontrako delitutzat jotzen zen, eta zigortu egiten zen. Arrazoi erlijiosoetan baino gehiago arrazoi politikoetan oinarritu zen jazarpena. Kristautasuna inperioarekin bateraezina ikusten zen.

Ondorioz, elizak etsaitzat hartuko du inperioa; elizak Inperioa negatiboki balioetsi zuen, eta eskumikatu egin zuen. Zenbait unetan, elizak pentsatu zuen bateraezina zela kristau izatea eta Inperioko kargu publiko bat edukitzea edo legiotako partaide izatea. Garai hartako kristauak erabat hautsi nahi zituzten Inperioarekin egon zitezkeen lotura guztiak.

Esklusibotasun-eredua jarraitzen duen estatu batean ezin da kontzientzia- askatasunik izan. Izan ere, automatikoki kanporatzen dira pertsonak izan ditzaken zenbait uste sendoren eremutik. Hori bateraezina da planteatu dugun kontzientzia-askatasunaren ikuspuntuarekin.

- Baliagarritasun-eredua

Eredu horrekin eman ziren lehenengo pausoak arlo politikoa eta erlijiosoa banatzeko. Dena den, banaketa hori ez zen gertatu XIX.-XX. mendeak iritsi arte.

Eredu horretan, **kosmos-ikuspegi dualista** egongo da indarrean. Beraz, errealitatea bi elementuz osatua dagoela pentsatuko da; batetik, **materia** –alor politikoaren adierazgarri—, eta bestetik **espiritua** -alor erlijiosoaren adierazgarri-.

Botere politiko eta erlijiosoek beren **autonomia eremua** izango dute. Dena den, autonomia ez da erabatekoa izango. Bien artean eremu bat egongo da -*materia mistoena*- non bi botereek izan baitezakete erantzukizuna. Hori dela eta, erantzukizun-gatazkak sor daitezke; horiek **mendetasunaren irizpidea** aplikatuz konponduko dira. Gatazkarik balego, botere bat bestearen menpe jarritz aurkituko litzateke irtenbidea. Horren baitan, **bi azpiero** bereiz ditzakegu, kontuan izanik zein boterek duen nagusitasuna eremu misto horretan. **Estatu konfesionala** izango da elizak gai misto horiek arautzeko nagusitasuna badu. Azpiero hori aurkituko genuen Europako gehiengo katolikoan: Espainian, Italian, Frantzian. **Estatu-eliza** edo estatuaren elizaren azpieroan, estatuak izango du nagusigoa. Azpiero hori, halaber, erreforma protestantea nagusitu zen Europako eremuan aurkitu dezakegu: Alemania, Ingalaterra, Herbehereak.

Bi azpi-eredu horietan, **konfesionaltasunaren printzipioa** da adierazgarri. Bietan, estatuak sinesmen erlijioso jakin batzuei emango die lehentasuna. Egoera desberdina izango da konfesionaltasunaren irismenaren arabera. Antzinako ereduetan, konfesionaltasun doktrinal edo sakoneko egoerak izaten ziren. Konfesionaltasuna arinduz doan heinean, eta gaur egunera hurbildu ahala konfesionaltasun historiko-soziologikoa agertuz joan da.

Eredu horietan, botere politikoa talde erlijioso jakin batekin lotzen da eta berarekin ezartzen dira baliagarritasunean oinarritutako harremanak. Zertan gauzatzen da hori?

Bakoitzak besterekiko **ikuspegi positibo** bat izango du, harreman mota hori bientzat mesedegarria izango baita. Batak bestea ikusiko du bere helburuak lortzeko lagungarri, eta, ondorioz, aldeko erregimen bat eskainiko dio juridikoki. Bakoitzarentzat, bestea baliagarria izango da beraren helburuak betetzeko, eta hortik dator ereduaren izena; elkarri laguntzeko itun bat egongo da.

Europako mendebaldean, XV.-XVI. mendeetako monarkia absolutuak dira eredu horren adibide eta, orobat, ondoren izan ziren lehenengo estatu modernoak. XIX.-XX. mendeetako zuzenbide-estatuetan ere aurkitu ditzakegu baliagarritasunaren adibideak.

Erdi Aroa XVI. mende inguruan bukatu zen. Berpizkundearekin, ideia berriak sortu ziren eremu filosofikoan. Ideia horiek gainontzeko eremuetara igaroz joan ziren, besteak beste, eremu politikora. Horren ondorioz, behera etorri zen Erdi Aroan nagusi izan zen ideia bat: Erdi Aroko batasunaren ideia. Alegia, batasun politikoa lortzeko -inperioaren ideia, alegia-, erlijioaren inguruko -kristautasunaren inguruko- batasuna hartu ohi zen oinarritzat. Esan bezala, garai hartatik aurrera, inperioa ez da hartuko kristautasunaren -hori ere modu bateratuan hartuta- batasun politikoaren adierazgarritzat.

Garai hartan, bai inperioa bai Aitasantutzak behera etorri ziren, eta erreinuak erabat indartu ziren. Monarkia absolutuen garaia zen. XVI. mendetik XVIII. mendea bitartean, pentsatuko da boterearen jatorria jainkozkoa dela; erregeari boterea jainkoarengandik etorriko zaiola, zuzenean, Aita Santuaren esku-hartzerik gabe.

Modu horretako monarkien adibiderik adierazgarrienak bi izan ziren. **Erreforma protestanteak** arrakasta izan zuen lurraldeetan (Alemanian, Ingalaterran, Herbehereetan), "**estatu-eliza**" edo estatuaren eliza deritzon ereduak ezarri zen.

Fenomeno horren atzean, arrazoi ugari daude. Batzuk erlijiosoak ziren; alegia, hitzak berak dion moduan, Erreformarekin eliza bera erreformatu nahiko da nolabait. Lutherek gogor kritikatu zuen eliza katolikoaren jarrera; haren ustez, garaiko eliza erabat urrunduta zegoen Ebanjeliotan jasotzen zen eredutik. Eliza katolikoak lortutako botere politiko guztia kritikatzeko zuen. Une hartan, elizaren jarrera aldatzea eskatzen zuen, eta hasiera bateko kristauen egoerara bueltatzea. Horren baitan, fededunen komunitatetzat jotzen zen eliza bat, kontzientzia mailako errealitate bat. Zehazki, Hertsiki erlijiosoak diren arazoez soilik arduratuko zen Eliza; kanpo-organizazio guztia zein arautzen zituen bestelako negozio juridikoak printzearen esku utzi ziren.

Jatorriz erlijiosoa zen mugimendu horrek eragina izan zuen arlo politikoan ere. Izan ere, errege eta printzeek aukera ezin hobea ikusi zuten beren lurraldeko eliza kontrolatzeko. Hala gertatu zen; eliza protestanteak Erromako elizaren mendetasunetik askatu, eta erreinu bakoitzeko errege edo printzearen babespean geratu ziren. Bide batez, haien esku gelditu ziren bertako elizak zituen ondasun guztiak.

Erreformatik arrakastarik izan ez zuen lekuetan, **kontrarreforma** deritzon mugimendua gertatu zen, Espainian, Frantzian eta Italian, besteak beste. Erresuma haietan, monarkia absolutu katolikoek agintzen zuten. Monarkia horiek eliza eta fede katolikoaren babesletzat hartu zuten beren burua. Monarkia indartsuak ziren, eliza kontrolatzeko neurriak ere bazituzten: elizako karguen hautaketan parte hartzen zuten (errege-patronatua edo *patronato regio* deritzona); elizaren dokumentuak erreinuan argitaratzeko baimena eman behar izaten zuten (*placet regio* deritzona); zergak kobratzen zizkioten elizari, eta, zenbait kasutan, elizaren ondasunak berenganatu ahal izango zituzten.

Ohar, bi eredu horietan, baliagarritasun-ereduari jarraituko zaio. Lehenengo garaian, **konfesionaltasun doktrinala** zen nagusi. Beraz, sineste ofizialak nahitaezkoak ziren denentzat. Garai hartan gertatu ziren erlijio-gerra gogorrenak. Gerra horiei amaiera emateko agertu ziren tolerantziako lehenengo adibideak, bizikidetasun baketsua lortu nahian. Zertan gauzatu ziren garai hartako tolerantzia jarrera horiek? Erregeak zehaztu zuen erresuma bakoitzaren sinesmena: katolikoa edo protestantea, “*cuius regio eius religio*” delako lelopean. Erregeak aukera egin ondoren, han ez zen bestelako erlijiorik onartuko; ados ez zeudenek -disidentee- handik joatea zuten aukera bakarra, *ius migrandi* delakoa, batzuetan beren ondasun guztiak han utzita.

Mendeak aurrera joan ahala, konfesionaltasuna aldatuz joan zen, arinduz, eredu tolerantetagoak sortuz. Esan dugun moduan, baliagarritasun-ereduaren adibideak aurkitu ditzakegu XIX.-XX. mende arte, baina baliagarritasunaren zentzua desberdina izango da. Arrazoi historikoak eta soziologikoak egongo dira oinarrian.

- Neutraltasun-eredua

Historikoki, eredurik berriena dugu. **Kosmos-ikuspegi dualistaren** eremuan kokatzen da eredu hori. Eredu horren planteamendu filosofikoak dioenez, errealitatea bi elementuz osatua egongo da: materia eta espiritua, erabat desberdinak. Horren ondorioz, banaketa argi bat egongo da alor politikoaren eta erlijiosoaren artean, aurreko ereduaren ez bezala.

Neutraltasunak adierazten digu estatua **inpartziala** izango dela adierazpen erlijiosoaren aurrean. Pentsatzen da hori dela fededun eta ez fededunen artean berdintasuna lortzeko modu bakarra, baita konfesio erlijioso guzien artean ere. Estatua laikoa izango da.

Estatuaren eta konfesio erlijiosoaren arteko **autonomia** da eredu horren adierazgarri. Estatua nahiz konfesio erlijiosoak botere autonomoak, independenteak, izango dira; horien legediak ere autonomo eta independenteak izango dira, alde batera utzita garai bateko mendetasun-harremanak.

Eredu politikoari dagokionez, jadanik **zuzenbide-estatu demokratikoa** izango da, nahiz liberala -XIX. mendeko estatuak- nahiz soziala -XX. mendeko estatuak-. Estatu-eredu horietan **printzipio pertsonalista** izango da nagusi. Horren arabera, pertsona, haren duintasuna, oinarrizko eskubideak eta haren izaeraren garapen librea izango dira sistema juridikoaren oinarri, beti ere, sistema demokratiko baten eremuan. Zuzenbide-estatu demokratikoetan, ideologia-askatasuna eta erlijio-askatasuna aitortuko zaio gizabanakoari; **pluraltasun edo aniztasun ideologiko eta erlijiosoa** izango da horren ondorioa.

Testuinguru horretan, Llamazaresek dioenez, **laikotasun terminoaren hedadura zabaldu beharko da**. Ez da mugatuko soilik neutraltasun erlijiosora, esanahi tradizionalen bezala, hau da, herritar fededun eta ez fededunen artean berdintasuna bermatzera. Izan ere, fededunak ez diren herritarren arteko berdintasuna bermatzeko, Estatuak adierazpen ideologikoen aurrean ere agertu beharko du neutral. Alegia, laikotasunaren hedadura zabaldu beharko da. Termino horrekin neutraltasuna pluraltasun ideologikora era hedatu beharko da.

Dena den, estatuaren neutraltasun-jarrera horrek ez du hedadura berbera izaten, aniztasun erlijioso eta aniztasun ideologikoaren aurrean. Estatuak jarriko dituen mugak ez dira berdinak izango. Aniztasun erlijiosoaren aurrean, estatuaren jarrera zabalagoa da; izan ere, zuzenbide-estatu demokratikoek ez dira fede-subjektu, bere baitan. Aniztasun politikoaren aurrean, ordea, estatuak baditu bere esentzia eratzen duten minimo batzuk. Minimo balio eta printzipio nagusi horiek, hain zuzen, eratzen dute zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa. Horien aurrean estatua ezin da neutral agertu; horien defentsarako, estatua beligerante agertuko da.

Gaur egungo zuzenbide-estatu demokratiko eta sozialetan **neutraltasunak ez du atxikitasun eza esan nahi**. Are gehiago, askatasun ideologiko eta erlijiosoa eraginkorra izan dadin, estatuak neurriak hartu beharko ditu. Betebehar horren adibide dugu EKko 9.2. artikulua, besteak beste.

Hau da, askatasun erlijiosoa eraginkorra izan dadin, botere publikoek/estatuak harremanak izango ditu konfesio erlijiosoekin. Hala jasotzen da EK 16.3.artikuluaren. Estatua eta konfesio erlijiosoaren arteko harremana gauzatu da, nagusiki, batetik, konfesio erlijiosoentzako legeri berezi batean, eta, bestetik, zenbait konfesio erlijiosoekin sinatu diren **lankidetzahitzarmenetan**.

Europako estatu guztietan aurki ditzakegu eredu horren adibide historikoak. Dena den, zaila da neutraltasun-eredu erabateko bat aurkitzea; izan ere, Estatu bakoitzean eratu den neutraltasun-eredua bere aurretiko historiaren zordun da. Beraz neutraltasun-eredu desberdinak ditugu.

Dena den, eredu horiek guztiek badituzte antzekotasun nabariak. Izan ere, neutraltasun-eredua jarraitzen duten estatu guztiak dira ilustrazioak ekarritako ideiek eragindako *iraultzaren* ondorio. Ideia horien artean dago, besteak beste, Antzineko Erregimena baztertzeko gertatutakoen oinarria. Ideia horien artean, arrazionalismoa —giza arrazoiari nagusitasuna ematen dion filosofia—, da giltzarri eta, horren haritik, sekularizazioa. Filosofian, zientzian, boterean eta, noski, zuzenbidean gertatu zen sekularizazioa. Boterearen azken oinarria jadanik ez da jainkoarengan ezarriko; gizartean, *gizarte-hitzarmena* eta antzeko planteamenduak sortuko dira bizikidetzat antolatzeko.

lehenbiziko zuzenbide-estatuaren eremuan, eskubide eta askatasunak aitortuko zaizkie gizabanakoei. Testuinguru horretan, jadanik bereiz daitezke uste sendoen izaera politiko-ideologikoa eta erlijiosoa. Kontzientzia-askatasuna ere aitortzen hasi ziren.

XIX. eta XX. mendeetan, kontzientzia-askatasuna era progresiboan aitortzen eta garatzen hasi ziren.

Kontzientzia-askatasunak XX. Mendean izan duen garapena sistematiza dezakegu, mendea bitan banatuz:

1.- mendearen lehen erdian sortu ziren estatua eta elizaren eremuak bereizi dituzten lehenengo ereduak: frantsesa eta alemana.

Frantzian, aipagarria da 1905. urtean emandako *bereizketaren legea* (ley de separación). Han, estatuaren eta konfesio erlijiosoaren arteko bereizketa arautuko da; bereizketa eredu hau *sakontzat* hartu ohi da. Eredu horretan, konfesio erlijiosoak, ikuspuntu juridikotik, asoziazio edo elkarte pribatutzat joko dira eta zuzenbide komuna edo arrunta aplikatu zitzaizkien.

Alemanian, aipagarria da Weimarreko Konstituzioa, 1919koa. Hartan, estatua eta konfesio erlijiosoaren arteko bereizketa *apalagotzat* jotzen zen. Konfesio erlijiosoak bitan banatu ziren:

- a) konstituzioan espresuki aipatzen zirenak. Horiek zuzenbide publikoko korporaziotzat jotzen ziren. Zuzenbide publiko berezi bat eskaini zitzaizkien, aldekoa. Horien artean daude tradizionalki ofizialak izan diren eliza kristauak: luteranoa, kalbinista eta katolikoa. Hiru eliza horiek jasotzen zuten aldeko tratu juridikoa garai bateko plurikonfesionaltasuaren adierazgarri dira.
- b) konstituzioan espresuki aipatzen ez ziren konfesioak ere egongo dira. Juridikoki, elkarte pribatutzat jotzen dira; zuzenbide arrunta aplikatuko zaie.

Aipatzekoak dira, halaber, XX. mendeko lehen erdi horretan izandako diktadurak. Diktadura horiek atzerapauso garrantzitsua izan ziren kontzientzia-askatasuna aitortzeko eta garatzeko. Bitan sistematiza daitezke diktadura horiek. Batetik, **laizismo komunistaren** eremuan izandakoak. Ideologikoki, monistak ziren horiek (ideologia bakarra eta nahitaezkoa denentzat, partidu bakarra, gizabanakoaren askatasunak murriztuak estatu ahalguztidun baten aurrean). Kontzientzia-askatasunak ez zuen lekurik, ez askatasun ideologikori dagokionez, ezta erlijio-askatasunari erlijiosoari dagokionez ere. Izan ere, estatu komunista kosmos-ikuspegi monista materialistan oinarritzen zen (filosofia marxistan oinarritutako estatu-eredua), non eremu erlijiosoak ez baitzuen lekurik. Esklusibotasunaren ereduaren adibide izan ziren.

Bestalde **faxismoaren** eremuko adibideak ditugu, hala nola, Alemania, Italia eta Espainia. Horietan ere, monismo ideologikoa zen nagusi, baina kosmos-ikuspegia dualista zen. Are gehiago, diktadura laizistetan ez bezala, fenomeno erlijiosoak herritarren interes publikotzat jotzen zen. Estatuak baliagarritasun-harremanak zituen elizarekin. Estatuari komeni zitzaion eliza bere alde edukitzea, eta, noski, eliza ofizialak aldeko tratu juridikoa jasotzen zuten estatuaren aldetik. Espainian eta Italian konfesionaltasun doktrinala ezarri zen, eta eliza katolikoa zen erlijio ofiziala. Alemanian, berriz, egoera plurikonfesionala izan zen, eta luteranoa, kalbinista eta katolikoa izango dira eliza ofizialak .

2.- mendearen bigarren erdian, II. Mundu Gerraren ondoren eman ziren gaur egun Europan indarrean dauden konstituzio gehienak, eta, halaber, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenak:

- 1948: Giza eskubideen Aitorpen unibertsala, Nazio Batuen Biltzar Orokorrek emana.
- 1966: Eskubide zibil eta politikoak babesteko nazioarteko ituna, eta eskubide ekonomiko eta sozialak babesteko nazioarteko ituna, Nazio Batuen Biltzar Orokorrek emana.
- 1950: Giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteko Europako Konbentzio, Europako Kontseiluak emana.

Dokumentu juridiko horietan, kontzientzia-askatasuna aitortzen da bere eremu guzietan, eta, orobat, estatuaren laikotasuna.

III.- BIBLIOGRAFIA, LEGERIA ETA JURISPRUDENTZIA

a) Bibliografia

Oinarritzkoa: D.LLAMAZARES FENÁNDEZ, *Derecho de la libertad de conciencia*, Civitas, Madril 2002, 47. or. eta hurrengoak; D.LLAMAZARES FENÁNDEZ, *Derecho eclesiástico del*

estado. Derecho de la libertad de conciencia. Servicio de publicaciones de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense, Madrid 1991.

Osagarriak: J.SOUTO PAZ, *Derecho Eclesiástico del Estado. Derecho de la libertad de ideas y creencias.* Madrid, 1997; AAVV, *Derecho Eclesiástico español*, Universidad de Navarra, Iruñea 1993; R.NAVARRO VALLS, R PALOMINO, *Estado y religión. Textos para una reflexión crítica.* Ariel, Barcelona 2000.

b) jurisprudentzia

- **pluraltasun ideologikoa eta estatuaren neutraltasuna;** mugak: gizarte demokratikoaren babesa: TEDH 2001/496, marginala (Aranzadi Jurisprudentzia Bilduma); JUR 2003/50031 marginala (AR J B)

- **pluraltasun erlijiosoa eta estatuaren neutraltasuna;** mugak: RTC 2001/46 (AR J B); TEDH 2001/859 (AR J B)

4. IKASGAIA

KONTZIENTZIA ASKATASUNA ETA ESTATU EREDUAK ESTATU ESPAINIARREKO ZUZENBIDEAN: AURREKARI HISTORIKOAK

I.- IKASGAIAREN ESKEMA

A.- URRUTIKO AURREKARIK

I.- Tolerantzia-erregimena (XII -XVI)

- XII -XVI: tolerantzia bertikaleko erregimena, gutxiengo erlijiosoekin: mudejarrak, mozarabiarrak eta juduak.
- XIII: intolerantzia-erreakzio kolektiboak
- Erregeen nagusigoa Aita Santuarekiko.

II.- Intolerantzia-erregimena. Antzinako erregimena.

1. garaia: XVI -XVII, estatu konfesionala, erdi aroko kristaudi-ideiari lotua.

* Estatuaren egitura politiko berriaren oinarriak:

- Subiranotasuna erregearengan
- Erdi Aroko kristaudiaren ideia
- Estatu-Eliza arteko harremanak zehaztea:
 - Monarkak Eliza lagundu eta babesten zuen
 - Immunitate forala, fiskala eta politikoa, Elizako leku eta pertsonentzat
 - Errege-boterea Elizaren *beso sekularra* izango da
 - Zorroztasuna, intolerantzia gutxiengo erlijiosoekin
 - Inkisizioa sortu zen
 - Monarkak esku hartzen zuen elizaren eremuan, horren adierazgarri dira:
 - Ius patronatus*, Errege-patronatua
 - Bulden atxikitzea
 - Apellatio ab abusu*, Abusuengatiko helegiteak
 - Eliza erregimen fiskal baten menpe jartzen da
- Esku-hartze horren oinarri juridikoa: Aita Santuak emaniko pribilegioak.

2. garaia: Estatu Erregalista, XVIII: Borbondarrak

- Erregearen esku-hartzea Elizaren arazoetan zabaldu zen
- Erregalismoa eta erakunde erregalistak; horien oinarri juridikoen aldaketa:
 - Errege-patronatua zabaldu zen
 - *Exequatur* edo *Placet Regio*
 - *Ius eminens*, lehenengo desamortizazioak
- Erregalismoaren oinarri juridiko berria
- Estatuaren eta elizaren arteko harremanak: konkordatuak
- Absolutismoaren krisialdia; korrante ideologiko berriak: despotismo ilustratua, ilustrazioa
- Ilustrazioa (arrazionalismoa, erlatibismoa, subjektibotasuna); lehenengo eskubide-aitorpenak
- Herritarren erlijio-askatasunaren aitortpenak

III.- XIX. mendeko konstituzionalismoa

- Iraultza burgesaren mendea; Frantziako iraultza; monarkia absolutuen amaitzea eta monarkia liberal eta parlamentarien sortzea
- Espainian ezegonkortasun politikoak; ezegonkortasun juridikoa: konstituzio-aniztasuna
- Konfesionaltasun katolikoa adierazgarri nagusi ia konstituzio guztietan
- kontzientzia-askatasuna: ideia politikoen askatasuna bai, ideia erlijiosoena ez

B.- HURBILEKO AURREKARIAK:

I.- II. Errepublika

II.- Erregimen Frankista

XIX. MENDEKO KONSTITUZIONALISMOA

- Sarrera

- Iraultza burgesa Europan:
- Antzinako Erregimeneko antolaketa klasistaren amaiera, berdintasunaren eta askatasunaren printzipioen bidetik
- Estatu-ereduaren aldaketa: Zuzenbide Estatu liberala
- Espainian, jazaraldi militarren garaia
- Liberalismo politikoaren garaia: nahiz atzerakoia edo aurrerakoia
- Desoreka politikoa nagusi, desoreka juridikoa: Konstituzio-aniztasuna.

- Kontzientzia-askatasuna eta "eztabaida erlijiosoa" delakoa XIX. mendeko Konstituzioetan

*** Baionako estatutua, 1808:**

- Konfesionaltasun doktrinala
- Ideia politikoak inprimatzeko askatasuna. *Inprenta-askatasunaren Dekretua, 1810*
- Inkisizio indargabetzea eta haren ondasunak konfiskatzea

*** Cadizeko KONSTITUZIOA, 1812:**

- Konfesionaltasun doktrinala, dogmatikoa eta baztertzaileria
- Eliza kontrolatzeko asmoa gobernu liberalaren aldetik, erakunde erregalistak konstituzionalizatzen dira.
- Inkisizio Auzitegiaren amaiera
- 1813ko desamortizazio Dekretua
- 1822ko Kode penalak: "Estatuko erlijioaren kontrako delituak"
- Inprentaren eta ideia politikoen askatasuna

*** 1837ko KONSTITUZIOA:**

- Inprenta- eta ideia-askatasuna.
- Konfesionaltasun soziologikoa
- Kultura eta elizgizonak mantentzeko betebeharrak
- 1822ko Kode penalak indarrean

*** 1845ko KONSTITUZIOA:**

- Konfesionaltasun-aitorpen ez argia, doktrinaltzat eta ez baztertzaileriatzat jo daiteke
- Nolabaiteko tolerantzia nabari da, inplizituki
- Inprenta-askatasuna arautzen da modu murriztailean
- 1848ko eta 1850eko Zigor Kodeetan zigorrak leuntzen dira

*** 1852ko KONSTITUZIO PROIEKTUA:**

- Atzerakoia, konfesionaltasun doktrinala, baztertzaileria
- 1851ko Konkordatuaren eragina

*** 1856ko KONSTITUZIO PROIEKTUA:**

- Aurrerakoia
- Konfesionaltasun soziologikoa
- 1850ko Kode penalak

*** 1869ko KONSTITUZIOA:**

- Ez dago konfesionaltasuneko aitortzen zehatzik.
- Kultura eta elizgizonak mantentzeko konpromisoa
- Erlijio-askatasuna aitortzen da, lehenik atzerritarrei eta ondoren katolikoak ez diren espainiarrei
- Honako hauek aitortzen dira: adierazteko askatasuna, irakasteko askatasuna, bildu eta elkartzeko askatasuna

*** 1873ko I. Errepublikako KONSTITUZIO PROIEKTUA:**

- Kultura-askatasuna, Estatu/Eliza arteko banaketa eta dirulaguntzarik ez
- Estatua neutrala da, erlijio-askatasuna aitortzen du

*** 1876ko KONSTITUZIOA:**

- Konfesionaltasun doktrinala, ez dago erlijio-askatasunik
- Oinarria: 1851ko Konkordatua
- Kultura-askatasuna arlo pribatuan eta mugak adierazpen publikoetan
- Adierazteko eta inprimatzeko askatasuna, irakasteko askatasuna, mugak.

B. - HURBILEKO AURREKARIAK

I.- II. ERREPUBLIKA (1931-1936)

- 1931ko Konstituzioa:
 - * Akonfesionaltasunaren printzipioa
 - * Berdintasun-printzipioa
 - * Kontzientzia-askatasunaren printzipioa
 - Kontzientzia-askatasuna espresuki aitortzea
 - Kontzientzia-askatasunarekin erlazonaturiko oinarrizko askatasuna aitortzea: adierazpen-askatasuna, informazio-askatasuna, irakasteko askatasuna, biltzeko/manifestatzeko/elkartzeko askatasunak
- Kode Penal berria, 1932koa
- Askatasun erlijiosoa eta estatu-eliza arteko harremanak:
 - Gai erlijiosoaren balioespen negatiboa, legeria berezia, kontrakoa
 - Legeria sekularizatzailea
- Kode penal berria, 1932koa

II.- FRANKOREN ERREGIMENA (1936-1975)

- Gerra Zibilaren amaitzea (1936-39), Estatu frankistaren sortzea:
 - Monismo ideologikoa eta erlijiosoa adierazgarri
 - Konfesionaltasunera itzultzen da
- II. Errepublikako legeriarekin amaitzen da
- Oinarrizko testu juridikoak:
 - * " Fuero de los españoles" / "Espainiarren Forua", 1945
 - * Zigor Kode, 1944
 - * 1953ko Konkordatua
 - * " Ley de Principios del Movimiento Nacional" 1958
"Mugimendu Nazionaleko Printzipioen legea"
- Aldaketa/inflexio-puntua: Vatikanoko II. Kontzilioa, 1965 erlijio-askatasuna kontzeptu nagusi gisa
- Arauak egokitzea egoera berriari
 - * Espainiarren Foruaren idatzaldi berria, 1967
 - * Askatasun Erlijiosoaren legea, 1967
 - * Pribilegioei uko egiten zaie, 1976

II.- IKASGAIAREN GARAPENA

Sarrera

Gaur egun estatu espainiarrean indarrean dagoen estatu-eredua garapen luze baten ondorioa da. Ikasgai honetan, garapen horixe aztertuko da indarrean dagoen sistemaren aurrekariak, alegia. Aurrekari horiek bitan banatu dira: urrutikoak eta hurbilekoak.

Urrutiko aurrekari horien artean, honako hauek ditugu, besteak beste: Erdi Aroa, antzinako erregimena (XV -XVIII) eta XIX. mendeko konstituzionalismoa.

Hurbileko aurrekariei dagokienez, XX. mendea aztertuko dugu: II. Errepublika eta Frankismoaren garaia.

A.- URRUTIKO AURREKARIAK

A.I.- Tolerantzia-erregimena (XII.-XV.)

Erdi aroko garai honetan -XII.-XV. mende bitarteko garaia-, nagusi zen gutxiengo erlijiosoekiko –mudejarrak, mozarabiarrek eta juduak- tolerantziazko jarrera. Tolerantzia hori, XII.-XV. mende bitartean, tolerantzia bertikala izan zen nagusiki. Dena den, garai horretan, erregeak hartu zituen gutxiengo erlijioso horien kontrako zenbait erabaki. Ildo berean, XIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, gizartean intolerantzia horizontaleko jarrera nabaria da, eta gutxiengo erlijiosoekiko erreakzio kolektiboak gertatu ziren.

Garai hartan, estatua eta elizaren arteko harremanetan identitate-ereduak ziren nagusi. Nahiz eta bi botere-polo egon —erregea eta Aita Santua—, oraindik botereen arteko identitatea zen adierazgarri. Identitate horretan, erregeak izango du nagusigoa: zesaropapismoaren formula. Adibide gisa, Gaztelako erreinuan erregeak bere gain hartu zuen Aita Santuaren autoritatea; esan ohi zen Gaztelako erregea zela erreinu horretako elizaren burua.

Bi botereen arteko harremana -estatua eta eliza- estutuz zihoan heinean, gutxiengo erlijiosoekiko intolerantzia ere nabarmenagoa izan zen.

A.II.- Intolerantzia-erregimena; antzinako erregimena.

Erdi Aroa atzean utzita, antzinako erregimenaren garaian kokatuko gara; garai modernoan —XV.-XVIII. mende arteko garaian—, hain zuzen ere. Gure azterketa-eremua Errege Katolikoaren garaian hasiko da (1474.urtea), eta Frantziako iraultzarekin (1789. urtea) amaituko da.

Oro har, Europa guztian, estatu berri bat eratu zen garai moderno hartan: estatu modernoa. Espainiakoa monarkia absolutu konfesionala izango zen; konfesional katolikoa, hain zuzen. Formalki, behintzat, botere-dualtasuna zegoen: estatua eta eliza botere-eremu independentetzat jotzen ziren. Elizak nolabaiteko nagusigoa zuen bere helburu transzendentala zela-eta.

Praktikan, ordea, —kontutan izanik Absolutismoko garaia— erregearen boterea izan zen nagusi. Hala, errege absolutuak elizako arazoetan egindako esku-hartzeak geroz eta sakonagoak izan ziren; Eliza Katolikoaren bizia estuki kontrolatzen zuen. Sistema horri (XVI- XVIII) **erregalismoa** deitu zitzaion, eta adibideak izan ditugu Europako hainbat estatu modernotan: Frantzia, Italian, Austrian eta abar.

Espainiaren kasuan, bi etapa bereiz ditzakegu garai hartan:

-Batetik, XVI -XVII mendeak. Errege Katolikoekin hasi zen etapa hori, eta Carlos I. arekin eta Felipe II. arekin lortu zuen bere unerik gorena.

-Bestetik, XVIII. mendea. Mende hartan, estatu erregalistak Borbondarren dinastiarekin lortu zuen bere goreneko puntua.

1. etapa: XVI. mendean Espainian zegoen egoera oso desberdina zen Europakoarekin konparatuz. Errege Katolikoek, boterera iristean (1469-1516 Gaztela eta Aragoiko koroak elkartzean), ikusten zuten Espainian erreinu, zuzenbide eta erlijio aniztasuna zegoela. Kontuan izan behar da musulmanak han egon zirela zortzi mendetan; horregatik, kristautasunarekin batera, erlijio islamiarrak ere jarraitzaile asko zituen. Juduak ere bazeuden. Hiru erlijio horiek lege propioak zituzten beren jarraitzaileentzako; lege pertsonala aplikatzen zen. Hala, bakoitzari legeria bat edo bestea zegokion bere egoera pertsonalaren arabera; lege pertsonal hori zehazteko, ezinbestekoa zen norberaren erlijioa. Errege Katolikoek batasuneko nahiak zaildu egiten zituen egoera horrek.

Bide batez, garai hartan, egitura politiko berri bat sortu zen: estatu modernoarena.

Honako hauek izan ziren garai horretako ideia adierazgarrienak:

1.-Berpizkunde-garaiko soberaniaren ideia. Horrek dioenez, erregearengan bilduko da botere guztia: errege absolutuaren ideia.

2.-"Erdi Aroko printzearen" ideia mantenduko da. Horrek dioenez, erregeak agertuko dira kristautasunaren defendatzaile eta babesle. Horren ondorioz:

a) Errege-boterea elizaren "beso sekular"tzat jotzen zen.

b) Elizgizonei aldeko tratu bat ematen zitzaion, immunitate forala, fiskala eta politikoa eskainiz.

c) Estatuak gainontzeko komunitate erlijiosoekiko (musulmanak, juduak) intolerantzia-jarrera bat izan zuen. Konfesionaltasun doktrinala zen nagusi.

Garai hartako errege absolutuen antzera, Errege Katolikoek nahi zuten, batetik, boterea erregearen eskuetan bildu, eta, bestetik, erreinu desberdinetako zuzenbide-aniztasuna bateratu, oinarri gisa Gaztelako zuzenbidea hartuz.

Helburu horiek lortzeko, aipaturiko zuzenbide aniztasuna zen oztopo nagusia, fede-aniztasunean oinarria zuena. Horren aurrean, fede-aniztasuna gainditu nahi zela. Kontutan izan behar da garai hartan erreinuaren batasun politikoa fedearen batasunean oinarritzen zela (oraindik ez zen sortua *sentimendu nazionalaren* ideia; hori XIX. mendean sortu zen). Bide batez, juridikoki ere, denei lege berak aplikatu nahi zitzaizkien.

Hala, juduak 1492ko ediktu baten bitartez kanporatu ziren lehenengoz (gutxi gorabehera 150.000 judu); musulmanak kanporatu ondoren, 1608an kanporatu ziren - Errekonkista amaitzean bataiatuta Espainian gelditu ziren musulmanak- moriskoak (gutxi gorabehera 300.000).

Erresuman fede katolikoaren garbitasuna mantentzeko eta heresiekin —erlijio katolikoarekiko disidentziekin— amaitzeko, Errege Katolikoek **Inkiszio-auzitegia ezartzeko** eskatu zioten Aita Santuari (1478-1834). Hasiara batean, haren egitekoa erlijiosoa zen; kristautasunera bihurtu ziren judu eta moriskoen fedearen egiazkotasuna kontrolatzen zuen. Era berean, heresien aurka jarduten zuen, dogma katolikoa desitxuratzen zuten kristauen kontra joanez; besteak beste, Lutherren aldekoak izan zitezkeen kristauak.

Baina, inkisidoreak izendatzea Errege Katolikoaren esku zegoenez, tresna politiko bilakatu zen azkenean. Auzitegi horren jardunak garrantzi handia izan zuen Espainian Erreforma protestantea ez zabaltzeko. Aipatu behar da Espainian izan zirela protestante nukleo txikiak, Valladoliden eta Sevillan, baina auzitegi horrek emandako "fede-autoak" delakoen bitartez ezarritako heriotza-zigorra zela-eta desagertu ziren.

Erregearen joera absolutista zela-eta, elizan izango duen esku-hartzea geroz eta zabalagoa izan zen. Bide batez, kontutan izan behar dugu monarka katolikoek eliza katolikoa defendatzen zutela gerretan; Ameriketara aurkitu berriak ziren lurraldeetan ere, ebanjelizazioa bultzatzen zuten. Horregatik onartu zuen elizak esku-hartze hori.

Errege absolutuek elizan esku-hartzeko eta hura kontrolatzeko bideak honako hauek ziren:

1.- Ius patronatus edo errege-patronatua

Horren bitartez, elizako karguak izendatzeko eskubidea zuen erregeak. Horrela lortzen zuen bere lurraldeko eliza kontrolatzea, hau da, bere aldekoak ziren elizgizonak hautatuz.

Bide batez, eskubide hori egikaritzuz, inkisidoreak izendatzen zituen eta, gainera, auzitegi horren buru zen. Hala, bide batez, edozein motatako heterodoxia erlijiosoa delitutzat hartuko ditu estatuak —botere politikoak— ere.

2.-Bulden atxikitzea

Erregeak ahalmena izango du bere eskumenen kontra doazen elizako egintza edo akto juridikoak atxikitzeko; hala, erresuman ezin izango ziren ez argitaratu ezta egikaritu ere.

Atxikitzeko ahalmen hori gauzatzeko, pertsona guztiak —nahiz laikoak nahiz elizgizonak— behartuta zeuden erregearen abantailak urratzen zituzten eliza-dokumentuak salatzera "Gaztelako Kontseiluaren" aurrean; Kontseiluak hala zela egiaztatzen bazuen, Erromara bueltatzen zituen dokumentuak zuzendu zituzten.

3.-Apellatio ab abusu, gehiegikerien aurkako helegiteak

Horrekin, aukera ematen zaio erregeari auzitegi zibil eta kanonikoen artean eskumenak banatzeko. Bide batez, honako kasu hauetan ematen zitzairen aukera menpekoei auzitegi zibiletara jotzeko, aipaturiko helegitea aurkeztuz:

- uste dutenean eliz auzitegiko epai batek ez duela errespetatu estatuaren eta elizaren arteko eskumen-banaketa, ez dagozkien arazoei buruzko epai bat emanda.

- eliz auzitegiek modu desegokian ezezten dutenean goreneko eliz auzitegi bati helegitea aurkezteko eskubidea.

4.- Eliza erregimen fiskal baten menpe jarriko da

Garai hartan, Eliza Katolikoak diru-sarrera propioak zituen, zerga bitartez lortutakoak. Testuinguru hartan, erregeak erabakitzen zuen elizak lortzen zituen diru sarreretatik parte bat berari zegokiola. Horretarako, zerga berezi batzuk ezartzen ziren, besteak beste:

- ***Errege-herenak.** Horren bitartez, elizari zegozkion ondasunetik herena jasotzeko eskubidea izango du erregeak.

- ***Hamarren salbuetsia (diezmo excusado).** Lehenik aipatu behar da zer zen **hamarrena**. Elizak bere lurrak lantzen zituztenei zerga bat kobratzen zien: hamarrena; horren arabera, nekazariak lortzen zituzten fruituen hamarrena elizari zegokion. Hamarren eskusatuarekin, erregeak ahalmena zuen parrokiako familia aberatsenaren hamarrena

eskuratzeko. Hain zuzen, izena hortik dator, zeren hamarren hori pagatzeaz salbuetsita baitago eliza.

***Bederatzirena.** Erregeak ahalmena izango zuen elizak hamarrenaren bitartez jasotzen zuenetik bederatzirena eskuratzeko.

***Lurberrien hamarrena.** Laborantzarako lur berriak jartzen zirenean, handik jasotzen zenaren hamarrena eskuratzeko eskubidea zuen erregeak.

* **Subsidioa.** Horren bitartez eta bi urtetatik behin, erregeak eskubidea izango zuen elizari zegozkion ondasun eta fruituen laurdena jasotzeko. 1523. urtean Erregeari emandako bulda batean -Eliza Katolikoak igorritako idatzi batean- dago horren oinarri juridikoa.

Lehenengo garai hartan, erakunde erregalista horiek ez ziren oinarritzen erregearen botere absolutuan; elizak berak onartzen zuen esku-hartze hori. Erakunde horien oinarri juridikoa Aita Santuaren erabaki batean zegoen; bulda deritzon dokumentuaren bitartez erregeari aipaturiko pribilegioak aitortuzko zaizkio.

2. garaia. XVIII. Mendean, bere estatu erregalista **Borbondarrekin** (Carlos III, Felipe V) iritsi zen punturik gorenean. Garai hartan, areagotu egin zen erregearen esku-hartzea elizako gaietan.

Aipaturiko kontrol-tresnak indartu eta beste batzuk gehitu ziren:

-Errege-patronatutik datozen eskumenak areagotu ziren; jadanik ez ziren mugatzen goi-mailako karguak hautatzera, elizako kargu guztietara baizik.

-Bulden atxikitzearen erakunde erregalista **exequatur** edo **placet regio** bilakatu zen; erregearen oniritzirik gabe ezingo da eliza-xedapenik promulgatu erresuman. Erakunde horren arabera, erregearen kontrola eliza-dokumentu guztietara luzatu zen.

-Beste erakunde erregalista bat agertu zen: **ius eminens**. Horren bitartez, erregeari aukera emango zaio elizako ondasunak egoki iruditzen zaion moduan erabiltzeko; kargak eta zergak ezarri ahal izango dizkie eta, beharrezkoa bada, ondasunak saldu erregearentzat dirua biltzeko. Ahalmen horren bidetik gertatu ziren lehenengo desamortizazioak. Hain zuzen, XVIII eta XIX. mendeetan gertutako desamortizazioen bitartez, bere ondasunen parte garrantzitsu bat galdu zuen elizak.

Une hartan ere (XVIII. mendean), erakunde erregalista horien **oinarri juridikoaren** funtsa aldatu zen. Aurreko mendeetan, **elizak emandako pribilegio** bat zen erregearen ahalmen horien oinarria; gero, berriz, ahalmen horiek **bere soberaniaren ondorio**tzat joko ditu erregeak. Garai hartako erregalismoa laikoagoa eta sekularizatuagoa zen. Ikusiko dugun

bezala, garai hartan izandako aldaketa ideologiko garrantzitsu bat zegoen aldaketa horren atzean ere.

Arrazoi horregatik, mende horretan, estatua eta eliza arteko harremanak ez ziren batere baketsuak izan. Harreman horiek sarritan eten ziren, eta, berriz, berrezarri. **Konkordatuak** izan ziren estatuaren eta elizaren arteko harremanak arautzeko bidea. Estatuak –garaiko monarkiak- eta Vatikanoren artean sinaturiko hitzarmenak dira konkordatu horiek.

Europar, Frantziako iraultza arte iraun zuen orain arte aipaturiko harreman-eredu horrek (1789). Frantziako iraultza jarri ohi da antzinako erregimenaren amaiera-puntutzat. Dena den, harreman-eredu berriak ez ziren bat-batean eratu; aldaketa progresiboa izan zen eta garai hartan bildu ziren faktore ugarien ondorioa da.

Oro har, esan daiteke absolutismoa Frantziako iraultzarekin amaitu zela. Baina, haren oinarri politiko eta ideologikoak krisian zeuden mende bat lehenago. Krisialdi horren zergatia korrante kultural berri batean zetzan: **ilustrazioa**. Ilustrazioak **arrazoiaren nagusigoan** oinarritu zituen bere planteamenduak.

Hasiera batean, errege absolutuek ilustrazioaren ideiekin bateratu nahi izan zituzten beren planteamendu politikoak; beren boterea galdu gabe, arrazoiaren nagusitasuna aplikatu nahi izan zuten. Hala, **despotismo ilustratuarekin** topo egingo dugu. Monarka absolutuek beren boterea sendotu zuten arrazoiaren nagusitasun dela-eta, alde batera utzirik mito eta dogma erlijiosoak. Horregatik, garai hartan, erakunde erregalistak ez ziren jotzen elizak emandako pribilegiotzat, erregearen boterearen ondoriotzat baizik.

Dena den, ilustrazioaren dinamikaren ondorioz, absolutismoa amaitu egin zen, eta liberalismoaren garaia hasi (XIX).

Ilustrazioaren eraginez, giro kultural berri bat eratu zen. Ereku horretan, inkisizio-auzitegiaren funtzioa asko murriztu zen, eta soilik argitalpenen zentsura-arlorra mugatu zen; 1834. urtean desagertu zen.

Ilustrazioarekin zabaldu ziren arrazionalismoaren ideiak; aipagarri dira Descartes, Leibnitz, Spinoza eta abar. Ideia horiei esker, dogmatismoak —bereziki erlijiosoak— zalantzan jarri ziren, eta, ondorioz, erlatibismoaren oinarriak ezarri ziren. Bide batez, subjektibotasuna azpimarratzen zuten; gizabanakoak lehentasuna hartu zuen, eta haren eskubideak aitortzen hasi ziren. Aipagarri dira garai hartan egin ziren lehenengo eskubide-aitorpenak: 1776. urtean, Virginiako eskubide-aitorpena eta, 1789an, Frantziako "gizakiaren eta herritarraren eskubideen aitortzea".

Hala, antzinako erregimena atzean geratu zen.

Garai hartako Rousseau-ren "Gizarte Hitzarmena" dugu ideia garrantzitsuen artean. Kontratu horrek gizartea antolatzeko modu berri bat dakar, gizabanakoen eskubideak urratuko ez dituen itun baten bitartez. Printzipio horiekin, agerian gelditzen dira monarkia absolutuaren oinarriekiko kontraesanak.

Testuinguru hartan estatua arazo erlijioez arduratzen zenean, garrantzi berezia ematen zion herritarren erlijio-askatasunaren babesari. Estatuaren eta elizaren arteko harreman instituzionalizatuak jarraituko zuten, baina, garai hartan agertutako ikuspuntu pertsonalista dela-eta, bigarren mailan geratu ziren.

Oro har, esan dezakegu European garai historiko hartan jarri zirela oinarriak estatu demokratiko eta plural bat garatzeko. Hain zuzen, estatu demokratikoetan garatu dira modurik egokienean, orain arte behintzat, gizakien eskubideak, hala nola, kontzientzia-askatasuna, bereziki.

Estatu espainiarraren kasuan, estatu demokratiko eta plurala ez zen lortu 1978ko Konstituziora arte. Izan ere, XIX. mendea eta XX. mendearen zati nagusi bat aldaketa sakonen garaia izan zen. Gainera, estatuaren eta Eliza Katolikoaren arteko ituna mantendu egin zen, eta, ondorioz, ezinezkoa izan zen herritar ororen kontzientzia-askatasuna erabat garatzea.

A.III.- XIX. mendeko Konstituzionalismoa

XIX. mendea iraultza burgesaren mendea izan zen European. Frantziako iraultzarekin agerian gelditutako ideiak garatuz joan ziren XIX. mendearen zehar. Ideia horiei esker amaitu zen antzinako erregimenarekin.

Espainiako Estatuan, ordea, ez zen zehazki iraultza burgesik gertatu. Dena den, Frantziako iraultzaren zenbait ideia asimilatu ziren. Monarkia absolutuekin amaitu, eta monarkia liberal eta parlamentarioa ezarri zen.

XIX. mendean, ezegonkortasun politikoa izan zen nagusi. Desoreka politiko horren adierazgarri dugu XIX. mendearen zehar izandako 6 konstituzioak eta 3 konstituzio-proiektuak: 1808koa, 1812koa, 1837koa, 1845koa, 1852ko proiektua, 1856ko proiektua, 1869koa, 1873ko proiektua eta 1876koa. Mende horretan zehar gertatutako jazarraldi militar ugariak izan zuten lotura estua horrekin. Jazarraldi horiek aurrerakoitzat jo ohi dira batzuetan, bestetan, berriz, atzerakoitzat. Nagusiki, liberal aurrerakoi eta atzerakoien arteko tirabiren artean igaro zen mende guztia. Gai desberdinen inguruan sortu ziren tirabira horiek. Guretzat,

azpimarragarriak dira giza eskubideen inguruan izandakoak, bereziki alor ideologiko-erlijiosoari dagozkionak.

Arazo erlijiosora mugatuz gero, esan dezakegu 1869ko konstituzio liberal aurrerakoik izan ezik (horrek, zeharka bederen, kultu-askatasuna jasotzen du), indarrean egon ziren gainontzeko ia konstituzio guztiek **konfesionaltasunaren aldeko** aitortpenak jasotzen zituztela. I Errepublikako konstituzioan jasotako laiktasun-aitorpena da horren salbuespena.

Oro har, esan daiteke Espainiako estatu espainiarra XIX. mendean konfesionala izango dela; estatuak lotura estua zuen aukera erlijioso batekin: Eliza Katolikoarekin. Konfesionaltasun horrek, nahiz eta konstituzio guztietan indar berekoa ez izan, baldintzatu egin zuen herritarren kontzientzia-askatasunaren garapena eta, halaber, askatasun horrekin harreman estua duten gainontzeko eskubide eta askatasunen garapena. Askatasun ideologikoa behin eta berriz aitortu zen, alegia, ideia politikoko askatasuna; horretarako, inprenta-askatasuna esapidea erabili zen; ez zen hala gertatu erlijio-askatasunaren inguruan. Oro har, aipaturiko konfesionaltasuna zela-eta ez zen askatasunik izan ideia erlijiosoen inguruan.

Estatuaren eta elizaren arteko harreman-ereduari dagokionez, esan daiteke **baliagarritasun-eredua** izan zela nagusi; botere-polo bakoitzak bestearen balioespen positiboa egin zuen, baliagarria izango baitzaio bere helburuak lortzeko. Eredu hartan, botere-poloak konkordatu bitartez erlazionatu ziren.

Testuinguru hartan, kontuan izan behar da aipatutako ildo komun hori gaindituz konstituzio bakoitzak bere berezitasunak izan zituela.

B.- HURBILEKO AURREKARIAK

XIX. mendea igaro ondoren, gaur egun indarrean dagoen erregimenaren aurrekari hurbilenak XX. mendean daude. 1978ko konstituzioarekin ezarri zen eredia baino lehenago, bi estatu-eredu egon ziren indarrean, erabat desberdinak: II errepublikaren eredia eta Frankoren erregimenaren garaiko eredia.

I.- II Errepublika (1931-1936)

1931ko apirilaren 14ean aldarrikatu zen Espainiako Estatuko errepublika demokratikoa; konstituzio berria abenduaren 9koa zen; erregimen politiko hori gerra zibilarekin amaitu zen 1936ean. Kontuan izan behar da garai hartako egoera politikoa (XIX. mendean gertatu zen bezala) ez zela baketsua izan; horren adierazgarri dira urte horietan izandako bi jazarraldiak.

1931ko konstituzioaren oinarrien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu: **akonfesionaltasuna, berdintasunaren printzipioa** eta **kontzientzia-askatasuna**. Akonfesionaltasuna konstituzioaren 3. artikuluan jasotzen zen: “estatu espainiarrak ez du erlijiorik”. Adierazpen horrek eredu berri bat dakar estatuaren eta konfesio erlijiosoen arteko harremanetan. Hala, atzean utzi nahi izan zuen estatu espainiarrak izandako tradizio konfesionala. Horrekin lotura handia du konstituzio horretako 25.artikuluan jasotzen den berdintasunaren printzipioak. Horren arabera, “ezin izango da inolako pribilegiorik oinarritu ideia politikoetan edo erlijio sinesteetan”. Ildo berari jarraitzen zion kontzientzia-askatasunaren aitortpenak 27. artikuluan, edozein erlijioa praktikatzeko eskubideak eta moral publikoaren errespetua mugatzat hartuta. Bide batez, aurreikusten zen kultu-adierazpen publikoek gobernuaren baimena behar zutela kasu bakoitzean.

Konstituzio horretan aitortu ziren, halaber, kontzientzia-askatasunarekin lotuta dauden bestelako oinarrizko eskubideak. Horien artean daude, besteak beste: adierazteko eta informatzeko askatasunak (34. artikulua), eta elkartu eta biltzekoak (38. eta 39. artikulua).

Irakaskuntza-askatasuna ere aitortzen zen 48. artikuluan, eta, lehenengo aldiz, hezkuntza zerbitzu publikotzat hartuko da. Irakaskuntza laikoa eta plurala izango da. Erlijioaren irakaskuntza kanporatu zen ikastetxe publikoetatik. Dena den, elizak bere doktrina irakatsi ahal izan zuen bere ikastetxe edo egoitzetan, beti ere estatuak ikuskatuta.

Askatasun erlijiosoaren inguruan, esan daiteke Konstituzio horretan lehentasuna eman zitzaiola estatuaren laikotasunari, eta manifestazio erlijiosoak bigarren mailan gelditu zirela. Are gehiago, esan ohi da laikotasuna azken muturreraino eraman zela eta fenomeno erlijiosoaren balioespen negatibo bat egin zela. Fenomeno erlijiosoari emandako legeri berezia izan zen balioespen negatibo horren ondorioa, kontrako legeri berezia. Horren adierazgarri izan ziren Konstituzioko 26.artikuluan jasotako zenbait neurri. Hasteko, konfesio erlijiosoak diru publikorekin finantzatzea galarazi zen; ildo beretik, aurreikusi zen kultua eta elizgizonak finantzatzeko zegoen aurrekontuetako partida bi urtetan desagertzea. Aurreikusten ziren, halaber, ordena erlijioso batzuk desagiteko kausak, eta, kasu horietarako, aurreikusi zen haien ondasunak nazionalizatuko zirela. Ordena erlijiosoei galarazi zitzaizen industrian, komertzioan eta irakaskuntzan aritzea.

Neurri horiek orokorrean aztertuta, badirudi garai hartan zituen finantzabiderik gabe utzi nahi izan zela eliza.

Ildo berean koka daitezke konstituzioan jasotzen ziren beste artikulua batzuk, eta horiek garatzeko egin ziren legeak: Hilerriak modu eskusiboan jurisdikzio zibilpean gertuko

direla adierazten duena, konstituzioko 27. art.; konstituzioko 43. artikuluan oinarritua, dibortzioaren legea eman zen, eta ezkontza zibilaren legea.

Arau horien arabera, ezkontza kanonikoak ez du efektu zibilik izango. Beraz, efektu zibilak sortuz ezkondu nahi zuenak era zibilean ezkondu behar zuen. Neurri horiek garaiko gizartearen gehiengo katolikoaren kontzientzia-askatasunerako urratze sakonak izan ziren.

II.- Francoren erregimenaren garaia (1936-1975)

1936. urtean hasi zen Espainiako gerra zibila; horrekin amaitu zen II errepublikaren erregimena. 1939. urtean, gerra bukatzean, estatu-eredu berri bat zegoen indarrean: faxista eta totalitarioa. Eredu horrekin, atzerapauso handia eman zen eskubide eta askatasunen arloan.

Estatu-eliza arteko harremani dagokienez, kontuan izan behar da estatua konfesionala zela; konfesionaltasuna doktrinara izatera iritsi zen: egia erlijioso bakar bat onartu eta ofiziala egin zuen.

Monismo erlijiosoarekin batera, monismo ideologikoa ere ezarri zen. Ez zen onartzen aukera politikoan aniztasuna. Horren adierazgarri da 1936ko irailaren 13ko dekretu bat, non alderdi politikoak bertan behera uzten baitziren. Sindikatu bakarreko eta alderdi politiko bakarreko sistema izan zen: *Sindikatu bertikala* eta *Mugimendu nazionala* izenekoak.

Testuinguru hartan, kontzientzia-askatasuna eta harekin erlazionatutako eskubide eta askatasunak erabat murriztu ziren. Adierazpen-askatasuna, irakaskuntza-askatasuna, katedra-askatasuna, elkartzeko askatasuna eta abar formalki aitortzen baziren ere, beren muina ezezten zuen muga bat ezarri zitzairen. Askatasun horiek eta beren mugak estatu frankistako oinarritzko arauetako batean jaso ziren: **Espainiarren foruan** -1945. urtekoa-. Han, estatuaren oinarritzko printzipioak errespetatzeko betebeharra jasotzen zen eskubide-aitorpenarekin batera. Monismo ideologiko nahiz erlijiosoa zegoen horien artean. Zehatz-mehatz, Espainiarren foruko 33. artikuluan adierazten zen han aitortzen ziren eskubideek ezingo dituela urratu "Espainiako batasun espiritual, nazional eta soziala".

Esan dugun moduan, konfesional-katolikoa izan zen estatu frankista. Horrek eragin zuzena izan zuen emandako legerian. Gerra amaitu eta gero eman ziren lehenengo legeetan nabaritzen da printzipio katolikoaren eragina. Hasteko, bertan behera utzi zen II Errepublika garaian emandako *legeria sekularizatzailea*. Helburu horrekin, honako lege hauek eman ziren, besteak beste: ezkontza zibila indargabetzen zuen legea (1938); hilerrien sekularitzea indargabetu zuen legea (1938); dibortzioa indargabetu zuen legea (1939); 1939ko aurrekontuen legea, non jasotzen baitzen elizgizonentzako diru kopuru bat.

Katolizismoaren eragina ere nabari da ezkontza-sisteman; alegia, katolikoak behartuta zeuden kanonikoki ezkontzera. Hezkuntza-sisteman ere, konfesionaltasuna agerian gelditzen da: 1944ko lege baten bitartez, erlijio katolikoaren irakaskuntza berrezarri zen ikastetxe publiko eta unibertsitateetan; 1945ko lege batek, lehen mailako eskola arautzerakoan, elizaren esku jarri zuen irakaskuntza ikuskatzeko eskubidea.

1945eko Espainiarren foruan, espresuki jaso zen Konfesionaltasun katolikoa. Hango 6. artikuluan esaten da erlijio katolikoa -estatu espainiarrak jarraitzen duena- izateak eta praktikatzeak babes ofiziala izango duela; dena den, ezingo da inor zigortu sineste erlijiosoengatik eta modu pribatuan egingo duen kultuagatik; onartuko diren kanpo-adierazpen erlijioso bakarrak erlijio katolikoarenak izango dira.

Konfesionaltasunaren aldarrikapen berri bat egingo da **1953ko konkordatuan**. Konkordatuaren bitartez estatu espainiarra eta eliza katolikoaren arteko harreman instituzionalizatuak arautu ohi ziren. Konkordatu horretan, garaiko konfesionaltasunaren nondik norakoa zehaztu zen: ezkontza-sisteman, hezkuntza-sisteman, komunikabideetan eta abar. Bide batez, elizarentzako erregimen juridiko pribilegiatu bat jaso zen: zergak, aurrekontuetako dirulaguntzak. Elizgizonen alde ere, pribilegioak jaso ziren: foruaren pribilegioa, soldadutzarako salbuespena, eta abar. Konkordatu horretan adostuko da, halaber, estatuaren esku-hartzea elizako gotzainak hautatzeko garaian, *aurkezpenaren pribilegioa* izenekoa.

Kontuan hartu beharreko beste testu bat zera da: **Mugimendu Nazionalaren printzipioen legea, 1958koa**. Aipaturiko konkordatuan oinarriturik, konfesionaltasuna are gehiago sakondu zen bere bigarren printzipioan: "La Nación española considera como timbre de honor el acatamiento de la ley de Dios, según la Doctrina de la Santa Iglesia católica, apostólica y romana, única verdadera y fe inseparable de la conciencia nacional, que inspirará su legislación". Adierazpen horren arabera, estatu espainiarreko legeriak -bai gai erlijiosoei buruzkoak, baita bestelakoak ere- jainkozko zuzenbidea izango du printzipio inspiratzaile, eliza katolikoaren doktrinak egindako interpretazioari jarraituz.

1953ko konkordatua eta Mugimendu nazionalaren printzipioen legea batera interpretatuz, agerian gelditzen da konfesionaltasun doktrinalaren adierazpena. Erlijio katolikoaren eragina estatuko ordenamenduaren atal guztietan nabaritu zen.

Katolikoak ez zirenentzako tolerantzia-egoera aurreikusten zen. Era pribatuan, kultura onartzen zaie, baina, sistema juridikoaren konfesionaltasun sakona ikusita, argi dago haien eskubide eta askatasunak larriki murriztuta zeudela.

Aipaturiko monismo ideologiko eta erlijiosoko egoera hori 60ko hamarkada arte mantendu zen modu horretan. 60ko hamarkadan, sistema hori ahultzen hasi zen. **Vatikanoko II Kontzilioa** izan zen sistemaren oinarri ziren arauak aldatzeko pizgarria. Kontzilio horrek inflexio- edo aldaketa-puntu bat izan zen. Izan ere, kontzilio hartan ezarri ziren Eliza Katolikoaren jarrera arautu zuten **printzipio berriak**; hain zuzen ere, elizaren jarrera erabat aldatu zutenak.

Printzipio horien artean, askatasun erlijiosoarena aipatu behar dugu; 1965.urtean aldarrikatu zen "Dignitatis humanae" aitorpenean jaso. Horren arabera, elizak alde batera utzi zuen konfesionaltasunaren aurrean tradizionalki izan zuen jarrera. Ordu arte, elizaren ustez, konfesionaltasuna zen aukerarik egokiena estatu-eliza arteko harremanetan, gizabanakoen askatasun erlijioa bigarren mailan utzita. Horrekin, berriz, pertsona eta haren oinarritzko eskubideak jarri ziren lehen mailan, erabateko nagusitasuna eman zitzaion gizabanakoaren askatasun erlijiosoari. Dena den, salbuespen gisa, elizak onartzen zuen estatu bat konfesionala izatea, beti ere bi baldintza betetzen baziren:

- 1.- herritar guztien erlijio-askatasuna errespetatzea; alegia, erlijio-askatasuna izango da konfesionaltasunaren muga.
- 2.- konfesionaltasuna doktrinala ez izatea; konfesionaltasunaren oinarriak arrazoi historiko edo soziologikoetan egon beharko du.

Elizaren doktrinaren aldaketa hori –erlijio-askatasunaren eta konfesionaltasunaren ingurukoa- bateraezina da indarrean zeuden zenbait arau nagusiekin: 1953ko konkordatu eta Mugimendu Nazionalaren printzipioen legea. Izan ere, bi arau horietan oinarritzen zen estatu frankistaren konfesionaltasun doktrinala.

Sistemaren koherentzia mantentzeko arau horiek aldatzeko beharra zegoen, baina ez zen hala gertatu. Espainiarren foruaren 6. artikulua aldatu zen bakarrik. Bigarren paragrafo berridatzi zen: "el Estado asumirá la protección de la libertad religiosa, que será garantizada por una eficaz tutela jurídica que, a la vez, salvaguarde la moral y el orden público". Horren baitan, estatuak bere gain hartu zuen erlijio-askatasunaren babesa. Helburu horrekin, erlijio-askatasuna arautzen zuen lege bat eman zen 1967. urtean.

Erljio-askatasunaren legea hitzez hitz irakurrita, agerian gelditzen da han ez zitzaiola jarraitzen Eliza Katolikoak doktrinari emandako konfesionaltasuna eta erlijio-askatasunaren inguruan. Lege horretako 1.3 artikuluan, zera esaten da: "El ejercicio de la libertad religiosa, concebido según la doctrina católica, ha de ser compatible en todo caso con la confesionalidad del Estado español proclamada en sus Leyes Fundamentales". Alegia, erlijio-

askatasuna -kontzilioak adierazitakoaren kontra- estatuaren konfesionaltasunaren menpe geratu zen; konfesionaltasuna, gainera, doktrinala zen, indarrean baitzeuden 1953ko Konkordatua eta Mugimendu Nazionalaren printzipioen bigarren artikulua. Bestalde, legeak esaten du erlijio-askatasunaren esanahia zehaztuko dela doktrina katolikoari jarraituz.

Horrek guztiak mesfidantza sortarazi zuen katolikoak ez zirenen artean. Askatasun erlijioso arautzeko legetzat baino, tolerantzia-legetzat jo zen.

Testuinguru horretan, 1953ko Konkordatua aldatzeko izapideak hasi ziren. Dena den, konkordatua erreformatu ordez, bertan behera utzi zen estatua eta elizaren harremanak arautzeko tresna juridiko hori. Gai guztiak arautuko duen konkordatu bakar baten ordez, erabaki zen gai multzoei buruzko akordio partzialak egitea. Dena den, etapa berri hartan, ikusten da nahitaezkoa zela alderdi bakoitzak bestearekiko zituen pribilegioei. uko egitea Izan ere, Estatuak oraindik gordetzen zuen gotzainak hautatzeko “aurkezpenaren pribilegioa”, eta elizak, berriz, foruaren pribilegioa gordetzen zuen, elizgizonentzat egoera juridiko berezi bat ematen zuena.

1976. urtean -Franco hil ondoren eta Juan Carlos I errege izanik- sinatu zen akordio bat Vatikoanoaren eta estatu espainiarraren artean. Akordio horren arabera, alderdi bakoitzak uko egin zien bere pribilegioei, eta zehaztu zen akordio bitartez arautu zirela bientzat interes komuneko gaiak.

Akordio horiek 1978ko konstituzioa indarrean sartu eta gero sinatu ziren:

- **1979.**urtean, lau akordio sinatu Eliza Katolikoarekin: gai juridikoei buruzkoa; irakaskuntzari eta gai kulturei buruzko; indar armatuetako asistentzia erlijiosoari buruzkoa eta elizgizonen eta erlijiosoen soldadutzari buruzkoa, eta ekonomia-gaiei buruzkoa.
- **1992.** urtean akordio bana sinatu zen hiru konfesio erlijiosorekin: juduekin, islamiarrekin eta ebanjelikoekin. Akordio bakoitzean hainbat gai landu ziren.

III.- BIBLIOGRAFIA, LEGERIA ETA JURISPRUDENTZIA

a) Bibliografia

- Oinarrizkoa: D.LLAMAZARES FERNÁNDEZ, Derecho de la libertad de conciencia, I. liburukia, 175. or. eta hurrengoak; D.LLAMAZARES FENÁNDEZ, Derecho Eclesiástico del Estado. Derecho de la libertad de conciencia, Servicio de publicaciones de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense, Madril, 1991, 155. or. eta hurrengoak.
- Osagarriak:

JA. ESCUDERO, Curso de Historia del Derecho; R.NAVARRO VALLS (coord), Derecho Eclesiástico del Estado español, EUNSA, Iruña, 2002; I.IBAN, y otros, Derecho Eclesiástico, McGraw-Hill, 1997; A.MARTÍNEZ BLANCO, Derecho Eclesiástico del Estado, Técnos, Madril, 1994.

b) Legeria

1808, BAYONAKO ESTATUTUA: TITULO I.- DE LA RELIGION.

Artículo 1: La religión católica, apostólica y romana, en España y en todas las posesiones españolas, será la religión del rey y de la nación y no se permitirá ninguna otra".

1812, CADIZEKO KONSTITUZIOA:

TITULO II: DEL TERRITORIO DE LAS ESPAÑAS, SU RELIGION Y GOBIERNO Y DE LOS CIUDADANOS ESPAÑOLES.

CAPITULO II.-DE LA RELIGION.

Artículo 12: La religión de la nación española es y será perpetuamente la católica, apostólica y romana, única verdadera. La nación la protege por las leyes sabias y justas y prohíbe el ejercicio de cualquier otra."

TITULO IV: DEL REY

Artículo 171: Además de la prerrogativa que compete al Rey sancionar las leyes y promulgarlas, le corresponden como principales las facultades siguientes:

6.- Presentar para todos los obispos y para todas las dignidades y beneficios eclesiásticos de real patronato, a propuesta del Consejo de Estado.

15.- Conceder el pase, o retener los decretos conciliares y bulas pontificias con el consentimiento de las Cortes, si contienen disposiciones generales; oyendo al Consejo de Estado, si versan sobre negocios particulares o gubernativos, y si contienen puntos contenciosos, pasando su conocimiento y decisión al supremo tribunal de justicia, para que resuelva con arreglo a las leyes.

TITULO V: DE LOS TRIBUNALES Y DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA EN LO CIVIL Y CRIMINAL.

Artículo 261: Toca al Supremo Tribunal de Justicia:

8.- Conocer de los recursos de fuerza de todos los tribunales eclesiásticos superiores de la Corte.

1837, KONSTITUZIOA:

TITULO I.- DE LOS ESPAÑOLES.

Artículo 11: La Nación se obliga a mantener el culto y los ministros de la religión católica que profesan los españoles."

1845, KONSTITUZIOA:

TITULO I.- DE LOS ESPAÑOLES

Artículo 11: La religión de la nación española es la católica, apostólica y romana. El Estado se obliga a mantener el culto y sus ministros."

1852, KONSTITUZIO PROIEKTUA:

TITULO I.- DE LA RELIGION.

Artículo 1: La religión de la Nación española es exclusivamente la católica, apostólica, romana.

Artículo 2: Las relaciones entre la Iglesia y el Estado se fijarán por la Corona y el Sumo Pontífice en virtud de Concordatos que tendrán carácter y fuerza de ley".

1856, KONSTITUZIO PROIEKTUA:

" TITULO I.- DE LA NACION Y DE LOS ESPAÑOLES.

Artículo 14: La Nación se obliga a mantener y proteger el culto y los ministros de la religión católica que profesan los españoles. Pero ningún español ni extranjero podrá ser perseguido por sus opiniones o creencias religiosas, mientras no las manifieste por actos públicos contrarios a la religión.

1869, KONSTITUZIOA:**" TITULO I.- DE LOS ESPAÑOLES Y SUS DERECHOS.**

Artículo 21: La Nación se obliga a mantener el culto y los ministros de la Religión católica.

El ejercicio público o privado de cualquiera otro culto queda garantizado a todos los extranjeros residentes en España, sin más limitaciones que las reglas universales de la moral y del derecho.

Si algunos españoles profesaren otra religión que la católica, es aplicable a los mismos todo lo dispuesto en el párrafo anterior."

1873, LEHENENGO ERREPUBLIKAREN KONSTITUZIOAREN PROIEKTUA:**" TITULO II.- DE LOS ESPAÑOLES Y SUS DERECHOS**

Artículo 34: El ejercicio de todos los cultos es libre en España.

Artículo 35: Queda separada la Iglesia del Estado.

Artículo 36: Queda prohibido a la Nación Estado federal a los Estados regionales y a los Municipios subvencionar directa o indirectamente ningún culto.

1876, KONSTITUZIOA:**" TITULO I.- DE LOS ESPAÑOLES Y SUS DERECHOS.**

Artículo 11: La religión católica apostólica romana es la del Estado. La Nación se obliga a mantener el culto y sus ministros.

Nadie será molestado en el territorio español por sus opiniones religiosas, ni por el ejercicio de su respectivo culto, salvo el respeto debido a la moral cristiana.

No se permitirán, sin embargo, otras ceremonias ni manifestaciones públicas que las de la religión del Estado."

1931, BIGARREN ERREPUBLIKAREN KONSTITUZIOA.**"TITULO PRELIMINAR - DISPOSICIONES GENERALES.**

Artículo 3: El Estado español no tiene religión oficial.

Artículo 14.2: Son de la exclusiva competencia del Estado español la legislación y la ejecución directa en las materias siguientes:

2.- Relación entre las Iglesias y el Estado y régimen de cultos.

DERECHOS Y DEBERES DE LOS ESPAÑOLES.**Garantías individuales y políticas.**

Artículo 25: No podrán ser fundamento de privilegio jurídico: la naturaleza, la filiación, el sexo, la clase social, la riqueza, las ideas políticas ni las creencias religiosas.

Artículo 26: Todas las confesiones religiosas serán consideradas como Asociaciones sometidas a una ley especial.

El Estado, las regiones, las provincias y los Municipios no mantendrán, favorecerán, ni auxiliarán económicamente a las Iglesias, Asociaciones e Instituciones religiosas.

Una ley especial regulará la total extinción, en un plazo máximo de dos años, del presupuesto del Clero.

Quedan disueltas aquellas Ordenes religiosas que estatutariamente impongan, además de los tres votos canónicos, otro especial de obediencia a autoridad distinta de la legítima del Estado. Sus bienes serán nacionalizados y afectados a fines benéficos u docentes.

Las demás órdenes religiosas se someterán a una ley especial votada por estas Cortes Constituyentes y ajustada a las siguientes bases:

- Disolución de las que, por sus actividades, constituyan un peligro para la seguridad del Estado.
- Inscripción de las que deban subsistir, en un Registro especial dependiente del Ministerio de Justicia.
- Incapacidad de adquirir y conservar, por sí o por persona interpuesta, más bienes que los que, previa justificación, se destinen a su vivienda o al cumplimiento directo de sus fines privativos.
- Prohibición de ejercer la industria, el comercio o la enseñanza.
- Sumisión a todas las leyes tributarias del país.

-Obligación de rendir anualmente cuentas al Estado de la inversión de sus bienes en relación con los fines de la Asociación.

Los bienes de las Órdenes religiosas podrán ser nacionalizados.

Artículo 27: La libertad de conciencia y el derecho de profesar y practicar libremente cualquier religión quedan garantizados en el territorio español, salvo el respeto debido a las exigencias de la moral pública.

Los cementerios estarán sometidos exclusivamente a la jurisdicción civil.No podrá haber en ellos separación de recintos por motivos religiosos.

Todas las confesiones podrán ejercer sus cultos privadamente.Las manifestaciones públicas del culto habrán de ser, en cada caso, autorizadas por el Gobierno.

Nadie podrá ser compelido a declarar oficialmente sus creencias religiosas.

La condición religiosa no constituirá circunstancia modificativa de la personalidad civil ni política, salvo lo dispuesto en esta Constitución para el nombramiento de Presidente de la República y para ser Presidente del Consejo de Ministros.

FUERO DE LOS ESPAÑOLES, 1945.

" Artículo 6: La profesión y práctica de la religión católica, que es la del Estado español, gozará de la protección oficial.Nadie será molestado por sus creencias religiosas, ni en el ejercicio privado de su culto.No se permitirán otras ceremonias ni manifestaciones externas que las de la religión católica".

1953, KONKORDATUA

"Artículo 1: La religión Católica, Apostólica, romana sigue siendo la única de la Nación española y gozará de los derechos y de las prerrogativas que le corresponden en conformidad con la Ley Divina y el Derecho Canónico".

LEY DE PRINCIPIOS DEL MOVIMIENTO NACIONAL, 1958

"Artículo 2: La Nación española considera como timbre de honor el aceptamiento de la Ley de Dios, según la Doctrina de la Santa Iglesia católica, apostólica y romana, única verdadera y fe inseparable de la conciencia nacional, que inspirará su legislación".

Nueva redacción del artículo 6 del Fuero de los españoles, modificada por Ley Orgánica de 1967:

"Artículo 6: La profesión y práctica de la Religión Católica, que es la del Estado español, gozará de la protección oficial.

El Estado asumirá la protección de la libertad religiosa, que será garantizada por una eficaz tutela jurídica que, a la vez, salvaguarde la moral y el orden público".

1851ean Espainako Gobernuak Vaticanoarekin sinatutako Konkordatua:

"**Artículo 1:** La religión católica, apostólica, romana, que con exclusión de cualquier otro culto continúa siendo la única de la nación española se conservará siempre en los dominios de Su Majestad Católica, con todos los derechos y prerrogativas del que debe gozar según la Ley de Dios y lo dispuesto en los sagrados Cánones".

IV.- ARIKETAK

Komentatu itzazu ikasgai honetan jasotzen den araudia, 2., 3. eta 4. ikasgaietan aztertutako kontzeptu nagusien harira.

5. IKASGAIA

ESPAINIAKO ESTATUKO ZUZENBIDE ELIZTARRAREN ITURRIAK

I.- IKASGAIAREN ESKEMA

- Zuzenbide-iturria, arauak direnean

- **Iturri gorena:** 1978ko Konstituzioa

- Aldebakarreko jatorria duten arauak

- Estatu zentralak emandako oinarritzko legeria (lege organiko eta arruntak)

- Autonomia-erkidegoetako legeria

- Zuzenbide konfesionala zeharkako iturri berezia.

- Jatorria alde bikoa edo alde anitzekoa duten arauak

- Nazioarteko tratatuak

- Europar Batasuna eratzen duten tratatuak, Europako Erkidegoko zuzenbidea.

- Giza eskubideei buruzko nazioarteko tratatuak

- Estatuaren eta konfesioen arteko lankidetzak-akordioak:

- izaera juridikoen desberdintasuna: *nazioarteko itunak*, batzuk eta *lege arruntak*, besteak

- oneste-prozedura, exekuzio(egikaritze?), interpretazio eta iraingipen desberdinak

- akordioen edukia

- Zuzenbide-iturria, jurisprudentzia denean

II.- IKASGAIAREN GARAPENA

- Sarrera

Garrantzi bereziko gaia dugu iturriena.

Kontzeptu horrekin zera zehaztu nahi dugu nagusiki: zein arauk arautzen dituen kontzientzia-askatasuna eta haien jatorria. **Arauen** iturria aztertuko dugun bereziki; alegia, indarrean dagoen sistema juridikoak zein arauen bitartez arautzen duen kontzientzia-askatasuna. Horrekin batera ere, **jurisprudentzia** izan behar da kontuan ; izan ere, horrek osatu egiten du arau idatziaren hedadura aplikazio praktikoari begira.

- Iturrien azterketa

I.- Zuzenbide-iturria, arauak direnean:

Hor kokatzen dira kontzientzia-askatasuna arautzen duten **arau multzoa**. Arau multzo hori hirutan sistematizatuko dugu, jatorriaren arabera.

a) Iturri gorena: 1978ko Konstituzioa

Hori da, hain zuen, indarrean dagoen legediko arau nagusia. Arau goren hori zuzenean aplikagarria da. *Iturrien iturritzat* hartu ohi da. Nagusitasun hori dela-eta, han egongo da legediko arau guztien **azken oinarri juridikoa**. Halaber, legediko arauak duten indar loteslea konstituzioarekiko duten adostasunaren arabera izango da.

Kontzientzia-askatasunari dagokionez, konstituzioaren arau batzuk azpimarra ditzakegu. Hasteko, aipatuko ditugu Estatuko Zuzenbide Eliztarraren oinarritzko zutabeak eratzen dituzten konstituzio-arauak. Horien artean:

-1.1. artikulua

Horretan, legediko **balio nagusiak** jasotzen dira: askatasuna, berdintasuna, justizia eta pluraltasuna; Konstituzio-arauak balio horien arabera interpretatu beharko dira.

Halaber, 1.1 artikulua zehaztuko du indarrean dagoen estatuaren **forma politikoa**: zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa.

-10.1. artikulua

Hor **pertsonalismoaren printzipioa** jasotzen da. Printzipio horren arabera, pertsona bera izango da —dagokion duintasunarekin eta dituen funtsezko eskubideekin— ordena politiko eta bake sozialaren oinarri; beti ere legea eta gainontzekoen eskubideak errespetatuz.

-10.2. artikulua

Artikulu horretan, EKko oinarritzko eskubideak interpretatzeko irizpide bat jasotzen da: materia horien inguruan estatuak sinatu dituen nazioarteko tratatu eta akordioak.

- 9.2. artikulua

Artikulu horren arabera, botere publikoen zeregina izango da behar diren neurriak hartzea, herritarrei aitortutako askatasun eta eskubideak benetakoak izan daitezen. Indarrean dagoen estatu-eredua definitzen duen klausula sozialaren edukiaren muina jasotzen da hor.

Artikulu horretan ere jasotzen da botere publikoen zeregina herritarren partaidetza errazteko, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean: klausula demokratikoari dagokion edukia.

-14. artikulua

Berdintasun-printzipioa jasotzen da hor, oro har, eta, guri dagokigunez, arrazoi erlijioso nahiz ideologikoengatik ez diskriminatzeko agindua.

-16. artikulua

Ideologia-, erlijio- eta kultu-askatasuna aitortzen da artikulu horretan. Nahiz eta espresuki kontzientzia-askatasuna hitzez hitz aitortu ez, hor kokatu ohi da kontzientzia-askatasunaren oinarri juridikoa EKn.

Estatuaren konfesionaltasun eza ere, laikotasuna, hor jasotzen da .

- 148 eta 149. artikulua

Artikulu horietan zehaztuko da nola banatzen diren eskumenak estatu zentralaren eta autonomia-erkidegoen artean.

Aipatu ditugun arauekin batera, konstituzioko beste arau batzuek garrantzi berezia dute, diziplinaren edukiaren atal batzuk arautzen dituztenak, hain zuen. Haien abiapuntua konstituzioko 16. artikuluan egongo da; artikulua horren zehaztapen bat izango dira. Horien artean kokatzen dira, besteak beste: **20. artikulua**, informatzeko eta adierazteko askatasunak jasotzen duena; **27. artikulua**, hezkuntzaren alorreko funtsezko eskubideak aitortzen dituena; **30.2. artikulua**, kontzientzia-eragozpenaren kasu bat jasotzen duena: soldadutzaren eremukoa; **32. artikulua**, ezkontzari buruzkoa, eta **39. artikulua**, familiari buruzkoa.

Arau horiek guztiak aztergai izango dira gizabanakoaren kontzientzia eratu eta aditzera emateko bide egoki diren neurrian, eta, orobat, kontzientziaren arabera jarduteko eskubidea eskaintzen duten neurrian.

b) Alde bakarreko jatorria duten arauak

Arau batzuen jatorria alde bakarrekoa da; izan ere, arau horiek **autoritate- legegile bakar** batek eman ditu: estatu zentralak edo autonomia-erkidegoak.

Aipamen berezia egingo diogu, halaber, konfesio erlijiosoek emandako araudiari. Zuzenbide konfesionala, esan bezala, estatuko zuzenbidearen eremutik kanpo dago, oro har. Dena den, zenbait kasu berezitan, jo daiteke Estatuko Zuzenbide Eliztarraren iturritzat.

b.1.-Estatu zentralak emandako alde bakarreko legeria

Konstituzio espainiarreko oinarri juridikoa kontuan hartuta, estatuak —botere legegilearen bidez— materia bat gara dezake **lege** bitartez. Lege hori arrunta edo organikoa izan daiteke.

Bi lege mota horien arteko desberdintasuna, batetik, **formala** da; hau da, onespenezko prozeduraren arabera (gehiengo sinplea batean, gehiengo absolutua bestean, EKko 81. artikulua). Bestetik, **edukiaren** aldetik ere badaude desberdintasunak. Izan ere, konstituzioan jasotzen da lege organikoen aldeko materia-erreserba bat. Erreserba horren arabera, funtseko eskubideen garapena —beste materia batzuekin batera— lege organiko bitartez gauzatu beharko da (EKko 81.1. artikulua).

Bi lege mota horien arteko harremana ez da oinarrizko hierarkia-printzipioan; nahiz arruntak nahiz organikoak, biak dira lege eta maila berekoak. Kasu horretan, kompetentzia-edo eskumen-printzipioarena izango da jarraitu beharreko irizpidea. Horren arabera, lege mota bakoitzak eremu material zehaztu bat arautzeko kompetentzia du; hortik kanpora, ezin izango da lege mota hori erabili. Alegia, konstituzioaren gai batzuk —81.1. artikuluan

zehaztuak— lege organikoz soilik arautu ahal izango dira. Ereku horretatik kanpo ezin izango da lege organiko bidez ezer arautu.

Dagokigun azterketa-eremua kontuan izanik, honako hauek daude zuzenbide-iturri izango diren legeen artean:

- Askatasun erlijiosoaren eremuan:

Askatasun erlijiosoari buruzko lege organikoa, 1980; AELO

-Hezkuntzaren eremuan:

LODE: Ley Orgánica sobre el Derecho a la Educación/ Hezkuntza Askatasunari buruzko lege organikoa, 1985.

LOE: Ley Orgánica de Educación / Hezkuntzari buruzko lege organikoa, 2006.

- Informazioaren eremuan:

- Titularitatea estatuarena den irrati eta telebistaren legea, 2006

- Telebista pribatua arautzen duen legea, 1988

- Kazetarien Kontzientzia Klausula arautzen duen LO, 1997

- Telekomunikabideei buruzko legeria

Lege horietan, **estatu zentralak emandako oinarrizko legeria** jasoko da. Legeria horrek **garapen-araudia** izango du; estatu zentral berak emandakoa, batzuetan, edo autonomia-erkidegoek emandakoa, besteetan.

Diziplina honen eremuan ere, aztergai dira honako materia hauek: ezkontza-sistema eta estatu-eliza arteko harremanak. Ezkontza-sistemari dagokionez, 149.1.8. artikulua dio estatu zentralari dagokiola modu eskusiboan ezkontzeko formak arautzea. Halaber, estatuari dagozkio, modu eskusiboan, nazioarteko harremanak, 149.1.3.artikulua dioenez. Izan ere, estatua eta eliza katolikoaren arteko harremanak bideratu ohi dira nazioarteko zuzenbidearen bidetik. Beraz, estatu zentralaren eskumenen artean kokatu dira. Orobat, 149.1.1 artikulua araber, estatu zentralari dagokio askatasun erlijiosoaren egikaritzearen inguruko oinarrizko legeria ematea, estatu eta gainontzeko konfesio erlijiosoen arteko harremanek zuzenez zuzenean zerikusia baitute.

b.2.- Autonomia-erkidegoetako legeria

Lehenik **oinarrizko zenbait ideia** aipatuko ditugu, alor hori aztertzeko baliagarri izango baitira:

1.- Indarrean dagoen estatu-eredua soziala, demokratikoa eta zuzenbidezkoa izateaz gain, badaude eredu hori zehazten duten beste klausula definitzaile batzuk. Horien artean, autonomia-estatuaren klausula dago.

Konstituzioko 2. artikuluan, autonomia-eskubidea aitortzen zaie estatuko nazionalitate eta eskualdeei, beti ere, estatuaren batasuna errespetatuz. Autonomia-eskubide horren edukia III. kapituluko VIII. tituluan zehazten da konstituzioan. Horren arabera, estatuko nazionalitate eta eskualdeek eskubidea izango dute dagokien autonomia-erkidegoa eratzeko.

2.- Autonomia-erkidego bakoitzaren arau gorena autonomia-estatutua izango da. Autonomia-estatutu hori legedi juridiko autonomikoaren oinarria da; halaber, estatuko legedi juridikoaren parte izango da.

Autonomia-estatutuek jaso beharreko edukien artean —EK 147.2 d)— daude autonomia-erkidegoak bereganatu dituen eskumenak; beti ere, konstituzioak markatutako eskumen-banaketaren eremua. Alegia, konstituzioak —(148-150 artikuluetan) zehazten du zein eskumen dagozkion estatu zentralari eta zein bereganatu ditzaketen autonomia-erkidegoek beren autonomia-estatutuen bitartez.

3.-Konstituzioko 148. artikuluan jasotzen dira autonomia-erkidegoek bereganatu ditzaketen eskumen-zerrenda. Konstituzioko 149. artikulua, berriz, modu eskusiboan estatuari dagozkion materiak jasotzen ditu. Autonomia-estatutuek ezin izango dituzte eskumen horiek bereganatu. Dena den, 149.1 artikulutik kanpo dauden gaiak autonomia-erkidegoek bereganatu ditzakete beren estatutuen bitartez.

Beti ere, estatu zentralari dagozkio autonomia-estatutuetan jasotzen ez diren eskumenak; kasu guztietan, estatu zentralaren zuzenbideak osatu egingo du autonomia-erkidegoetako zuzenbidea: zuzenbide osagarria izango da.

Konstituzioko 150. artikulua, arabera, printzipioz estatuari dagozkion materia batzuekiko eskumenak jaso ditzakete autonomia-erkidegoek, prozedura zehatz batzuei jarraituz.

4.- Orain arte, eskumenez mintzatu gara, zentzu zabalean, baina kontuan izan behar dugu gai baten inguruko **eskumenak izaera desberdinekoak** izan daitezkeela:

-Lehenik bereizi behar ditugu eskumen **legegileak** eta **egikaritzekoak**.

-Bide batez, eskumen **legegileak** bitan banatu daitezke: oinarrizko legeria emateko eskumena eta garapen-legeria emateko eskumena.

Bereizketa hori kontuan hartuta, estatu zentralak edo autonomia-erkidegoak gai baten inguruan dituen eskumenak, eskusiboak izango dira zenbait kasutan: gai hori osotasunean arautu eta egikaritzeko. Baina gai ugariaren inguruan, zera gertatzen da: **eskumenak partekatuak** daudela. Alegia, estatu zentralak gaia arautuko du eta autonomia-erkidegoak egikaritu, edo estatu zentralak oinarrizko legeria eman eta autonomia-erkidegoak legeria hori garatu eta egikaritu.

Gure azterketa-eremuari dagokionez, nagusiki aztertzen diren gaiak funtsezko eskubideen ingurukoak dira. Hain zuzen, EKko 149.1.1 artikularen arabera, **estatu zentralari** dagokio **modu eskusiboan** funtsezko eskubideen **oinarrizko legeria** ematea. Horrek ez du eragozten autonomia-erkidegoek eskubide horien **garapen-legeria** eman eta hura **egikaritu ahal izatea**. Izan ere, hala gertatzen da guk aztertuko dugun gai gehienetan.

Eskema hori jarraituz, 149.1 artikularen arabera, estatuari eskumen-zerrenda bat dagokio modu eskusiboan. Horien artean, kontzientzia-askatasunarekin erlazionatuta dauden funtsezko eskubide batzuei egingo diegu aipamen berezia. Esaterako, 149.1.27. artikulua dio estatu zentralari dagokiola **oinarrizko legeria** ematea, prentsa, irrati, telebista eta, oro har, komunikabide sozialen eremuan; 149.1.30. artikulua dio estatu zentralari dagokiola konstituzioko 27. artikulua garatzeko **oinarrizko legeria**.

Eskumen-eremu hori errespetatuz, autonomia-elkarteek ere zenbait eskumen bereganatu ditzakete materia horietan. Zein motatako eskumenak? Funtsezko eskubideak garatu eta egikaritzeko eskumenak.

Esaterako, **Euskal Autonomia Erkidegoak** hezkuntzaren eremuko zenbait eskumenak bereganatu ditu bere **estatutuaren** bitartez (16. artikulua); baina, beti ere, estatu zentralaren eskuduntzak errespetatu beharko ditu. Komunikabide eta informazio eremuan ere, eskumenak bereganatu ditu 19. artikulua dioenez. **Horiekin batera, autonomia-erkidegoari modu eskusiboan dagozkion zenbait eskumen aurki ditzakegu estatutuan, besteak beste: (...) aztertuko ditugu kontzientzia-askatasunaren harremana duten heinean.**

b.3.- Zuzenbide profesionalei egindako aipamen berezia

Konfesio erlijioso bakoitzak duen berezko zuzenbideari deitzen zaio zuzenbide profesionala. Horien artean honako hauek ditugu, besteak beste: zuzenbide kanonikoa,

islamiarra eta judutarra. Konfesio erlijioso horiek beren araudi propioa dute, beren autoritateak emandakoa eta fededunei zuzendua.

Estatu-eredu neutral batean, erabateko banaketa gertatzen bada estatua eta konfesio erlijiosoen artean, zuzenbide konfesionala fededunei soilik aplikatuko zaie; zuzenbide konfesionalak ez du inolako eraginkortasun zibilik izango.

Estatu-eredu laiko batean zuzenbide konfesionala ezin da zuzenean izan zuzenbide-iturri. Baina kasu berezi batzuetan gerta daiteke zeharkako zuzenbide izatea. Noiz gertatuko da hori?

Estatuko ordenamenduak aurreikusten du herritarren sinesmen erlijiosoak kontuan hartuta lankidetzaz-harremanak izango dituela hainbat konfesiorekin (konstituzioko 16.3 artikulua). Modu horretan bermatu nahiko da herritarren erlijio-askatasunaren egikaritze egokia. Izan ere, botere publikoek neurriak hartu behar dituzte herritarren askatasuna eta eskubideak egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezen (EK 9.2 artikulua); neurri horien artean daude estatuak hainbat erlijioarekin sinatu dituen lankidetzaz-akordioak. Dena den, edozein motatako lankidetzaz honako muga hauek izango ditu: herritarren arteko berdintasuna eta estatuaren izaera laikoa.

Lankidetzaz hori era desberdinetan zehaztu da. Zenbait kasutan, estatuko legediak aurreikusiko du jatorria legedi konfesional batean duten arauari efektuak aitortzea, edo arau horien babesean eratu diren negozio juridikoei nolabaiteko eraginkortasun zibila ematea.

Honako hau dugu horren adibide bat: katolikoaren ustez, beren kontzientziaren arabera, ezkontza desegin edo baliogabetzeko autoritate eskudun bakarra eliza da. Estatuaren eta eliza katolikoaren arteko lankidetzazaren barruan, sistema bat bideratu da elizak emandako baliogabetze- edo desegite-erabakiei efektu zibilak emateko, baldin eta baldintza batzuk betetzen badira.

Efektu horiek emateko, ikusi ditugun teknikak erabiliko dira. Llamazares irakasleak dio indarrean dagoen estatu-ereduarekin hobekien doazen teknikak honako hauek direla: arauari eginiko igorpen material eta partziala, eta presupuestoa. Izan ere, eraginkortasuna aitortzen den legedi eremu horri dagokionez, estatuaren legedia izango da jatorrizkoa eta, legedi konfesionala eratorria. Dena den, kontuan izaten bada 1978. urte arte estatu espainiarra konfesionala zela, oraindik badaude zenbait kasu arauari eginiko igorpen formalarenak edo efektu-aitorpenaren teknikaren kutsua dutenak. Adibide horiek gainditu beharrekoak dira laikotasunaren mesedetan.

c) Jatorria alde bikoia edo alde anitzekoa duten arauak

Badaude arau batzuk kontzientzia-askatasuna arautzen dutenak eta beren jatorria autoritate legegile bikoitz edo askotariko batean dutenak. Horien artean aipatuko ditugu, besteak beste, nazioarteko tratatuak eta konfesioekin sinaturiko akordioak.

c.1.- Nazioarteko tratatuak

EKko 96. artikulua araberan, estatuak sinatu dituen tratatuak, ofizialki argitaratu ondoren, estatuaren barne-legediaren parte izango dira; eta, horrenbestez, aplikagarriak eta lotesleak. Kontuan izan behar da estatuak tratatuak sinatzeko dituen bideak ez direla kasu guztietan berdinak. Tratatu horiek arautuko dituzten gaien barruan, hiru prozedura jasotzen dira konstituzioko 93. eta 94. artikuluetan.

Gure aztergaia kontuan izanda, bitan sistematizatuko ditugu gure gaiari dagozkion tratatuak: Europako Batasuna ahalbidetu dutenak eta Giza-eskubideei buruzko tratatuak.

c.1.1.- Europako Batasuna ahalbidetu duten tratatuak

Konstituzioko 93. artikulua dioenez, tratatu bat sinatu ahal izatea lege organiko bitartez baimenduko da tratatu horretan jasotzen bada nazioarteko organizazio edo erakunde bati aginduko zaiola konstituzioan jasotako eskumenak erabiltzea. Alegia, printzipioz estatuari dagozkion eskumen legegile, betearazle edo judizialak nazioz gaindiko erakunde bati emateko, lege organiko bat beharko da. Tratatu horien artean daude, esaterako, egungo Europako Batasuneko kide izateko Espainiako estatuak sinatu dituenak.

Europako Batasunak bere legedi juridiko propioa eratzeko ahalmena du: Europa Erkidegoko zuzenbidea, alegia. Europa Erkidegoko zuzenbidean indarrean dauden printzipioen artean, lehentasunaren printzipioa dago. Horren arabera, Europa Erkidegoko zuzenbideak —dagozkion eskumenen eremuan— lehentasuna du estatu kideen barne-zuzenbideen aurrean.

Kontzientzia-askatasunari dagokionez, ezin da esan Europa Erkidegoko zuzenbide espezifiko bat dagoenik materia hori arautzeko. Dena den, Europa Erkidegoko zuzenbidean, badira kontzientzia-askatasunarekin erlazionatuta dauden materien inguruko arauak. Horien artean daude, besteak beste: hezkuntza, kultura, informazioa, elizen finantzatzea, erlijioen araudi fiskala, ezkontza-sistema eta abar.

Esaterako, kontzientzia-askatasunaren inguruan, Amsterdam-eko Tratatuaren 11. Aitorpenak agerian uzten du zein den Europako Batasunaren jarrera Batasunean dauden eliza, komunitate erlijioso, organizazio filosofiko ez konfesional eta antzeko elkarten estatutuen aurrean. Artikulu horren arabera, Europako Batasunak errespetatzen du, aurretik balioetsi

gabe, elizek eta elkarte nahiz komunitate erlijiosok duten estatutua; ontzat hartuko ditu, halaber, kide den estatu bakoitzaren zuzenbide propioak emandako araudia. Modu berean, organizazio filosofiko nahiz ez konfesionalen estatutua ere errespetatzen du Europako Batasunak.

Dena den, kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubide bat den neurrian, kontuan hartzekoa da gai honi Europa Erkidegoko zuzenbidean ematen zaion tratamendua. Azpimarragarria da **Europako Batasunaren tratatuko 6. artikulua**.

Kontzientzia-askatasunaren aitortpen espresuari dagokionez, **Europako Konstituzioaren proiektua** aipatzekoa da, hain zuzen.

c.1.2.- Giza eskubideei buruzko tratatuak

Konstituzioko 94. artikuluan, tratatuak sinatzeko beste prozedura bat jasotzen da. Estatuak bere adostasuna emateko, Gorte Nagusien baimena beharko du zenbait kasutan. Kasu horien artean dago, esaterako, tratatuak **funtsezko eskubideetan eragina izatea**: konstituzioko 94.1. artikuluko kasua.

Oro har, tratatu horien maila buruz, esan ohi da konstituzioaren azpitik daudela baina legeen gainerik. Alegia, konstituzioa legediko arau gorena den heinean, legedi guztiaren gainontzeko arauak —tratatuak barne— beraren menpe daude. Konstituzioko 95. artikulua da horren adierazgarri; horren arabera, ezin izango da trataturik sinatu konstituzioaren edukien kontra. Kasu hori gertatuko balitz, konstituzioa aldatu beharko da tratatua sinatu baino lehenago, bestela, ezin izango da tratatu hori sinatu.

Konstituzioko 96. artikulua dionez, tratatuak ofizialki argitaratzen direnean, estatuaren barne-legediaren parte izango dira. Artikulu berean adierazten da tratatu horietan aldaketak egiteko jarraitu beharko den bidea izango dela tratatuek berek aurreikusitakoa edo nazioarteko zuzenbideak aurreikusitakoa. Alegia, estatu batek ezin izango du sinatutako tratatuaren edukia aldatu berak bakarrik emandako lege baten bitartez. Horregatik esan ohi da **tratatuak legeen gainerik** daudela.

Oinarrizko eskubideei buruz estatuak sinatu dituen tratatuetarako, funtzio berezi bat aurreikusten du EKko 10.2. artikulua. Izan ere, konstituzioan aitortutako funtsezko eskubideak interpretatzeko irizpide izango dira tratatu horiek.

“Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala”, 1948. urtekoa, dago tratatu horien artean, eta EKko 10.2. artikuluan hitzez hitz jaso da. European, garrantzia berezia du Giza Eskubideen aldeko Europako Konbentzioak, 1950. urtekoa; hala nola, konbentzio horren

babesean jarduten duen Giza Eskubideen Europako Auzitegia. Aipatzekoak dira halaber: "eskubide zibil eta politikoei buruzko nazioarteko tratatua" eta "eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko nazioarteko tratatua", biak 1966. urtekoak; "Gutxiengo nazionalak babesteko hitzarmena", 1995. urtekoa; "Haurraren eskubideei buruzko konbentzioa", 1989. urtekoa, besteak beste.

c.2.- Konfesioekin sinaturiko akordioak

EKko 16.3 artikuluan jasotzen da botere publikoek kontuan izango dituztela gizarte espainiarraren sineste erlijiosoak, eta dagozkion lankidetzaharremanak izango dituela eliza katolikoarekin eta gainontzeko konfesioekin. Ere, Eremu juridikoan, EKko 9.2. artikuluan botere publikoei ezartzen zaien agindu orokorraren zehaztasuntzat jo ohi da KEko 16.3. artikuluan jasotzen den lankidetzarako agindua. Izan ere, EKko 9.2 artikuluan jasotzen da funtsezko eskubideak eraginkorrak izan daitezkeen neurriak hartzeko agindua, botere publikoei zuzendutakoa. Erlijio-askatasunaren eraginkortasunari begira, EKko 16.3 artikuluan jasotako lankidetzarako agindutan zehaztuko da agindu orokor hori.

Lankidetzaharreman horiek bideratzeko aukera ugari dago, eta akordioena da horietako bat. Izan ere, erabili zen 1979. urtean, tresna juridikoa gisa, Espainiako estatua eta eliza katolikoaren arteko lankidetzaharremanak bideratzeko. 1980. urteko *askatasun erlijiosoaren arautzen duen lege organikoak* (aurrerantzean, AELO) akordio bidea jasotzen du 7. artikuluan, estatua eta konfesio erlijiosoaren arteko lankidetzaharremanak bideratzeko aukera gisa; beti ere, konfesio erlijioso horiek dagokien erregistroan egon beharko dute inskribatuta, eta sustraitze nabarikoak izan beharko dute. AELOk aurreikusitakoari jarraituz, 1992. urtean, hiru lankidetzaharremanak sinatu zituen Espainiako estatuak, eliza ebanjelikoen federazioarekin, komunitate israeldarrekin eta batzorde islamiarrarekin, hain zuzen.

Espainiako Estatuak sinaturiko lankidetzaharreman horien guztien oinarri juridikoa konstituzioan berbera da, batez ere 16.3. eta 9.2. artikuluetako edukia. Baina desberdintasun nabariak daude eliza katolikoarekin sinatutako akordioen eta gainontzeko lankidetzaharremanen artean.

Hasteko, lankidetzaharreman horien **izaera juridikoa** ez da bera kasu guztietan. Eliza katolikoarekin sinatutako 1979ko akordioak AELO baino lehenagokoak dira. Horiek gauzatzeko ez zen jarraitu AELOn aurreikusten den prozedura, **nazioarteko tratatuetarako** aurreikusten dena baizik. Izan ere, nahiz eta eliza katolikoa ez izan estatu bat, nazioarteko zuzenbidearen eremuko subjektutzat jotzen da; horregatik jarraitu zen nazioarteko tratatuen

prozedura. Dena den, D. Llamazaresen iritziz, akordio horiek nazioarteko tratatuekin parekatzen badira ere, ez dira propioki nazioarteko tratatu. Izan ere, ez da osotasunean aplikatzen nazioarteko legedia arautzen duen Vienako hitzarmena (1969koa).

1992. urteko, lankidetzak-akordioak sinatzeko —federazio ebanjelikoarekin, batzorde islamiarrarekin eta israeldar komunitateekin egindakoak— AELOn aurreikusten den prozedurari jarraitu zioten. AELO 7. artikuluan jasotzen da akordio horiek Gorte Nagusiek emandako **lege bitartez** onetsiko direla. Horren inguruan, zera zehaztu behar da: konfesioek eta gobernuak sinatuko dute akordioa; ondoren, akordioaren edukia lege proiektu gisa tramitatuko da. Prozedura horretan, posible da akordioa bere horretan gelditzea edo emendakinak izatea. Aipaturiko hiru konfesioen kasuan, legeek prozedura berezi bati jarraitu zioten: irakurketa bakarrarena. Horren arabera, dagokion akordioa barneratzen dituen legeak **artikulu bakarra du**. Artikulu bakar horretan adierazten da estatuaren eta konfesio bakoitzaren arteko lankidetzak-harremana adostu duten akordioaren bitartez bideratzen dela, eta akordio hori legeari batuko zaiola eranskin moduan.

Beraz, gaur egun, estatuaren eta konfesioen arteko lankidetzak-akordioek izaera juridiko desberdina dute, akordio horiek estatuko arau bilakatzeko jarraitutako prozedura desberdina izan baita: eliza katolikoaren kasuan, nazioarteko tratatuena eta federazio ebanjeliko, komunitate israeldar eta komisio islamiarraren kasuan, berriz, Gorte Nagusien legeari dagokiena.

Izaera juridiko desberdin horrek markatuko du, halaber, erregimen juridiko desberdin bat, akordio horiek nola **egikaritu, interpretatu eta iraungi behar diren** zehazteko.

Akordioak egikaritzeari eta interpretatzeari dagokionez, bereizketa bat egin behar da. Vatikanorekin sinaturiko akordioak, nazioarteko tratatuak direnez, honako printzipio hauek izan behar dira kontuan: aldebikotasuna eta akordioaren borondatea luzatzea, eperik gabe. Printzipio horien ondorioz, alderdien arteko akordioaren bitartez egikaritu eta interpretatuko dira akordio horiek; akordio horrek iraungo du kontrako jarrera espresurik ez badago. Beraz, Estatuak eta Vatikanok elkarrekin jardun beharko dute indarrean dauden akordioak egikaritzeko eta interpretatzeko. Aipatzekoa da praktikan tentsio-uneak badaudela. Elizak behin baino gehiagotan salatu ditu estatuaren huts-egiteak, eta estatuaren aldetik zalantzan jarri dira akordio horien konstituzionaltasuna.

Gainontzeko konfesioekin sinaturiko akordioetan, ordea, egoera bestelakoa da. Lege arruntak direnez, aldebikotasunaren printzipioa ez dago indarrean. Alegia, akordioak egikaritzeko eta interpretatzeko, estatuak ez du beste alderdiaren adostasunik behar. Beti ere,

komeni izaten da adostasun hori edukitzea, legearen aplikazio egokiari begira. Legez, dagokion betebeharrak bakarrik zera da: konfesioei adieraztea haiekin duen akordioaren edukia aldatuko duen ekimenen bat badagoela; hala, egoki iruditzen zaiena adierazteko aukera izango dute konfesioek. Hala jasotzen da 1992ko lankidetzak-akordioaren lehenengo xedapen gehigarrian.

Akordioa **iraungitzeari** dagokionez, AELOri jarraituz sinaturiko akordioak lege arruntak direnez, KZeko 2.2 artikuluan jasotzen izango da printzipio aplikagarria: *legeak ondorengo beste legeek bakarrik indargabe ditzakete* (ley posterior deroga la anterior).

Vatikanoarekin sinaturiko akordioak, ordea, desberdinak dira. Nazioarteko tratatuak direnez, beren iraungipena ere bestelakoa da. EKko 96. artikulua dioenez, nazioarteko tratatuen xedapenak soilik indargabetu ahal izango dira tratatuak berak aurreikusten duen moduan edo nazioarteko zuzenbideak adierazten duen moduan. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, tratatuei amaiera emateko bideak honako hauek dira: elkarren arteko adostasuna; alderdi batek hitzartutakoa haustea; "rebus sic stantibus" klausularen arabera, tratatuak indarrean jarraituko du "gauzek egoera berean irauten duten bitartean", beraz egoeraren aldaketak tratatua amaitzea ekar dezake.

Akordioek arautzen dituzten gaiak zein diren zehazteko kontuan izango dugu, halaber, badaudela desberdintasunak 1979. urtean eliza katolikoarekin sinatutakoaren hitzarmenaren eta 1992. urtean ebanjelikoekin, juduekin eta islamiarrekin sinatu zirenen artean.

Eliza katolikoarekin, lau akordio sinatu dira, hainbat gairen inguruan: gai ekonomikoak; gai juridikoak; gai kultural eta irakaskuntzari buruzkoak; Indar Armatuak laguntza erlijiosoak eta elizgizonen soldadutzari buruzkoak. Bestelako erlijioekin, berriz, akordio bakarrik sinatu da bakoitzarekin. 1992ko lankidetzak-akordioetan, zenbait gai arautzen dira.

Oro har, esan dezakegu, gaur egun indarrean dauden akordioetako gaiak honela sistematiza daitezkeela:

- Batetik, erlijio-askatasunaren eremu indibidualari buruzkoak; alegia, gizabanakoari begira: asistentzia erlijiosoak toki publikoetan (kokagune militarretan, presondegietan, ospitaleetan e.a.); ezkontza erlijiosoaren efikazia edo indar juridikoa; erlijioaren irakaskuntza ikastetxe publikoetan, besteak beste.

- Bestetik, askatasun erlijiosoaren eremu kolektiboari buruzkoak; alegia, talde erlijiosoari begira: konfesioen estatutu juridiko zibila zehaztea; erlijioaren finantzazioa; konfesioaren erregimen fiskala; erlijioaren jai-egunei buruzko aurreikuspenak; komunikabide

publikoetan sarbidea izateko eskubidea; ondare historiko artistikoaren erabilera eta mantentze-lanaren arautzea, besteak beste.

II.- Iturria jurisprudentzia denean:

Kontzientzia-askatasunari ematen zaion erregimen juridikoa aztertzerakoan, araeekin batera, ezinbestekoa da auzitegien erabakiak kontuan izatea. Arau orokorra errealitateko kasu jakin batera aplikatzerakoan sortu dira erabaki horiek. Kontuan izan behar da auzitegi horien erabakiek elementu garrantzizkoak eskaintzen dituztela kontzientzia-askatasunaren eremua zehazteko.

Guretzat, Auzitegi Gorenak nahiz Konstituzio Auzitegi emandako epaiek garrantzi berezia izango dute. Berezi, Konstituzio Auzitegiarenak; izan ere, EKren interpretari gorenaren denez, beraren jurisprudentziak garrantzi berezia du kontzientzia-askatasuna eta horrekin lotuta dauden funtsezko eskubideen edukia zehazteko garaian. Oinarrizko eskubidea denez, Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren ebazpenak ere oso garrantzitsuak dira.

III.- BIBLIOGRAFIA, LEGERIA ETA JURISPRUDENTZIA

a) Bibliografia

- **Oinarrizkoa:** D.LLAMAZARES FERNÁNDEZ, *Derecho de la libertad de conciencia, vol I, libertad de conciencia y laicidad*; Civitas, Madril 2002; D.LLAMAZARES FENÁNDEZ, *Derecho Eclesiástico del Estado. Derecho de la libertad de conciencia*, Servicio de publicaciones de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense de Madrid, Madril 1991.

- **Osagarriak:** LOPEZ GUERRA eta beste batzuk, *Derecho constitucional, I. liburukia*, Tirant lo blanch, Valentzia 1997, J.SOUTO PAZ, *Derecho Eclesiástico del Estado. Derecho de la libertad de ideas y creencias*. Madril, 1997 R.NAVARRO VALLS (Koord.), *Derecho Eclesiástico del Estado español*, EUNSA, Iruñea, 2002; I. IBAN eta beste autore batzuk, *Derecho Eclesiástico*, McGraw-Hill, 1997.

6. IKASGAIA

ESTATUKO ZUZENBIDE ELIZTARRAREN PRINTZIPIO NAGUSIAK

I.- IKASGAIAREN ESKEMA

- Sarrera

- Printzipioak aztertzen:

1.- Pertsonalismoa: EKko 10.1 art.

- ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri dira:
 - 1.- pertsonaren duintasuna
 - 2.- berezkoak dituen eskubide urraezinak
 - 3.- pertsonaren izaeraren garapen askea
- Pertsonaren duintasuna AKren arabera
- pertsonaren duintasuna, gainontzeko oinarrizko eskubideen oinarri gisa.
- duintasuna eta kontzientziaren arteko lotura; aipamena izaeraren garapenari
- pertsonalismoaren mugak.
 - a) gainontzekoen eskubideak errespetatzea
 - b) legea errespetatzea.
- pertsonalismoa eta Estatu-taldearen arteko harremanak: eremu horretan adierazi nahi da pertsona (beraren duintasuna eta eskubideekin) dela sistemaren oinarria, muina. Gizabanakoek eratuko dituzten taldeak eta horien eskubideak pertsonaren garapenerako eratuko dira; bigarren mailakoak dira, eratorriak.

2.- Kontzientzia-askatasuna: EKko 16.art.

- Legediko printzipio nagusia denez, botere publikoek beren zeregina bideratu beharko dute horren garapen egokiena lortzera.
- kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubide bat da (7.ikasgaia), dimentsio objektibo bat ere badu, erakundearen berme gisa; hau da, kontzientzia-askatasunak bermatzen ditu pluraltasuna eta gainontzeko balio nagusiak, sistema bera, alegia.
- Kontzientzia-askatasuna ez da espresuki jasotzen EKn.
- AKk pentsatzen du kontzientzia-askatasuna inplizituki bertan aitortzen dela 16.art.-ko askatasun ideologiko eta erlijiosoan.
- D. LLAMAZARESEK kontzientzia-askatasuna zentzu zabalean aztertzen du eta horren barruan kokatzen du: a) norberaren kontzientzia askatasunez ERATZEKO eskubidea, (lotura du 27.1eko hezkuntza eskubidearekin, eta 20.1.d-ko eskubideekin; b) norberaren ideiak, sinesteak, uste sendoak askatasunez ADIERAZI, IGORTZEKO eskubidea (lotura 27.1-eko irakasteko askatasunarekin eta 20.1-ko adierazpen-askatasunarekin; c) norberaren kontzientziaren arabera JARDUTEKO eskubidea, hala nola, norberaren kontzientziaren kontra jardutera behartua ez izateko eskubidea.
- kontzientzia-askatasunaren oinarri juridikoa Konstituzioan aurkitu daiteke, 16.1, 10.1 eta 1.1 artikuluetan.

3.- Berdintasuna askatasunaren arloan: justizia

- Askatasuna eta berdintasuna legediko balio nagusi gisa
- lortu behar da biak batera egikaritzea , harmonizatu egin behar dira.
- Berdintasuna balio nagusi gisa, 1.lean jasotzen da, eta oinarrizko eskubide gisa, 14.ean.
- Printzipio nagusi gisa, botere publikoentzat agindu eta mugak bi eremutan:
 - berdintasun formalaren eremuan: legearen aurreko berdintasuna
 - berdintasuna materialaren eremuan: 9.2ko agindua

4.- Estatuaren laikotasuna, EK 16.3art.

- Espainiako Estatu estatua laiko eta ez konfesional gisa
- Laikotasunak zera dakar:
 - neutraltasuna, herritarren konbikzioekiko inpartzialtasuna
 - Banaketa Estatuaren eta konfesioen artean

5.- Lankidetzaren printzipioa, EK 16.3 art.

- Helburua: erlijio-askatasunaren oinarritzko eskubidea eraginkor bihurtzea
- 16.3 artikuluan jasotzen den lankidetzaren; 9.2 artikulua aginduaren hedadura Estatu sozialaren eremuan, 1.1
- Lankidetzaren mugak: herritarren berdintasuna eta Estatuaren laikotasuna
- Estatu-erlijio arteko hitzarmenak, lankidetzaren adierazpen gisa.

IKASGAIAREN GARAPENA**Sarrera**

Ikasgai honetan aztertu behar ditugun printzipioak indarrean dagoen legediaren arau nagusitik ondorioztatuko ditugu: EKtik. Indarrean dagoen legediaren zutabeak eratzten dituzten formulazio juridikoei deituko diegu printzipio. Izan ere, formulazio horiek beren baitan biltzen dituzte zeregin juridikorako oinarritzkoak diren eduki mamitsu eta trinkoak. Horregatik, funtzio informatzaile, inspiratzaile bat aitortu ohi zaie nagusiki.

Funtzio informatzaile hori bi mailatan sistematizatu ohi da. Batetik, **funtzio inspiratzaile positiboa**. Horren arabera, operadore juridikoei beren zereginen –legegileak, betearazleak, judizialak, besteak beste- kontuan eduki beharko dituzte printzipio horiek, beren baitan baitituzte arauak interpretatzeko ezinbesteko diren elementuak. Izan ere, beren jarduna egokitu beharko dute printzipio horiekin hobekien doazen soluzioak bideratuz. Bestetik, **funtzio informatzaile negatiboa** aitortzen zaie. Horren arabera, inolako arauak edo erabakiak ezingo ditu printzipio horiek urratu; hala gertatuz geroz, konstituzio-kontrakotzat jo daiteke.

Ikasgai honetan aztertuko ditugun printzipioak ez dira hitz horiekin jasotzen EKn. Dena den, aipatu dugunaren arabera, 1.1, 9.2, 10.1, 16 artikuluetako edukiak hartuko ditugu printzipiotzat. Kontuan izan behar dugu jasotzen ditugun printzipioak aztertuko ditugula, bereziki, kontzientzia-askatasuna aztertzen duen diziplinaren ikuspuntutik.

Honako hauek dira printzipio horiek: pertsonalismoa, kontzientzia-askatasuna, berdintasuna eta askatasuna, laikotasuna eta lankidetzaren.

1.- Pertsonalismoa

Printzipio horren oinarri juridikoa EKko 10.1 artikuluan dugu. Han jasotzen da honako hauek ordena politikoa eta bake sozialaren oinarri direla: pertsonaren duintasuna, berezkoak dituen eskubide urraezinak eta pertsonaren nortasunaren garapen librea.

Artikulu horretatik, honako ideia hauek ondoriozta daitezke:

1.- konstituzioan jasotzen den ordena politiko eta sozialaren muina **pertsona eta haren duintasuna** errespetatzean datza.

Pertsonaren duintasunari buruz, AKk dio funtsezko balio juridiko bat dela; EK 1.1. artikuluan jaso gabe egonagatik, horrek ez du esan nahi du mailaz beheragokoa denik; izan ere, EK 1.1 artikuluan aitortzen diren balio juridikoak bezain nagusia eta oinarrizkoa da sistema juridikoan.

Ildo beretik, AKk adierazten du pertsonaren duintasuna pertsona berarekin bat datorren balio espiritual eta moral bat dela. Duintasun horrek aukera emango dio pertsonari bere bizitza autodeterminatzeko, erabakitzeke, eta erabaki hori errespetatua izateko. Izan ere, oinarrizko eskubide guztiek pertsonaren duintasunean dute oinarria. Horien artean, lehenengoa, EK 15. artikuluan jasotzen den bizitzeko eskubidea. Ondoren, EK 16. artikuluan kontzientzia-askatasuna.

Argi dago lotura estua dagoela pertsonaren duintasunaren eta kontzientzia-askatasunaren artean. Dena den, pertsonak duintasuna jaiotzen denetik baldin badu, beraren kontzientzia eratuz joaten da. Horregatik, EKko 10.1 artikuluan aitortzen da, pertsonaren duintasunarekin batera, beraren nortasuna askatasunez garatzeko eskubidea. Pertsonaren nortasuna garatuz doan neurrian, eratuz doaz, halaber, beraren pentsamenduak, sinesteak, ideiak eta uste sendoak. Hortik datoz haren kontzientzia —pertsonak bere burua, dituen berezitasunekin, aitortzeko gaitasuna izatea— eta horren arabera jarduteko ahalmena.

Izan ere, pertsonaren duintasuna errespetatzea lotura estua du pertsona horren kontzientzia-askatasuna aitortzearekin.

2.- EKko 10.1 artikulua berak zenbait **muga** jasotzen ditu: a) gainontzekoen eskubideak errespetatzea eta b) legea errespetatzea.

Alegia, 10.1-eko pertsonalismoa ez da indibidualista, han jasotzen den pertsona ez da gizaki isolatu bat, gizarte batean bizi den pertsona baizik. Horri deitzen zaio pertsonalismo soziala. Horregatik, norberaren duintasunak, haren nortasunaren garapenak eta berezkoak dituen eskubideek honako muga hauek izango dituzte: gizarteko gainontzeko pertsonenen duintasuna, nortasunaren garapena eta gainontzekoen eskubideen errespetua.

Bide batez, ikuspuntu juridikotik, eta zuzenbide-estatu baten eremuan, legeak zehaztuko du zein eremutan garatu ahal izango diren norberaren izaera eta oinarrizko eskubideak; betiere, gainontzekoen askatasun eta eskubide eremua errespetatu beharko dira.

3.- Pertsonalismoaren bi dimentsio horiek (indibidualista eta soziala) bat egiten dute, pertsona indibiduala interes batzuen inguruan beste batzuekin elkartzen denean. Kasu horretan, taldeak agertzen dira; legediak eskubideak aitortzen dizkie talde edo elkarte horiei ere.

Dena den kontuan hartu beharrekoa da **taldeei aitortutako eskubideak eratorriak edo deribatuak** direla; gizabanakoari aitortutakoetatik eratorriak, alegia. Hau da, taldeei eskubideak aitortuko zaizkie gizabanakoaren eskubideak bideratzeko egoki diren neurrian. Beraz, estatua -botere publikoak, alegia- eta taldeak -horien artean talde erlijioso edo ideologikoak- harremanetan jartzen direnean, pertsonalismoa izango da helburu nagusia eta harreman horiek inspiratzen dituen printzipioa; pertsonaren garapena eta haren eskubideak lortzea izango da helburua. Bigarren mailan geratu da printzipio instituzionala; hau da, taldeei lehentasuna ematen zaie pertsona bigarren maila batean utzita.

2.- Kontzientzia-askatasuna

Kontzientzia-askatasuna oinarrizko eskubidetzat har daitekeenez, dimentsio bikoitza du, oinarrizko eskubide guztiei aitortu ohi zaien moduan. Batetik, dimentsio subjektibo bat dagokio, eskubideen titularrei jardunbide-eremu legitimo bat ahalbidetuko diena. Eremu horretan, eta D. LLAMAZARESen jarrera doktrinalari eutsiz, kontzientzia-askatasunak bere titularrei aukera ematen die: a) norberaren ideiak, sinesteak eta uste sendoak askatasunez eratzeko; b) uste sendo horiek askatasunez adierazi eta igortzeko; c) norberaren kontzientziaren arabera jarduteko eta norberaren kontzientziaren kontra jardutera behartua ez izateko.

Beste alde batetik, kontzientzia-askatasunari dimentsio edo eremu objektibo bat dagokio. Alegia, aipaturiko dimentsio edo eremu subjektiboarekin batera, oinarrizko eskubideek, beren osotasunean, eratzen dute indarrean dagoen sistema juridikoaren euskarrietariko bat. Esan ohi da oinarrizko eskubideek eratzen dutela sistema juridiko politikoaren oinarri axiologikoa. Maila horretan, legediko printzipio inspiratzaile nagusi dugu kontzientzia-askatasuna. Hala, nolako estatu-eredua izango dugun ere bideratuko .

Sistemaren printzipio nagusia denez, botere publikoek beren zeregina bideratu beharko dute horren garapen egokiena lortzera. Izan ere, indarrean dagoen legedian,

kontzientzia-askatasunaren garapen egokia bermatzeak bideratuko ditu sistemaren oinarri diren balio nagusiak: askatasuna eta pluraltasuna, betiere berdintasun-egoeran herritar guztientzat. Hala, indarrean dagoen zuzenbide-estatu demokratiko eta sozialaren ereduaren ardatz izango da kontzientzia-askatasuna.

Kontzientzia-askatasuna ez da espresuki jasotzen EKn. Dena den, adostasunez kokatu ohi da EKko 16. artikuluan askatasun ideologiko eta erlijiosoaren eremuan. Beraz, askatasun ideologiko eta erlijiosoa indarrean dagoen sistema juridikoan modu egokian bermatu eta sustatzen badira, lortu egingo da sistemaren oinarrian dagoen pluraltasuna ahalbidetzea.

Bide batez, kontzientzia-askatasuna modu egokian babesteak EKko 10.1 artikulueko pertsonalismoa bideratzea dakar berekin. Alegia, pertsonaren duintasuna eta haren nortasuna garatzea erabat erlazionatuta dago pertsona horren kontzientzia-askatasuna babesterekin. Horrek eratuko du sistemaren zutabeetariko bat.

Izan ere, pertsonaren kontzientzia-askatasuna dago EKn aitortzen diren oinarriko eskubide gehienen oinarrian: 15. artikuluko bizitza duinaren eskubidea; 16.eko askatasun ideologiko eta erlijiosoa; 18.eko intimitate eta norberaren irudiaren eskubidea; 20.eko adierazi eta informatzeko askatasunak; 21.eko biltzeko askatasuna; 22.eko elkarteak sortzeko askatasuna; 27.eko hezkuntza-eskubidea eta irakasteko askatasuna, besteak beste.

Kontzientzia-askatasunak duen izaera horren arabera, legediak babes juridiko indartua eskaintzen dio, baldin eta pertsonaren identitatearekin bat egiten duten uste sendoak jokoan badaude. Legediak ezartzen dizkion mugak, ezar daitezkeen mugarik txikiak dira: indarrean dagoen legerian babesten den ordena publikoa.

Betiere kontuan hartzekoa izango da, orokorrean, ideologia eta sineste askok duten dogmatismorako joera. Beraz, zuzenbideak babes-neurriak hartu beharko ditu pertsona ororen kontzientzia-askatasuna babesteko. Hori izango da bide bakarra sistemaren oinarri den pluraltasuna bermatu ahal izateko.

3.- Berdintasuna askatasunaren arloan: justizia

Askatasuna eta berdintasuna dira legediko balio nagusietariko bi. Horien artean lotura estua dago. Bata bestearen menpe jarri gabe, biak batera egikaritzea lortu behar da.

Atzean utzi behar dira askatasunari lehentasuna eman zioten estatu-ereduak, berdintasuna bigarren maila batean utziz. Hala gertatu zen eruedetan, pribilegiadun gutxi batzuek bakarrik egikari zitzaketen askatasun horiek; izan ere, gehiengoak ez zuen

askatasunak egikaritzeko aukerarik. Adibidez, nahiz eta hezkuntza-eskubidea formalki denentzat aitortu, hori ezingo dute denek egikaritu bitarteko materialik ez badago.

Bide batez, berdintasunari lehentasuna eman nahi bazaio, gainditu beharrekoak dira, halaber, askatasunak murrizten zituzten erregimen autoritarioak, besteak beste, ideologia komunistetan oinarrituriko estatuak.

Indarrean dagoen sisteman, askatasuna lortu nahiko da denontzat, berdintasun-egoeran. Hala, justizia bideratu ahal izango da.

Berdintasuna balio nagusitzat jasotzen da EKko 1.1 artikuluan. EKko 14. artikuluan, oinarritzeko eskubidetzat aitortzen da. Beraz, berdintasuna izango da, aldi berean, eskubide subjektibo eta legediaren printzipio informatzaile. Sistemaren printzipio nagusia izanik, botere publikoen jarduerari begira, batetik, agindua izango da, eta, bestetik, muga. Berdintasuna printzipio izanik, botere publikoek berdin tratatu beharko dute berdina dena (EK 14). Bide batez, diskriminazioa debekatu egiten du: egoera berdinak modu desberdinean tratatzea, alegia.

Botere publikoei zuzendua dagoen berdintasunerako mandatuak bi eremu ditu:

- **berdintasun formala:** horren arabera, egoera berean dauden herritarrek tratatu bera jasotzeko eskubidea dute. Debekatuta daude, beraz, justifikatu gabeko tratatu desberdinak, arbitrarioak. Mandatu hori legegileari luzatuko zaio eta, halaber, legea aplikatzen dutenei.
- **berdintasun materiala:** Estatu liberalak ekarri zuen berdintasun formala aitortzea, alegia, aldarrikatu zuen herritar guztiak legeen aurrean berdinak zirela. Baina ez zen kontuan eduki errealitatean herritarrek ekonomikoki, kulturalki eta sozialki maila desberdinean zeudela; izan ere, horrek galarazi zuen eskubide eta askatasun asko egikaritzea.

Egoera hori gainditu nahian, Estatu sozialak *berdintasun material* kontzeptua gehitu dio aipaturiko berdintasun formalari EKko 9.2. artikuluan. EKko 9.2. artikuluan, botere publikoentzako agindu bat jasotzen da: dagozkion neurriak hartu behar dituzte eta, halaber, dauden oztopoak ezabatu, herritarren arteko askatasuna eta berdintasuna benetakoa izan dadin.

4.- Estatuaren laikotasuna

Mendebaldeko Europako historia kontuan hartuta, esan daiteke laikotasuna dela herritarren kontzientzia-askatasuna berdintasun-egoeran bermatzeko eredurik garatuena. Izan ere, konfesionaltasun edo laizismoaren eredurik arinenek ere ez dute bermatzen herritarren berdintasuna eta askatasun erlijiosoa modu egokian.

Laikotasun terminoa ez da jasotzen EKn, baina haren edukia EKko honela adierazten da 16.3 artikuluan: “inolako erlijioek ez du izango estatu-izaerarik”. Aipatu behar da estatu-izaera espresio hori ez dela egokitzen fenomeno erlijiosoaren aurrean estatu espainiarrak izan duen jarrerarekin; izan ere, Espainiako Estatuak, bere historia kontuan hartuta, konfesionala izan da nagusiki. Horregatik, egokiagoa litzateke zuzenean adieraztea “estatuak ez dela konfesionala izango”. Dena den, era desberdinetako arrazoiek eraman zuten konstituziogilea 16.3 artikuluan aipatutako espresioa hautatzera. Espresio horren jatorrian Alemanian dago, Weimarreko 1917ko Konstituzioan. Estatu-eredu hura plurikonfesionala zen, beraz, *estatuko eliza* hainbat erlijio ziren; horren harira dator estatu-izaera *estatalaren* aipamena.

Laikotasunak adierazten du nolakoa izango den estatuaren jarrera fenomeno erlijiosoaren aurrean. Jarrera horrek bi marka nagusi izango ditu: estatuaren neutraltasuna eta, estatu eta erlijioen arteko banaketa .

Neutraltasunak adierazten du estatuak inpartziala izango dela herritarren uste sendoen aurrean, horiek erlijioso izan edo ez. Herritarren kontzientzia-askatasuna berdintasun-egoeran garatu ahal izateko bide egokiena da jarrera hori. Izan ere, EK 1.1 artikuluko balio nagusiek eta sistemaren oinarri diren printzipio nagusiek neutraltasunera eramaten gaituzte. Herritarren arteko askatasuna (kasu honetan, uste sendoen askatasuna) berdintasun-egoeran garatu beharko bada, nahitaez pluraltasun-egoera etorri da. Horren aurrean, estatuaren neutraltasuna oinarritzotzat jotzen da Europako estatuetan.

Neutraltasunak, ordea, ez du ezaxolarik esan nahi; konstituzioaren aginduz, EK 9.2 artikulua araberak botere publikoak behartuta daude neurriak hartzera herritarren oinarrizko eskubideak eraginkorrak izan daitezkeen. Kontzientzia-askatasuna horien artean dago.

Kontuan hartzekoa da herritarren uste sendoen aurrean estatuak duen neutraltasun-edo inpartzialtasun-jarrera horrek zenbait muga izango dituela. Horien artean kokatu ohi dira indarrean dagoen estatu-ereduaren identitatea definitzen duten oinarrizko balioak.

Herritarren uste sendoen mota-ugaritasuna dela-eta, pluraltasun politikoa, erlijioso eta kulturala nolabait desberdindu daitezke. Estatuak izan behar duen neutraltasun-jarrera ez da kasu guztietan berdina izango. Estatuak berak babestu egin behar ditu bere esentzia eratzen duten balio politikoak. Baian ez da hala gertatuko balio erlijiosoekin; izan ere, gaur egungo estatu laikoek ez dute beren oinarrizko elementuen artean ez dute inolako balio erlijioso zehatzik. Estatuak ez da *fede-subjektua*, horregatik ezin die tratatu desberdinik eman fededunei eta ez fededun diren herritarrei, ez eta, fededun direnen artean, konfesioa bakoitzeko fededunei.

Neutraltasunarekin batera, **estatu eta erlijioen arteko banaketa ere** laikotasunaren adierazgarri da. Estatu espainiarraren kasuan, bereziki azpimarratu behar da estatua eta eliza katolikoaren arteko banaketa. Estatua eta erlijioen artean erabateko independentzia lortzea izango da banaketa horren helburua. Helburu horretarako, honako printzipio hauek bermatu beharko dira:

- Estatuak ezingo du bere eremuko erabakirik hartu arrazoi erlijiosotan oinarriturik.
- Estatuak ezingo du esku hartu konfesio erlijiosoen barne-arazoetan. Konfesioek eta beren legediek erabateko autonomia dute estatuarekiko eta horren zuzenbidearekiko.
- Erakunde erlijiosoak ezin dira barneratuta egon estatuko egituraren barruan; juridikoki ezin dira erakunde juridiko publikotzat jo.

Dena den, zenbait kasutan, herritarren oinarrizko eskubideak eraginkorrak izan daitezten, harremanak sortuko dira estatu eta konfesio artean. Horren ondorioz, nolabaiteko efektu zibilak onartuko zaizkie legedi konfesionalei, iturrietan aztertu dugun moduan.

5.- Lankidetzaren printzipioa

EKko 16.3 artikulua dio estatuak kontuan izango dituela gizartearen sineste erlijiosoak eta dagozkion lankidetzaren harremanak izango dituela Eliza katolikoarekin eta gainontzeko konfesioekin. Artikulu horretan kokatu ohi da lankidetzaren printzipioaren oinarri juridikoa.

Laikotzat jotzen diren estatuen artean, hainbat joera daude Estatuaren eta konfesio erlijiosoen arteko lankidetzaren aurrean. Batzuetan, konfesio erlijiosoekiko lankidetzaren harremanak baztertu dira, harreman horiek konfesionaltasunaren adierazgarri balira bezala. Frantzia izan da horren adibide, askotan laizismora hurbildu baititu jarrerak. Beste estatu batzuetan, berriz, onartzen da lankidetzaren bateragarria dela laikotasunarekin. Egoera horretan dauden estatuentzat, (hala nola, Espainia), herritarren edo horiek eratzen dituzten taldeen erlijio-askatasuna modu eraginkorrean bideratzea izango da lankidetzaren helburua. Ildo horretan, lankidetzak zenbait mugak izango ditu: herritarren arteko berdintasuna eta estatuaren izaera laikoa.

EK 16.3. artikuluan jasotzen den lankidetzaren mota hori EKko 9.2. artikuluan jasotzen den mandatu orokorraren zehaztapentzat jotzen da. Izan ere, EKko 9.2 artikuluan, botere publikoei luzatzen zaie mandatu bat; dagozkion neurriak hartu beharko dituzte herritarren eskubide eta askatasunak egiazkoak eta eraginkorrak izan daitezten. Izan ere, konstituziogileak beharrezkotzat jo zuen aipamen hori, historian zehar eta laikotasunaren

izenean egin ziren *gehiegikeria laizistak* ekiditeko; Hala, alderdi atzerakoienek zituzten kezka *lasaitu* nahi ziren, konstituzioan egindako deklarazio *ez konfesionalaren* aurrean.

Zehaztu beharrekoa da lankidetzaren zein eremutan gauzatu behar den. Hasteko, kanpoan utzi behar dira izaera hertsiki erlijiosoa duten jarduerak. Estatuak ezin du konfesio erlijiosoekin batera aritu *lanean* helburu erlijioso hertsia lortzeko; horrek lankidetzaren mugak urratuko lituzke. Bestalde, erlijio-konfesioek helburu sozialekin egiten dituzten jarduerak ere —hezkuntza, kultura edo asistentziaren eremua—ez dira izango KEko 16.3ko lankidetzaren objektu, eta estatuarekin lan egingo dute. Izan ere, eremu horiek estatu sozialaren zereginak dira eta, berdintasun-printzipioaren arabera, estatua lankidetzaren arituko da eremu horretan ari diren elkarte eta fundazio guztiekin, baldin eta interes publiko edo orokorrekoak eta irabazi-asmorik gabekoak badira.

EK 16.3 artikuluan ageri da lankidetzaren zeregina: neurriak hartzea herritarrei —eta horiek eratzten dituzten taldeei— aitortu zaien askatasun erlijiosoa egiazkoa eta eraginkorra izan dadin. Alegia, legediak bideratu beharko du erlijio-askatasuna eta hori gauzatzeko neurriak hartu. Horretarako, ezinbestekoa da estatua eta interesa duten subjektuak elkarlanean aritzea.

Lankidetzaren hala ulertuta, laizismoaren eredutik desberdin daiteke. Dena den, konfesionaltasunean ez murgiltzeko mugak aurrez-aurre izan beharko dira: herritarren arteko berdintasuna eta estatuaren izaera laikoa.

Estatuaren eta erlijioen arteko lankidetzaren zein eremutan gauzatu da? D. LLAMAZARES irakasleak hirutan sistematizatu du lankidetzaren eremua: 1) nahitaezko lankidetzaren, 2) berdintasunarekin eta laikotasunarekin bateragarria den lankidetzaren eta 3) berdintasuna eta laikotasunarekin bateraezina den laikotasuna.

Indarrean dagoen legediaren eremuan, autore horrek **nahitaezko lankidetzaren eremu** jasotzen ditu: a) erlijioei *status* juridiko zibila aitortzea, nortasun juridikoa eta barne-autonomia aitortuz, b) zentro publikoetan (espetxeetan, ospitaleetan, gune militarretan, laguntza-zentroak) laguntza erlijiosoa egotea.

Berdintasunarekin eta laikotasunarekin **bateragarria den lankidetzaren eremua** aipatzen ditu:

a) eremu konfesionalean eraturiko arau edo negozio juridikoei efektu zibilak aitortzea; baldin eta gertatzen diren gatazkak —kontzientzia-arau eta estatuaren arau artekoak— gainditzeko bidea hori bada; mugak honako hauek izango dira: ordena publikoa, herritarren berdintasuna eta estatuaren laikotasuna. Horren adibide dira, besteak beste, ezkontza erlijiosoei aitortzen

zaien eraginkortasun zibila eta ezkontzari amaiera ematen dioten erabaki kanonikoen efektu zibilak aitortzea.

b) aldeko erregimen fiskal bat edukitzea, betiere bateragarria izango dena irabazi-asmorik gabeko elkarteei eskaintzen zaienarekin, ez hobe.

c) gizarte-segurantzaren eremuan, ministro konfesionalentzako erregimen berezi bat.

Autore horren aburuz, EK 16.3ren eremuan kokatu ohi diren honako jarduera hauek **bateraezinak** dira laikotasunarekin eta berdintasunarekin:

a) estatuak konfesioak finantzatzen laguntzea, haren langileak, helburu erlijiosoak edo jarduera erlijiosoak.

b) estatuak irakaskuntza erlijiosoa antolatzea hezkuntza sistemaren eremuan eta irakasleria zuzenean finantzatzea.

c) konfesio erlijiosoak erregimen fiskal pribilegiatua izatea, interes orokorra eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek dutenaren ezberdina; are okerrago, erregimen pribilegiatu hori konfesio batzuei bakarrik aplikatzea.

Aipatzekoa da estatu eta konfesio erlijiosoen arteko lankidetzak gauzatu daitekeela hainbat bitarteko tekniko-juridikoren artean. Horietako bat, ez bakarria, AELO 7.1 artikuluan aipatzen diren hitzarmenak dira. Hitzarmen horiek posible egiten dute estatuaren eta konfesioen arteko lankidetzak, eta, halaber, konfesioen partaidetza bideratzen du, EK 9.2, legegilearen borondatea eratzeko.

Dena den, azpimarratu behar da hori ez dela bide bakarria. Izan ere, estatuak konfesioekin izan behar duen lankidetzak —herritarren askatasun erlijiosoa bideratzekoa— hitzarmenetara mugatzeak arrisku bat dakar; hitzarmen horretan gauzatutako erregimen berezia, aldekoa, bakarrik erlijio bati, edo batzuei luzatzea. Horrek urra lezake erlijioen arteko berdintasuna.

III.- BIBLIOGRAFIA, LEGERIA ETA JURISPRUDENTZIA

a) Bibliografia

- **Oinarrizkoa:** D. LLAMAZARES FERNÁNDEZ, *Derecho de la libertad de conciencia I*, civitas, Madril 2002, 271.-330. or.; D.LLAMAZARES FERNÁNDEZ, *Derecho Eclesiástico del Estado, Derecho de la libertad de conciencia*. Servicio de publicaciones de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense de Madrid, Madril, 1991, 251.-284. or.

- Osagarriak:

Orokorra: Navarro-Valls koordinatzailea.

Pertsonalismoari buruz: Parejo Alfonso, L, “Constitución y valores del ordenamiento”, *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al profesor Eduardo García de Enterría*, Civitas, Madril, 1991, I. liburukia.

b) Jurisprudentzia

Pertsonalismoari buruz: AKE 53/1985, apirilaren 11koa, Aranzadi RTC 1985/53, 1., 3., 4. eta 8. oinarri juridikoak. **Kontzientzia-askatasuna buruz:** AKE 19/1985, otsailaren 13koa, Aranzadi RTC 1985/19, 2. oinarri juridikoa. **Erljio-askatasunari buruz:** AKE 24/1982, maiatzaren 13koa. **Oinarrizko eskubideen dimentsio objektiboari buruz:** AKE 67/1986, ekainaren 7koa, 2. oinarri juridikoa; 114/1984, azaroaren 24koa, 4.oinarri juridikoa. **Berdintasunari buruz:** 1985eko otsailaren 14ko AKE, 2., 3. eta 4. oinarri juridikoak; AKE 1985 apirilaren 11koa, 1. oinarri juridikoa.